



IRAKASLEEN
H
I
Z
K
U
N
T
Z
A
E
S
K
A
K
I
Z
U
N
A

2004 eta 2005eko
AZTERKETAK

361(079.1)

**IRAKASLEEN
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK
2004 eta 2005eko AZTERKETAK**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren
katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

- Argitaraldia: 1.a, 2008eko maiatzean
- Ale-kopurua: 2.000 ale
- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Azala: Jesus Iturriza
- Fotokonposizioa: Eusko Printing Service, S.L.
www.euskoprintingservice.net
- Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
www.graficassantamaria.com
- ISBN: 978-84-457-2695-2
- Lege-gordailua: VI-61/08

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
ATARIKO PROBAK	9
HE1 1. eredua	11
2. eredua	25
HE2 1. eredua	37
2. eredua	49
HLEA 1. eredua	61
PROBA IDATZIAK	73
HE1 1. eredua	75
2. eredua	85
HE2 1. eredua	93
2. eredua	101
HLEA 1. eredua	107
AHOZKO PROBAK	115
HE1 	117
HE2 	121
HLEA 	125
ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	129
1. Kalifikazio-sistemaren azalpena	131
1.1. Erreferentzia nagusiak	131

1.2. Deialdi irekiak	132
1.3. Deialdi itxiak	133
2. Idazlanak	135
2.1. Adierazpen-maila	135
2.2. Koherentzia	136
2.3. Kohesioa	137
2.4. Zuzentasuna	139
2.5. Lexikoa	144
3. Ahozko proba	145
3.1. Adierazpen-maila	145
3.2. Ahoskera	146
3.3. Hitz-jarioa	148
3.4. Zuzentasuna	149
3.5. Lexikoa	150
4. Irizpideen laburpena	151
5 Baremoak	153
ERANTZUNAK	161
Atariko proben erantzunak	163
Proba idatzien erantzunak	165
ERANSKINAK	167
Estatistika-laburpena	169
Arauzko xedapen batzuk	170

HITZAURREA

Orain argitara ematen dugun liburuxka honetan, gaurdainokoetan legez, Hezkuntza alorreko Hizkuntza Eskakizunen azterketak biltzen ditugu, 2004 eta 2005 urteetakoak hain zuzen ere. Ohikoak izan diren HE1 eta HE2ren ondoan HLEA izeneko hizkuntza-eskakizuna ere sartu da oraingoan. Sigla horien esanahia hauxe da: Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria. Izatez, hizkuntza-eskakizun hau 2005ean¹ sortu zen eta Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langileei zuzendua dago.

Liburuxka honetan biltzen diren aztermaterialak orain artean ez bezalako ordenan ematen ditugu. Lehenengo atalean Atariko Probak (Aukera Anitzeko Galdekizunak) aurkezten dira. Hurrengo atalean Proba Idatziak ematen ditugu. Eta azkenik, Ahozko Proben adibide batzuk ematen dira. Entzumenari dagozkion materialak CD batean bilduak dituzu, baita mintzamen-proban gai-azalpenerako abiaburu gisa erabili izan diren grabazio batzuk ere.

Liburuaren beste ataletan, azterketen zuzenketarako erabiltzen diren irizpideak eta ariketen erantzunak bildu ditugu. Azkenik, eranskinetan estatistika-taula eta lege-arauen bilduma datoz.

Hizkuntza-azterketak ez dira urtero aldatzen diren gauzak, baina urte batzuen perspektibatik begiratuta, badute beren bilakaera. Horrela, zenbait berrikuntza egin dira azterketa hauetan ere, batez ere Ahozko Proban. Proba horrek betidanik bi zati izan ditu. Hasieran zati horiek hain definituak ez baziren ere, gaur egun zati horiek helburu eta prozedura nabarmen desberdinak dituzte. Lehenengoan azterketariak gai jakin baten gaineko azalpenak emateko duen trebetasuna neurtu nahi da batik bat. Erabiltzen den euskarria edo estimulua audioa izan ohi da edota argazkiak. Bigarren zatia elkarrizketarena da: azterketariak elkarreraginezko egoeretan duen trebetasuna erakutsi behar du. Izan ere, azken trebetasun hau (ahozko elkarreragina) berariaz aipatzen da Europako Erreferentzia Markoan.

¹ Hizkuntza-eskakizun honek aurrekari garbia du: 1996tik 2002ra HBLEM izeneko agiria eman zen langile-multzoz horrantzat. Agiri zaharraren jabea HLEA aitortu zaie.

Azterketa egiteko uneak ikaskuntza-prozesu luzean dauden koskak izaten dira, azterketariek sarritan behin baino gehiagotan saiatu beharreko uneak gainera, ez baita beti erraza azterketak lehenbizikotik gainditzea, batez ere goi-mailetan. Horregatik, azterketa-eredu erreal hauek argitaratzea ikasbide horretan dabilzan irakasle eta hezkuntza-langileentzat argigarri eta lagungarri izatea nahi genuke.

JUAN JOSE AGIRREZABALA MANTXOLA
Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria

ATARIKO PROBAK

ARGIBIDEAK

Hona hemen Atariko proben ezaugarri nagusiak:

- Galdekizun hauek lau aukerako galderez osaturik daude. Galdera bakoitzak lau aukera ditu eta erantzun zuzen bakarra aukeratu behar da.
- Galdera-kopurua: 70 galdera. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Erantzun okerrengeatik ez da punturik kentzen.
- Proba egiteko denbora: ordubete.
- Erantzunak, izen-abizenak eta nortasun-agiriaren zenbakia erantzun-orrian markatu behar dira

ATARIKO PROBA HE1.

1. eredua

- 01.** Zure urtebetetzeko bazkaria ... egingo dugu.
- a) urtarrilak 10an
 - b) urtarrilak 10ean
 - c) urtarrilaren 10ean
 - d) urtarrilaren 10an
- 02.** *Mina goxatu zitzaion.* Bilatu baliokidea.
- a) Mina areagotu zitzaion.
 - b) Minarekin gaizki pasatu zuen.
 - c) Minarekin gustura zegoen.
 - d) Mina arindu egin zitzaion.
- 03.** Zein dago **txarto**?
- a) Ane Andoniri gustatzen zaio.
 - b) Anek eta Andonik elkarri maite diote.
 - c) Ane Andonirekin maiteminduta dago.
 - d) Ane Andoniren gustukoa da.
- 04.** Zuk idatzi erabat harritu
- a) duzuna / zait.
 - b) duzunak / nau.
 - c) duzuna / nau.
 - d) duzunak / dit.
- 05.-** Zein dago **txarto**?
- a) Zoaz bizkor; bestela, ez zara garaiz iritsiko.
 - b) Zu ona zara; Maider, aldiz, ez.
 - c) Egizu lana; berriz, ikusiko duzu.
 - d) Egia diozu; esateko garaia, ordea, ez da onena.
- 06.** Arratsaldeko Mikelekin egotekoa naiz.
- a) zortzitarako
 - b) zortzietan
 - c) zortzitan
 - d) zortzian
- 07.** Zein da gramatikalki zuzena?
- a) Nik ez ditut libururik erosi.
 - b) Orain arte ez didazu gauza horiek esan.
 - c) Ez ditut erosi ez autorik ezta garajerik ere.
 - d) Horregatik ez duzu inoiz diskorik erosten.

08. *Lauaxeta nor den? Batek daki!* Bilatu baliokidea.
- a) Pertsona batek bakarrik daki!
 - b) Auskalo!
 - c) Inortxok ere ez daki!
 - d) Edozein pertsonak daki hori!
09. Zein ez da sail berekoa?
- a) Ondoeza
 - b) Xarma
 - c) Oinazea
 - d) Eritasuna
10. Hainbat eman diote lan-aukera.
- a) emakumeri
 - b) emakumeari
 - c) emakumeei
 - d) emakumei
11. Esapide honen amaiera bilatu: *Gustuko lekuan*
- a) txapela kaskoan.
 - b) mozkorra galanta.
 - c) gustuko jendea.
 - d) aldaparik ez.
12. Zertarako ikusi berriro pelikula hori? ikusita ez duzu aski?
- a) Behingoz
 - b) Beste behin
 - c) Behin
 - d) Behin batean
13. Santa Elenako elizara joan ginen elkarrekin ospatzera.
- a) hilkutxa
 - b) hileta
 - c) hilotza
 - d) hilketa
14. *Lagun asko al zarete afaltzeko? Zein dago txarto?*
- a) Hamabost inguruan.
 - b) Hamabost edo.
 - c) Batzuk behintzat bai.
 - d) Hamabosten bat.

15. Gure lantegiko horma zikin daude.
- a) gehienak
 - b) gehiegiak
 - c) gehien
 - d) gehiengoak
16. *ikusiko dugu zelan gelditu den hori.* Aukeratu **gaizki** dagoena.
- a) Egunaren buruan
 - b) Egunaren amaieran
 - c) Egunaren zehar
 - d) Egunean zehar
17. Zein **ez dago** sukaldearekin lotuta?
- a) Eragotzi
 - b) Irakin
 - c) Egosi
 - d) Kiskali
18. Berandu da; afarira joango naiz.
- a) honezkero,
 - b) hala ere,
 - c) berriz,
 - d) oster,
19. *Gizon hori baino **xelebreagorik** ez dut ezagutzen.* Bilatu baliokidea.
- a) interesgarriagorik
 - b) famatuagorik
 - c) barregarriagorik
 - d) ezagunagorik
20. Ikasi ganoraz, bestela
- a) ez duzu gaitutuko eta.
 - b) ez duzunez gaitutuko.
 - c) ez duzula gaitutuko.
 - d) ez duzun gaitutuko.
21. Zein **ez da** mespretxuzkoa?
- a) Mozoloa!
 - b) Liraina!
 - c) Kaikua!
 - d) Tentela!.

22. Ezer ulertu ez duzula esateko, zein dago **gaizki**?
- a) Lorerik ere ez dut ulertu!
 - b) Piperrik ere ez dut ulertu!
 - c) Tutik ere ez dut ulertu!
 - d) Txintik ere ez dut ulertu!
23. *Erosi duzu egunkaria?* Aukeratu erantzun zuzena.
- a) Bai, eta zure amak ere bai.
 - b) Bai, eta ere zure amak.
 - c) Bai, eta baita zure amak.
 - d) Bai, eta zure amak ere.
24. *Haurrari ez nion gozokirik erosi eta sekulako hartu zuen.*
Aukeratu **gaizki** dagoena.
- a) kasketaldia
 - b) amorrua
 - c) pilotakada
 - d) haserrealdia
25. Mutil-koadrila osoa ... jantzita joan ginen.
- a) arrantzaletzat
 - b) arrantzalearena
 - c) arrantzalerako
 - d) arrantzale
26. *Beste kopatxo bat nahi?* Erantzun baietz.
- a) Ezta tantarik ere!
 - b) Nahi izango ez dut bada!
 - c) Baita zera ere!
 - d) Utikan!
27. Ipuinaren amaieran igela ... bihurtu zen.
- a) printze
 - b) printzea
 - c) printzean
 - d) printze ederrean
28. Behin eta berriz zuen egia.
- a) uko egin
 - b) ezereztu
 - c) ukatu
 - d) deuseztatu

29. Bihar futbol partida daukat, baina ez daukat zelan
- a) joateko.
 - b) joaterik.
 - c) joaten.
 - d) joan.
30. Zein **ez da** sail berekoa?
- a) Agudo
 - b) Arin
 - c) Bizkor
 - d) Emeki
31. Gure umea txikia da, baina elizan sartu eta Aitaren badaki.
- a) egitea
 - b) egiten
 - c) egiterik
 - d) egin
32. Lagunek diskoak ekarri, pikutara joateko esan
- a) zizkigutenean / genien
 - b) zigutenean / genien
 - c) zizkigutenean / genion
 - d) zigutenean / genizkien
33. Zein **ez da** sail berekoa esanahiaren aldetik?
- a) Adarra jo
 - b) Txantxetan aritu
 - c) Harpa jo
 - d) Bazterra jo
34. *Medikuari esaten ez badiozu, ez zara osatuko.* Zein da baliokidea?
- a) Medikuari esan ez ezik ez zara osatuko.
 - b) Medikuari esatekotan ez zara osatuko.
 - c) Medikuari esan ezean ez zara osatuko
 - d) Medikuari esanagatik ez zara osatuko.
35. Zein da *goizalde* hitzaren sinonimoa?
- a) Egunsentia
 - b) Goi mendia.
 - c) Gosaria
 - d) Mendi-irteera

36. Iaz neska-mutilek adierazi benetan gertatu ziren.
- a) zenizkigunak
 - b) dizkigutenak
 - c) zizkigutenak
 - d) zigutenak
37. Zein **ez da** sail berekoa?
- a) Baretu zaitez!
 - b) Adi egon!
 - c) Erne egon zaitez!
 - d) Argi ibili!
38. Norena da artikulu hori?
- a) Arantza Ugarte idatzia da.
 - b) Arantza Ugartegatik idatzia da.
 - c) Arantza Ugartek idatzia da.
 - d) Arantza Ugarterengatik idatzia da.
39. Hizlariak ez zuen esan
- a) tontakeri handirik.
 - b) tontakeriarik handirik.
 - c) tontakeririk handirik.
 - d) tontakeria handirik.
40. Zein dago zuzen idatzita?
- a) Gataska
 - b) Goretzi
 - c) Garratza
 - d) Gerispe
41. Zer da «lagun mina»?
- a) Lagunak emandako mina.
 - b) Lagunik nahi ez izatea.
 - c) Mina lagun duzula bizitzea.
 - d) Lagun handia.
42. Atzo ekarri indabak biharko prestatuko
- a) zenizkiguten / dizkizuegu
 - b) zenigun / dizkizuegu
 - c) zenizkigun / dizuegu
 - d) zenizkigun / genizuen

43. Zein da zuzena?
- a) Hori egin duen neskatoak handi-handia da.
 - b) Atzo etorri zen mutila ez dauka dirurik.
 - c) Hori egin duen gizonari zentzua falta zaio.
 - d) Emakumeak egin diguna min eman digu.
44. Zein ez da sail berekoa?
- a) Zabarra.
 - b) Trebea.
 - c) Traketsa.
 - d) Baldarra.
45. Lan horiek ezin izan ...
- a) nuen amaitzerik.
 - b) nituen amaitzerik.
 - c) nuen amaitu.
 - d) nituen amaitu.
46. eta zaharrago izan, eta nekezago egiten zait eguneroko ibilalditxo.
- a) Gero / orduan
 - b) Zenbat / orduan
 - c) Zenbat / zenbat
 - d) Gero / geroago
47. Atzo hondartzan denbora gehiena ur ertzean
- a) eman genuen.
 - b) hartu genuen.
 - c) eramanez genuen.
 - d) jo genuen.
48. Zein ez da aurpegi-atala?
- a) Bekaina
 - b) Betilea
 - c) Sudurra
 - d) Garondoa
49. Gezurra baino esaten ez duena
- a) gezurtitsua da.
 - b) gezurri samarra da.
 - c) gezurtsua da.
 - d) gezurri hutsa da.

- 50.** Zein dago **txarto**?
- a) Zelako itxura daukazu!
 - b) Horixe itxura daukazuna!
 - c) Ederra itxura daukazula!
 - d) Ederra itxura daukazuna!
- 51.** Eta etorkizunaz, zer diozu?
- a) Ez nau batere kezkatzen.
 - b) Ez zait batere kezkatzen.
 - c) Ez dit batere kezkatzen.
 - d) Ez naiz batere ez kezkatzen.
- 52.** *Zu kale horretako seigarrenean bizi zarela? Neu ere bai.* Aukeratu baliokidea.
- a) Bata bestearekin bizi gara.
 - b) Etxe berean bizi gara.
 - c) Etxe bertan bizi gara.
 - d) Etxe berdinean bizi gara.
- 53.** Aukeratu baliokidea.
Horrek dauka harrikada!
- a) Lan handiak hartzen ditu.
 - b) Harri izugarria dauka.
 - c) Ez dago burutik sano.
 - d) Oso jenio txarra dauka.
- 54.** Aukeratu ondo dagoena.
- a) Poltsa ekartzen, mesedez?
 - b) Badakarkidazu poltsa, mesedez?
 - c) Poltsa ekarriko didazu, mesedez?
 - d) Ekartzen al didazu poltsa, mesedez?
- 55.** Zerrendako produktu guztiak agindu didazu, baina ez zait posible izan botikakoak
- a) erostea / erosteko.
 - b) erosteko / erosteko.
 - c) erostea / erosi.
 - d) erosteko / erostea.

56. Jostailu guztiak ez zara lotara joango.
- a) batzen bitartean
 - b) batu bezain laster
 - c) batu arte
 - d) batu orduko
57. Durangotik hamar ... dago nire etxea.
- a) kilometroetara
 - b) kilometroetan
 - c) kilometro
 - d) kilometrora
58. Mendian gora gindoazela, haien kantuaren entzun genuen.
- a) musikaldia
 - b) hondarra
 - c) oihartzuna
 - d) barrunbea
59. Zein dago **gaizki** idatzita?
- a) epaimahai.
 - b) alabaina.
 - c) leihaketa.
 - d) hamahiru.
60. Ondoko hitzetako bat **gaizki** idatzita dago. Zein?
- a) garrantzia
 - b) itsua
 - c) platerra
 - d) saihetsa
61. *Ados zaude nirekin?* Erantzun baietz.
- a) Nola ez bada!
 - b) Nola egongo naiz bada ados?
 - c) Baietz zurekin ados jarri!
 - d) Zurekin? Bai zera!
62. *Zure gurasoekin egon nintzen.* Zein dago **txarto**?
- a) aurreko astean
 - b) beste astean
 - c) pasa den astean
 - d) lehengo astean

63. Etxeko lanak egiten ditugu normalean.
- a) biok elkar
 - b) bion artean
 - c) biok artean
 - d) elkar
64. *Zenbat balio du*
- a) botila bat sagardo?
 - b) botila batek sagardo?
 - c) botila batek sagardok?
 - d) botila bat sagardok?
65. Zein dago gramatikalki **gaizki**?
- a) Astero arraina jan behar dugu.
 - b) Astero arraina jan behar izan dugu.
 - c) Astero arraina jan behar izaten dugu.
 - d) Astero arraina jaten behar izan dugu.
66. Lan-baldintzak langileekin zituzten lehenbizi.
- a) baldintzatu
 - b) hitzartu
 - c) hitzordu
 - d) adosatu
67. Atzo lanpetuta
- a) ibiltzen ginen.
 - b) genbiltzan.
 - c) gebiltzen.
 - d) ibiltzen ari ginen.
68. Pelikula hori ona dela esateko, ez dago.
- a) ikusterik besterik
 - b) ikusterik baino
 - c) ikustea
 - d) ikusi besterik

- 69.** Maider: «*Hemen duzu beste liburu bat irakurtzeko!*»
Itziar: «*Hori baino ez nuen behar!*» Zer adierazi nahi du Itziarrek?
- a) Beste liburu bat behar zuela.
 - b) Justu liburu hori ez zuela behar.
 - c) Ez duela irakurri nahi.
 - d) Horixe nahi zuela justu-justu.
- 70.** Zein dago ondo?
- a) Zure etxean ikusi ginen elkar.
 - b) Zure etxean ikusi genituen elkar.
 - c) Zure etxean ikusi genion elkar.
 - d) Zure etxean ikusi genuen elkar..

ATARIKO PROBA HE1.

2. eredua

- 01.** Hainbat eman diote oparia.
a) umeri
b) umeari
c) umeei
d) umeeri
- 02.** Zein **ez da** sinonimo?
a) Erpin
b) Gailur
c) Tontor
d) Pikor
- 03.** Zein **ez da** sail berekoa?
a) Uztartu
b) Elkartu
c) Lotu
d) Ahitu
- 04.** Gelditu ere ez da egiten. Hori da hori...!
a) lukainka
b) tuntuna
c) alproja
d) zazpikia
- 05.** Beti lurrean eserita, ume! Tira, eskua eman eta egizu...!
a) ttipi-ttapa
b) ttakalo
c) koko
d) apatx
- 06.** Zein dira sinonimo?
a) zin egin / zintz egin
b) putz egin / muzin egin
c) zotz egin / hots egin
d) alde egin / hanka egin
- 07.** *Nirekin etorri nahi duzula? Pentsatzea ere!*
Zer esan nahi du?
a) Ez duela aukerarik joateko.
b) Aukera duela joateko.
c) Ondo pentsatzen badu, joango dela.
d) Berehala joango dela.

08. Miren izendatu dugu... .
- a) zuzendaritzat
 - b) zuzendaria
 - c) zuzendariz
 - d) zuzendari
09. *Horiek dira begi zuloak!*
Zer adierazi nahi du?
- a) Edertasuna.
 - b) Hustasuna.
 - c) Lo falta.
 - d) Lilura.
10. Zein **ez da** hegaztia?
- a) Eperra
 - b) Galeperra
 - c) Liztorra
 - d) Hontza
11. *Horrek **begitan** hartu nau.*
Zer esan nahi du?
- a) Horrek maite nau.
 - b) Horrek gorrotatzen nau.
 - c) Horrek ikusi nahi nau.
 - d) Horrek ikusi egin nau.
12. Zein dago **gaizki** idatzita?
- a) Ihaz
 - b) Leihoa
 - c) Zehatz
 - d) Huts
13. Zein **ez da** sail berekoa?
- a) Madaria.
 - b) Arana.
 - c) Ilarra.
 - d) Sagarra.
14. *Hau ere nik egin behar dut? Hori baino ez nuen behar! Zer esan nahi du?*
- a) Egiteko horren beharrean egon dela.
 - b) Egiteko horixe bera behar zuela.
 - c) Pozik egingo duela egiteko hori.
 - d) Egiteko hori ez duela nahi.

15. Herenegun Lesakatik
- a) etortzen ginen.
 - b) gentozen.
 - c) gatozen.
 - d) etortzen ari ginen.
16. *Zer moduz gabiltza?*
Zein **ez da** erantzun egokia?
- a) Hor nonbait.
 - b) Tira, hainbestean ere ...
 - c) Sekula santan.
 - d) Bagabiltza behintzat eta ...
17., *arrats euri*.
Eman hasiera esamoldeari.
- a) Egunez harri...
 - b) Goiz jaiki...
 - c) Goiz gorri...
 - d) Egunez zuri...
18. *Urrirako mahatsak ... daude*. Zein dago **txarto**?
- a) helduak
 - b) helduta
 - c) heldurik
 - d) heldutak
19. Aitak ez du gurekin zinera nahi, baina gu nahi du.
- a) etortzea / joatea
 - b) etortzea / joateko
 - c) etorri / joatea
 - d) etorri/ joateko
20. Bai, baina asko harritu
- a) zait
 - b) dit
 - c) nauen
 - d) naiz
21. *Zenbat jende gara elkartzekoa?* Zein dago **txarto**?
- a) Hamar bat.
 - b) Hamar edo.
 - c) Hamar inguru.
 - d) Hamar aldean.

22. Zein **ez da** etxeko tresna?
- a) erratza
 - b) zartagina
 - c) gurdia
 - d) eltzea
23. Giroa ... eta liskarrak hasi dira langileen artean.
- a) zakartu
 - b) baretu
 - c) sendotu
 - d) hobetu
24. Gero eta jokatzen du futboleant.
- a) ondoago
 - b) hobe
 - c) hobeto
 - d) hobeago
25. Ahalik iritsi naiz.
- a) lasterrena
 - b) lasterragorik
 - c) lasterrago
 - d) lasterrik
26. Ez dut jaka hartu eta nago.
- a) hotzikara
 - b) hotzak
 - c) hotzarekin
 - d) hozpera
27. Etxean dagoela, dei egingo
- a) baneki / nioke.
 - b) jakin banu / diot.
 - c) jakingo banu / niokeen.
 - d) banekien / niokeen.
28. Zein dago **txarto**?
- a) Betiko lagunak gara.
 - b) Lagunak izango gara betiko.
 - c) Betidanik txintxoak izango gara.
 - d) Beti gaude prest lanerako.

29. Musean irabaziko itxaropenaz eseri ziren.
- a) zutela
 - b) zuten
 - c) zutenaren
 - d) zutelaren
30. Zeinek **ez du** kolpea adierazten?
- a) zartada.
 - b) kaskarrekoa.
 - c) ipurdikoa.
 - d) laprastada.
31. ondoan bazkaltzen dute beti.
- a) Bata bestearen
 - b) Batak bestearen
 - c) Elkar
 - d) Elkarrekin
32. Katuak jauzi egin eta txori guztiak zituen.
- a) xamurtu.
 - b) ihesi.
 - c) hankarazi.
 - d) uxatu.
33. Egarrri naiz eta emadazu
- a) edatea.
 - b) edaten.
 - c) edateari.
 - d) edateko.
34. Ez dakit zure alabak zertan..... nire gauzetan endredatzen.
- a) ari den
 - b) dagoen
 - c) dabilen
 - d) diharduen
35. *Mikel jota dago.*
Zein **ez da** baliokidea?
- a) Erotuta
 - b) Etsita
 - c) Zuzenduta
 - d) Leher eginda

36. Gazte gustatzen zaio musika.
- a) guztiri
 - b) guztiari
 - c) deneri
 - d) orori
37. Zein ordu dago ondo idatzita?
- a) Bost eta hogeitan iritsiko da.
 - b) Seiretan elkartuko gara tabernan.
 - c) Hirurak eta hogeiko autobusa hartu behar dugu.
 - d) Ordu biak eta erdi dira dagoeneko.
38. Motor hori oso polita da eta, , ez da oso garestia.
- a) bestalde
 - b) hortaz
 - c) gainerakoan
 - d) gainontzean
39. Aitor bere aita handia da.
- a) bezainbeste
 - b) bezain
 - c) adina
 - d) bezalako
40. Zein esalditan **ezin daiteke** «jo zuten» ipini aditzaren ordezt?
- a) Ederki astindu zuten txakurra
 - b) Gero Gasteizera abiatu ziren.
 - c) Etsaitzat hartu zuten.
 - d) Baxera birrindu zuten.
41. Zein **ez da** zuhaitza?
- a) Hurritza
 - b) Betondoa
 - c) Lizarra
 - d) Gereziondoa
42. Aukeratu **gaizki** dagoena.
- a) Gaur medikuarenera joan behar dut.
 - b) Arropak erostea ahaztu zait.
 - c) Liburuak ekartzea ahaztu ditut.
 - d) Hori egitea merezi du.

43. *Gogoko tokian aldaparik ez. Zer esan nahi du?*
- a) Ametsek ez dutela zailtasunik.
 - b) Egiten dena gustura egiten bada, ez dela lana.
 - c) Zailtasunak erraz gainditzen direla.
 - d) Gauza guztiak ez direla desatseginak.
44. *Geroa, alferraren leloa. Zer esan nahi du?*
- a) Lana gerorako uztea alferrik dela.
 - b) Alferrak gerorako uzten duela lana.
 - c) Etorkizunean, leloak izango direla alferrak.
 - d) Leloak alferrik galtzen direla noizbait.
45. *Hago isilik, memelo hori! Aukeratu baliokidea ez dena.*
- a) ... kaiku hori.
 - b) ... kokolo hori.
 - c) ... tentel hori.
 - d) ... harro hori.
46. *Elkar hartuta ibili ziren. Zer esan nahi du?*
- a) Nobioak izan zirela.
 - b) Besotik helduta ibili zirela.
 - c) Elkarren kontra aritu zirela.
 - d) Zerbait adostuta zutela.
47. *Zein dago ondo?*
- a) Ez dago zer esaterik.
 - b) Ez dago zer esatekorik.
 - c) Ez dago zer esanik.
 - d) Ez dago zer esatea.
48. *Azterketa hori ...*
- a) % 40k gainditu du.
 - b) % 40ek gainditu du.
 - c) % 40ak gainditu du.
 - d) % 40rek gainditu du.
49. *Zergatik ez zatoz nirekin?*
- a) Horixe!
 - b) Hargatik!
 - c) Zergatik ez daukat gogorik!
 - d) Ez daukadanez gogorik

50. *Ezagutzen duzu Mirenen alaba?* Aukeratu erantzun **desegokia**.
- a) Bai, jakina!
 - b) Ez dut ezagutuko, bada!
 - c) Nola ez, bada!
 - d) Ezagutzea ere!
51. Zein dago ondo?
- a) Amaituko duenean, esan.
 - b) Ikusiko duzu, etorriko denean!
 - c) Erosten dudanean, jakinaraziko dizut.
 - d) Konponduko dudanean, zatoz bila.
52. Zein dago ondo?
- a) Zure mobila ez da nirea bezala.
 - b) Entzun duzunaren moduan da.
 - c) Kotxea zuk esan duzun bezala da.
 - d) Zure aita bezalakoa zara.
53. Kalera esan zenidan, baina amak ez zidan utzi
- a) joatea / jatsi
 - b) joatea / jaisten
 - c) joateko / jaisten
 - d) Badira ikasleak inoiz ere ez direla agertzen.
54. Zein bikotekide dira **desberdinak**?
- a) Haserrea eta liskarra.
 - b) Nahia eta ezina.
 - c) Poza eta algara.
 - d) Izua eta ikara.
55. Zenbat izango gara?
- a) Hamar, gutxi gorabehera.
 - b) Hamar, gutxigorabehera.
 - c) Hamar, gutxigora behera.
 - d) Hamar, gutxi-gora-behera.
56. Zein dago ondo?
- a) Bakarrik joan naiz aldiz bat.
 - b) Oraingoan, bai, oraingoan iritsiko gara.
 - c) Aurten ez, bestean.
 - d) Beste hilean elkartu zen.

57. Zein dago **txarto**?
- a) Larunbatean ikusi nituen.
 - b) Ostiralean dugu ezkontza.
 - c) Maiatzan edo ekainan izango da lehiaketa.
 - d) Urtarrilean hotz handia egiten du.
58. Gaurko hizlaria, zelan?
- a) Ez nau bat ere gustatu.
 - b) Ez dit konbentzitu.
 - c) Ez zait batere gustatu.
 - d) Ez naiz bat ere konbentzitu.
59. Gorputzaren zein atal dago enborrean?
- a) Saihetsa.
 - b) Orpoa.
 - c) Ukondoa.
 - d) Kokotsa.
60. Zein dago **txarto** idatzita?
- a) Oihartzuna.
 - b) Traketza.
 - c) Itsua.
 - d) Hautsa.
61. Zein da zuzena?
- a) Horrek ez du indarrarik.
 - b) Guri ez digu ardurik.
 - c) Anaia bat ere banuen.
 - d) Zuk ez duzu amonik.
62. Ekarri botikina, Kattalin, umea dago eta.
- a) odola irteten
 - b) odoltzen
 - c) odolean
 - d) odoletan
63. *Euria da ala?* Aukeratu **txarto** dagoena.
- a) Baietz; asko.
 - b) Bai; eta zelan!
 - c) Bai; bota ahala!
 - d) Bai; goian behean!

65. Ez da erraza zurekin
- a) asmatu.
 - b) asmatzeaz.
 - c) asmatzeko.
 - d) asmatzen.
66. Pasa den larunbatean ezusteko handia izan genuen
- a) mendia goran gindoazen.
 - b) mendian gora gindoazela.
 - c) mendian gora gindoazen.
 - d) mendia goran gindoazela.
67. Denok elkarrekin, ez galduko.
- a) ibiliko baginen / genituzke
 - b) ibiliko bagina / ginatekeen
 - c) ibili bagina / ginatekeen
 - d) ibili bagina / genuke
68. Hazia ondoren, uzta dator.
- a) landatu / lotzea
 - b) erein / batzea
 - c) lurperatu / biltzea
 - d) eragin / jasotzea
69. *Gure ikasleek notak atera dituzte.* Aukeratu **txarto** dagoena.
- a) behingo
 - b) primerako
 - c) sekulako
 - d) egundoko
70. Zein **ez da** sexu berekoa?
- a) ahizpa
 - b) suhia
 - c) izeba
 - d) arreba

ATARIKO PROBA HE2.

1. eredua

01. Kablearekin estropezu egin eta jausi zen.
- a) muturtuta
 - b) mutur joka
 - c) muturrarekin
 - d) muturrez aurrera
02. Zeintzuk **ez dira** baliokideak?
- a) samina / nahigabea
 - b) atsekabea / deskantsua
 - c) igorri / bidali
 - d) itzali / amatatu
03. Zein dago **txarto**?
- a) Ordu biak jo dute.
 - b) Zuregana joko dut laster.
 - c) Errealaren kontra jolastu ziren.
 - d) Kontu handiz jokatu behar dugu.
04. *Babarrunak beratzen utzi ditut.* Non daude babarrunak?
- a) Sutan.
 - b) Zorroan.
 - c) Mahai gainean.
 - d) Uretan.
05. *Esne-mamitan bizi da.* Aukeratu baliokidea.
- a) Esne txarrean bizi da.
 - b) Eroso-eroso bizi da.
 - c) Esnezalea da.
 - d) Esnekiak ditu bizibide.
06. *Menpetasun hori kezagarria iruditzen zait.* Zein da baliokide zuzena?
- a) Menpetasun horrek kezkatzen nau.
 - b) Menpetasun hori kezkatzen zait.
 - c) Menpetasun hori da kezkatzen didana.
 - d) Menpetasun horrek kezkatzen dit.
07. *Ari al gara?* Aukeratu erantzun zuzena.
- a) Bai, ariketan.
 - b) Beharko!
 - c) Aritzea ere!
 - d) Ari, ari!

08. Deitu zuk, hantxe
- a) banizu / izango ninduzun.
 - b) bazenit / izango ninduzun.
 - c) bazenit / izan nintzen.
 - d) baninduzu / izango zintudan.
09. Multzoetako batean esanahi **desberdineko** hitz bat dago. Zeinetan?
- a) otzana / apala / zarpaila
 - b) naroa / joria / ugaria
 - c) gomutatu / oroitu / gogoratu
 - d) laidoa / iseka / iraina
10. Zeinek adierazten du harridura?
- a) Jaiki omen da.
 - b) Jaiki ote da?
 - c) Ez dela jaiki?
 - d) Jaiki ei da.
11. *Aita, kopiatzen harrapatu nau irakasleak!* Aukeratu erantzuna.
- a) Ederra egin duzu!
 - b) Eskerrak!
 - c) Zer arraio!
 - d) Utikan!
12. Zein dago **txarto**?
- a) Patatak zuritu egiten dira.
 - b) Gazta ondu egiten da.
 - c) Hegaztiak deslumatu egiten dira.
 - d) Okela erre egiten da.
13. Zein dago **txarto**? *Ez nuke nahi zuek*
- a) gaizki ulertzerik.
 - b) gaizki ulertzea.
 - c) gaizki uler dezazuen.
 - d) gaizki uler ezazuenik.
14. Zuen zorionak pozten nau ni, ez naiz gizon.....
- a) bekaiztia.
 - b) bakartia.
 - c) beldurtia.
 - d) tematia.

15. *Beste kopatxoren bat nahi?* Erantzun **ezetz**.
- a) Tanta bat besterik ez.
 - b) Ezetz eman!
 - c) Nahi izango ez dut bada!
 - d) Hori besterik ez nuen behar!
16. Era guztietako janariak saltzen ditu;
- a) barazkiak azken batean.
 - b) barazkiak alegia.
 - c) batik bat barazkiak.
 - d) barazkiak hain zuzen.
17. Bi kargu ditut eta
- a) biei eutsiko diet.
 - b) biri eutsiko diot.
 - c) biak eutsiko ditut.
 - d) bi eutsiko dut.
18. Zein **ez dira** sinonimoak?
- a) haizea / zirimola
 - b) lanbroa / langarra
 - c) lainoa / gandua
 - d) kazkabarra / kaskezurra
19. Gogor gaitzetsi gaituzte eta gaude irakasleok.
- a) irrikan
 - b) gogoz
 - c) suminduta
 - d) jo eta ke
20. *Euskal zinema hutsaren hurrengoa izan da azken urteetan.*
Zer adierazi nahi du?
- a) Azken urteetan lehen baino hobeto dabilela.
 - b) Azken urteetan gaizki dabilela, eta datozenetan okerrago.
 - c) Lehen ez zegoela ezer: orain, aldiz, zerbait bai.
 - d) Ezer gutxi egin dela azken urteetan.
21. Informatika jakitea aukerakoa da; beraz,
- a) ez daukat ikasterik.
 - b) ez daukat zergatik ikasi.
 - c) ez daukat zergatik ikasi beharrik.
 - d) ez daukat zergatik ikasi behar.

22. *Herri kiroletan, Goenatxok iazko marka ondu nahi du. Zer adierazi nahi du?*
- a) Iaz bezain ongi aritu nahi du.
 - b) Hobeto aritu nahi du aurten.
 - c) Iazko marka ona izan zen.
 - d) Iazko markak on egingo dio.
23. **Zein ez da egokia** poza adierazteko?
- a) Zoratzen nago.
 - b) Pozarren nago.
 - c) Pozaren pozez nago.
 - d) Pozgarri nago.
24. Aukeratu hasiera zuzena: ... *zailtasunak izango dituzte.*
- a) Egoki zaintzen ezik,
 - b) Egoki zainduko ez badira,
 - c) Egoki zaindu ezean,
 - d) Egoki zaindu ez ezik,
25. *Elkarlanerako gogo berretsi dute Argentinak eta Jaurlearitzak.*
Zer adierazi nahi du?
- a) Eutsi egingo diote elkarlanerako asmoari.
 - b) Gogotik hasiko dira elkarrekin lan egiten.
 - c) Etsita daude elkarrekin aritzeaz.
 - d) Bertan behera utzi dute elkarlana.
26. Zeinek adierazten du agindua edo promesa?
- a) Hitz hitz.
 - b) Hitz eta pitz.
 - c) Hitz eragin.
 - d) Hitz hitzari.
27. *Josunek erdiz erdi asmatu du.* Aukeratu baliokidea.
- a) Erdizka asmatu du.
 - b) Erdia inguru asmatu du.
 - c) Hor nonbait asmatu du.
 - d) Bete-bete asmatu du.
28. Oso goiz abiatu dira eta
- a) oraindik orain iritsi behar dute.
 - b) orain arte ez dira iristen.
 - c) honezkero iritsiko ziren.
 - d) dagoeneko ez dira iritsi.

29. Zein da gramatikalki zuzena?
- a) Berehala antzeman digute.
 - b) Biharko geratzen gara eta esango dizut.
 - c) Eskoletan zuka hitz egitera behartuko digute.
 - d) Badakizkit nire kezka azaltzen.
30. Erraz izutzen denari esaten zaio.
- a) izukaitza
 - b) izugarria
 - c) izutia
 - d) betizua
31. Aukeratu segida zuzena. *Nik joan behar dut beti?*
- a) Doazela eurak!
 - b) Eurak joatea!
 - c) Eurak joateko; zer arraio!
 - d) Eurak joan beharko!
32. Nolatan dakizu hainbeste?
- a) Asko irakurtzen, neska!
 - b) Asko irakurriagatik, neska!
 - c) Asko irakurtzearren, neska!
 - d) Asko irakurrita, neska!
33. *Alabak ikasturtea gainditzea nahi duzu. Zein da adierazpide egokia?*
- a) Gaindituko omen du!
 - b) Gaindituko ahal du!
 - c) Gainditzea dauka!
 - d) Gainditzen ahal du!
34. Zein da zuzena?
- a) Ezagun zarete gazteak zaretela.
 - b) Ezagun da gazteak zaretela.
 - c) Ezagun dugu gazteak zaretela.
 - d) Ezagun dizue gazteak zaretela.
35. Zeinek du esanahi **desberdina**?
- a) Ez egin hori inondik inora.
 - b) Ez ezazu egin hori inolaz ere.
 - c) Ez dezazula horrelakorik egin.
 - d) Ezin duzu egin hori edonola.

36. *Hamaika aldiz suspenditu ondoren, azkenean gainditu dute!*
Aukeratu segida egokia.
- a) Gozoak jarri dira!
 - b) Gozoagatik badaude!
 - c) Horiek hartu dute gozatua!
 - d) Zeinek gozatu horiek?
37. Zein da segida **okerra**? *Ez dizut eskatzen berehala*
- a) alde egiteko.
 - b) alde egin zaitezten.
 - c) alde egitea.
 - d) alde egin dezazun.
38. *Zer nahi dute? Eskatu besterik ez dute. Zein da baliokidea?*
- a) Hori da eskatu beharra!
 - b) Eskatu eta kito!
 - c) Ez daukate beste ezer eskatzerik.
 - d) Ez dute hori besterik eskatzen.
39. *Zerbait egitekotan dira. Aukeratu baliokidea.*
- a) Zerbait egin omen dute.
 - b) Zerbait egin dutelakoan daude.
 - c) Zerbait egiteko asmoa badute.
 - d) Egitekotan, zerbait egingo dute.
40. Zein da esaldi horren hasiera? *harrezkero han ez dago arrainik.*
- a) Prestige itsasontzia urperatu eta gero,
 - b) Iazko udan Zadorra ibaira gas toxikoren bat isuri eta
 - c) Arraina erosten dudan arrandegia itxi egingo dute, eta
 - d) Gero eta ur gutxiago dago gure ibaietan, eta
41. Irakasleak eta nireak egin du.
- a) begiz jo nau
 - b) oso begikoa nau
 - c) begitan hartu nau
 - d) begirune handia dit
42. *Zer moduz zure aitona?* Aukeratu erantzun zuzena.
- a) Tira, dabil eta ez da gutxi.
 - b) Bai ibiltzen da, baina ozta-ozta.
 - c) Noski ibiltzen da, baina nola?
 - d) Ibili badabil, baina lagunduta.

43. *Nire aldean asko daki horrek. Zein da baliokidea?*
- Nik badakit horrek beste.
 - Nik horrek baino gehiago dakit.
 - Nik baino gehiago daki horrek.
 - Biok dakigu asko, baina nik gehiago.
44. Egindako bihurrikeria aurpegiratzeko, zein da esapide egokia?
- Bihurria halakoa!
 - Bihurri-bihurria!
 - Bihurria haizela, gero!
 - Zara bihurriagoa!
45. Zahartzen garenean, ez dugu izango...
- nork jaso.
 - nork jasotzerik.
 - nork jasotzeko.
 - nork jasotzea.
46. Zein da egokia narrazio bati hasiera emateko?
- Behin bat, ...
 - Behinola, ...
 - Behin ere, ...
 - Behingoan, ...
47. *Hegazkin zibilak botatzea zilegi izango du Armadak. Zein da baliokidea?*
- Hegazkin zibilak bota litzake.
 - Hegazkin zibilak botatzerik ez du izango.
 - Hegazkin zibilak botatzeko eragozpenak izango ditu.
 - Hegazkin zibilak botatzeko agindua izango du.
48. Honentzat txikito bat eta niretzat...
- baso bete ura.
 - ur baso bat.
 - baso bat ura.
 - baso bete ur.
49. Zein **ez da** euskal esapidea?
- Gerra ostean gorriak ikusi genituen.
 - Eztabaida gorri bizian jarri zen.
 - Lantegia itxi dutenetik, kale gorrian dago.
 - Dagoen hotzaz zer egiten du horrek larru gorritan?

50. Egun hartan euria sartu zitzaigun etxera.
- bota ahala
 - eginagatik
 - botatzearren
 - egin eta egin
51. Aukeratu segida egokia. *Hemen gaituzu*
- zuk esandakoa zain.
 - zure esandakoaren zain.
 - zure esanaren zain.
 - zu esanaren zain.
52. pentsatzen duena mintza dadila; pentsatzen duena, berriz, isil dadila.
- Horrela / bestela
 - Hori / beste moduz
 - Horrelakoa / bestelakoa
 - Honela / honela
53. *Ehun bat kilo pisatuko zuen harriak. Zein da horren baliokide zuzena?*
- Ehun eta bat kilokoa zen harria.
 - Ehun inguru kilotakoa izango zen harria.
 - Ehun kilo pasatxo zituen harriak.
 - Ehun kilo ingurukoa izango zen harria.
54. *Badaukazue non eseri, baina ez daukazue zertan. Zer adierazi nahi die?*
- Ez daukatela esertzerik.
 - Eserleku gehiago behar dela hor.
 - Ez daukatela eseri beharrik.
 - Ahal duena eser dadila.
55. Gramatika aldetik zein da zuzena?
- Udaberrian edozein zelaietan ikus litezke abereak.
 - Urte batzuk barru lurran ez da petroliorik izango.
 - Sugeak heldu dit hankean.
 - Hiriburutik hamar kilometrora bizi naiz.
56. Zein dago **gaizki** idatzita?
- Bat-batean atera zen haizea.
 - Behin-behineko lana daukat.
 - Nik behinik-behin egin dut.
 - Jaialdian gazteria bildu zen batik bat.

57. Zein dira sinonimo?
- ahoberoa / isila
 - mihiluzea / kontakatilua
 - ahozabala / zuhurra
 - hitzontzia / hiztegia
58. *Asko hitz egin behar duzu, euskara ikasiko baduzu.* Aukeratu baliokidea.
- Euskara ikasteko asko hitz egin beharra dago.
 - Asko hitz egiten baduzu ere, kostatuko zaizu euskara ikastea.
 - Hitz egin eta hitz egin, hala ere euskara ikasi ezin.
 - Euskara ikasten baduzu, asko hitz egin behar duzu.
59. Hainbeste eztabaidatu ondoren, iritsi da egiteko ordua.
- ziri-ziri
 - zirt eta zart
 - zirt edo zart
 - zirti-zarta
60. Zein dago **txarto**?
- Hori da astakeria esan duzuna!
 - Zelako astakeria esan duzu!
 - Zuk bai esan duzula astakeria galanta!
 - Zelako astakeria zurea!
61. Hor dabil hori ..., nora joan ez dakiela.
- hemendik hara
 - handik hona
 - hara eta hona
 - hemen eta han
62. Zein esalditan dago *astindu* hitza **txarto** erabilia?
- Hain sukar handia zeukan, astindu ederra hartu zuen gaixoak.
 - Tortilla egiteko arrautzak astindu egiten dira.
 - Boxeolariak astindu ederra hartu zuen «ring» gainean.
 - Gaur gauean haizeak majo astindu ditu bazterrak.
63. *Lagun hori aukera-aukerakoa duzu.* Zer adierazi nahi du?
- Lagun hori zeuk aukeratutakoa da.
 - Aukeran lagun hori zuretzat da.
 - Lagun hori aparta, zuretzako modukoa, da.
 - Aukeran zure gustukoa da lagun hori.

64. Badaezpada ere, beti daramat dirua
- a) gainean.
 - b) aldean.
 - c) barruan.
 - d) alboan.
65. Informazioa baduela adierazteko zein dago **txarto**?
- a) Jakinaren gainean dago.
 - b) Horren jakitun dago.
 - c) Horren gainean dago.
 - d) Horren berri badaki.
66. *Hori irakasleak berak esan dit. Zein da baliokidea?*
- a) Hori irakasle berberak esan dit.
 - b) Hori irakasleak esan dit, ez bestek.
 - c) Hori irakasleren batek esan dit.
 - d) Hori irakasle berak esan dit.
67. Seme-alabekin nola jokatu? Zuk ongi hezi, eta haiek ongi zainduko ...
- a) iezaiezu / dizute
 - b) itzazu / dizute
 - c) ditzazun / zaituzte
 - d) itzazu / zaituzte
68. Arratsalde osoa autobus geltokian, autobusa noiz
- a) eman dut / etortzen den.
 - b) eman nuen / etorriko den.
 - c) eman nuen / etorriko.
 - d) eman dut / etorri.
69. Zein da **desberdina**?
- a) Zirria sartu.
 - b) Iruzkina egin.
 - c) Iruzur egin.
 - d) Azpikeriaz jokatu.
70. Aukeratu hasiera egokia: *zazpi azal kopetan.*
- a) Baldarrak
 - b) Beldurtiak
 - c) Ausartak
 - d) Lotsagabea

ATARIKO PROBA
HE2.

2. eredua

01. *Euria egiteko irrikan zaude. Nola adierazi?*
- a) Euririk egingo ote du?
 - b) Euria egingo omen du.
 - c) Euririk egingo al du?
 - d) Euria egingo ahal du!
02. *Ondo informatuta zaude, inondik ere. Zer adierazi nahi du?*
- a) Informazio ona duzu, zalantzarik gabe.
 - b) Ez duzu batere informaziorik jaso.
 - c) Ondo informatuta omen zaude.
 - d) Inondik ere ez duzu informazio onik jaso.
03. *Zer? Niri kargu hartzera datoz, ala? Zer adierazi nahi du?*
- a) Kargu bat emango didate.
 - b) Kargutik kenduko naute.
 - c) Kontuak emango dizkidate.
 - d) Kontuak hartuko dizkidate.
04. Objektu bat **ezin da** izan
- a) zikoitza.
 - b) zorrotza.
 - c) kamutsa.
 - d) zapala.
05. Nola deitzen zaio gelditu ere egiten ez denari?
- a) Erretxin hori!
 - b) Tuntun hori!
 - c) Ipurterre hori!
 - d) Lukainka hori!
06. Zein **ez dira** sinonimo?
- a) belardi / larre
 - b) zurrumurru / esamesa
 - c) tontor / maskor
 - d) herdoildu / ugertu
07. *Ez duzue nahi ni Zein dago txarto?*
- a) horra joaterik.
 - b) horra joatea.
 - c) horra joan nadin.
 - d) horra joan nendin.

- 08.** *Entzundakoak entzunda, ez zen isilik geratu, ez.* Aukeratu baliokidea.
- Galantak entzun eta bertatik bertara erantzun zion.
 - Bukatu ondoren, lehen galdera egin zion.
 - Galdetzeko, entzun nahi izan zion aurretik.
 - Erantzuteko, nola bukatuko zain egon zen.
- 09.** Han pasatu ziren txakurrak basurdeei jarraika.
- apatxez apatx
 - orpoz orpo
 - hortzez hortz
 - hankaz hanka
- 10.** Aspaldi oheratu da eta
- harrezkero lokartu da.
 - dagoeneko ez da lokartu.
 - honezkero lokartuko zen.
 - oraindino lokartu da.
- 11.** *Gizarteak ez du onartuko bizikidetza eta eztabaida politikoa zapuzterik.* Zein da baliokidea?
- Gai horiek batera ezinak dira.
 - Gai horiek ezin dira alde batera utzi.
 - Puztuegiak daude kontu horiek.
 - Ez du eztabaida gehiagorik onartuko.
- 12.** *Hori nola ikasi duzu buruz?* Aukeratu erantzun zuzena.
- Askotan errepikatuta.
 - Askotan errepikatuagatik.
 - Askotan errepikatzen.
 - Askotan errepikatuz gero.
- 13.** *Ez zara konturatu herrena dela?* Aukeratu segida egokia.
- Bada, errepara ezazu ibilera.
 - Bada, errepara iezaiozu ibilerari.
 - Bada, errepara zaitetz ibileraz.
 - Bada, errepara dezazun ibilera.
- 14.** Zein da gramatikalki zuzena?
- Horiengan ez ditugu jarriko itxaropen handirik.
 - Zuk irakatsi dizkidazu azalpenak ematen.
 - Zin egin nau bera ez dela izan.
 - Alabak alde egin zien etxetik.

15. *Niri horrelakorik ez esan gero! Zer adierazi nahi du?*
- a) Ez zait inporta zer esaten didaten.
 - b) Gerora ez dut horrelakorik entzun nahi izango.
 - c) Horrelakoak nork eta non esan, niri bost axola.
 - d) Nire aurrean ez dut berriz horrelakorik entzun nahi.
16. *Etxe ederra erosi duzu; bai horixe! Aukeratu baliokidea.*
- a) Zelako etxea erosi duzu!
 - b) Hori etxea erosi duzula!
 - c) Bai etxe ederra erosi duzun!
 - d) Hori da etxea, hori, erosi duzuna!
17. *Aurki etorriko da aita. Zein ez da baliokidea?*
- a) Garaiz.
 - b) Berehala.
 - c) Laster.
 - d) Segituan.
18. *Zein da gramatikalki zuzena?*
- a) Irakasleak debekatu nau hori egitea.
 - b) Gezurrak esatera bultzatu didate.
 - c) Nork lagunduko dit hori egiten?
 - d) Horrek badaki mendian ibiltzen zer den.
19. *Ez dutela zurekin jolastu nahi? Aukeratu segida zuzena.*
- a) Datozela niri esatera!
 - b) Etortzeko niri esatera!
 - c) Etor daitezen niri esatera!
 - d) Etortzea niri esatera!
20. *Ondo ahaleginduta lortu du gailentzea. Zein da baliokidea?*
- a) Daukan guztia eman gabe ere, aurrera atera da.
 - b) Gailentzeko, ez ditu ahalegin makalak egin.
 - c) Gailentzeko, ez du hainbeste ahalegin behar izan.
 - d) Eskerrak gehiago ahalegin ez den, bestela, aise gailenduko zen.
21. *Luze geratzen diren prakei*
- a) beheko atala josten zaie.
 - b) behekoa hartzen zaie.
 - c) barrenak hartzen zaizkie.
 - d) azpikoa mozten zaie.

22. Zein da «ausarta» hitzaren antonimoa?
- zalua
 - koldarra
 - tematia
 - buruarina
23. *Gaur gosaldut. Zein ez da egokia?*
- katilukada bat esne
 - katilu bete esne
 - katilukada esnea
 - esne katilua
24. Oporretan ez daukat
- nora joan.
 - nora joaterik.
 - nora joateko.
 - nora joatekorik.
25. *Bi horiek jardun batean datoz. Zer adierazi nahi du?*
- Zerbaitetara datozela.
 - Berriketan datozela.
 - Presaka datozela.
 - Noraezean datozela.
26. *Deitu zidatenean, Zein ez da segida egokia?*
- urduri baino urduriago jarri nintzen.
 - zein urduri jarri nintzen!
 - urduriago jarri nintzen, urduriago!
 - urduriz jarri nintzen.
27. *Etxean egon ginen... Zein ez da segida egokia?*
- berandura egin arte.
 - berandura arte.
 - berandu arte.
 - berandutu arte.
28. *Paradisu fiskalek salbu, Hego Euskal Herriak du zerga presiorik txikiena. Zer adierazi nahi du?*
- Paradisu fiskalen hurrengo gaude zerga presioaren kontuan.
 - Hemen, paradisu fiskaletan bezala, ez dago zerga presiorik.
 - Paradisu fiskalen aurretik gaude zerga presioa dela-eta.
 - Zergetan, hemen ere badaude paradisu fiskaletako salbuespenak.

29. Kanpoko txirrinetik; bestela, ondo
- a) deitu zuten / entzun genezake.
 - b) deitu zuten / entzun genuen.
 - c) deituko zuten / entzungo genuen.
 - d) deituko zuten / entzun genuen.
30. Nire amorea, nirekin, iruditzen zait munduan zehar zaldi gainean.
- a) zauzkadanean / noala
 - b) naukazunean / zoazela
 - c) zauzkadanean / doala
 - d) naukazunean / goazela
31. Ministroak ukatu egin du erreskateagatik sosik
- a) ordaintzea.
 - b) ordaintzeko.
 - c) ordaindu duen ala ez.
 - d) ordaindu izana.
32. Zein da zuzena?
- a) Artzain txakur lehiaketa jolastu zen igandean.
 - b) Sokasaltoan jokatzen ari ziren haurrak.
 - c) Zenbana jokatu zuten?
 - d) Bizitza jolastu du lasterketan.
33. *Taldeak ez zuen asmatu kirioei eusten. Zer adierazi nahi du?*
- a) Lasaitasuna.
 - b) Urduritasuna.
 - c) Ez jakintasuna.
 - d) Apaltasuna
34. Ongi trata ... txakurrak eta ez ... huts egingo.
- a) iezaiezu / dizute
 - b) itzazu / dizute
 - c) ditzazun / zaituzte
 - d) itzazu / zaituzte
35. *Zoratu egin da hori. Zein ez da baliokidea?*
- a) Burutik eginda dago.
 - b) Burutik jota dago.
 - c) Burutik joanda dago.
 - d) Burutik sano dago.

- 36.** Zein dago **txarto**?
- a) Urteak aurrera egin ahala, ilea urdindu egin zait.
 - b) Bizikletatik erori eta besoa urratu dut.
 - c) Azazkala gaiztotu eta kitatu egin dut.
 - d) Langabezia hazi egin da aurten.
- 37.** Piragua-zeharkaldia egingo dute, itsasadarra gehiago aprobetxatu behar dela
- a) pentsatzeko.
 - b) gaitzesteko.
 - c) egiaztatzeko.
 - d) aldarrikatzeko.
- 38.** Baliteke jaialdia Gasteizen ...
- a) ez egiteko.
 - b) ez egiterik.
 - c) ez egin.
 - d) ez egitea.
- 39.** Zein dago **txarto**?
- a) Nola lor genezake lanerako itzulera errazagoa egitea?
 - b) Nola itzul gintezke errazago lanera?
 - c) Nola lor gaitezke lanera errazago itzultzea?
 - d) Nola itzuli errazago lanera?
- 40.** Zein da **okerra**?
- a) Heldu gogotik lanari!
 - b) Hasi gogotik lanari!
 - c) Ekin gogotik lanari!
 - d) Lotu gogotik lanari!
- 41.** *Birusak zelulei zelan erasaten dien argitu dute zientzialariek.*
Zer esan nahi du?
- a) Informazioa zelan pasatzen dien.
 - b) Nola egiten dien kalte.
 - c) Nola ahultzen dituen.
 - d) Zelan sufriarazten dien.
- 42.** Zein dira antonimoak?
- a) otzana / harroa
 - b) joria / ugaria
 - c) gogoratu / oroitu
 - d) iseka / iraina

43. Elkarri begira daudela esateko, zein ez da esamolde egokia?
- a) Aurrez aurre.
 - b) Buruz buru.
 - c) Begiz begi.
 - d) Begi bistan.
44. Zain egon ginen zuek ...
- a) noiz etorri.
 - b) noiz etortzeko.
 - c) noiz etorriko.
 - d) etorriko zain.
45. *Niri aholku eske? Onarengana zatozte! Zer adierazi nahi du?*
- a) Harrokeria.
 - b) Apaltasuna.
 - c) Alferkeria.
 - d) Jakinduria.
46. *Elkarrizketa begirunez egin dute. Zein da baliokidea?*
- a) Lotsagabe aritu dira.
 - b) Errespetuz jardun dute.
 - c) Elkarri beldurrez begiratur.
 - d) Aurrez aurre hitz egin dute.
47. Erraustea eta birziklatzea ez dira kontrako tratamenduak; ...
- a) osagarriak baizik.
 - b) osasungarriak baizik.
 - c) osagaiak baizik.
 - d) osatzaileak baizik.
48. Zein da **desberdina**?
- a) Jomuga.
 - b) Helburua.
 - c) Xedea.
 - d) Helegitea.
49. Zein da **desberdina**?
- a) Zurikerian ibili.
 - b) Garbi ez jokatu.
 - c) Azpijokoan aritu.
 - d) Muzin egin.

50. *Bere horretan utzi zituen arazo guztiak. Zer esan nahi du?*
- a) Konponduta utzi zituela.
 - b) Zeuden-zeudenean utzi zituela.
 - c) Arazo bakoitza bere lekuan jarri zuela.
 - d) Bere gain hartu zituela.
51. *Poztu nau zu hain ondo... Zein dago txarto?*
- a) ikusteak.
 - b) ikusiak.
 - c) ikusi izanak.
 - d) ikustean.
52. *Zein dira antonimo?*
- a) ebatzi / erabaki
 - b) ebatsi / ostu
 - c) ebatsi / lapurtu
 - d) ebatzi / dudatu
53. *Ahal dela, jendea ... autobusetan.*
- a) doala
 - b) bihoala
 - c) joan
 - d) joateko
54. *Irabazi zuten partida; baina errematean antzu aritu ziren, eta ...*
- a) komeriak pasa zituzten.
 - b) gol zaparrada egin zuten.
 - c) lasai aritu ziren.
 - d) izorratu egin behar.
55. *Zeinek ez du denbora adierazten?*
- a) Behin betiko.
 - b) Behin-behineko.
 - c) Behinik behin.
 - d) Behin batean.
56. *Ez diot begiratzen*
- a) nork zer esan duen.
 - b) nork zer esan duenekoari.
 - c) nork zer esan duelari.
 - d) nork zer esan duelakoari.

57. Handik alde egin ezean, damutuko ... esan zien.
- a) zituztela
 - b) zitzaiela
 - c) zietela
 - d) zitzaizkiela
58. Hemen gertatu zen hori, baina edozein lekutan...
- a) gerta zatekeen.
 - b) gerta zitekeen.
 - c) gertatuko zen.
 - d) gertatu bide zen.
59. Atxagaren «Soinujolearen semea» ... dabil.
- a) hitzetik hortzera
 - b) hitzez hitz
 - c) hitza hitz
 - d) hitz eta pitz
60. Aurten ardura handiegiak hartu ditut, eta
- a) arduraduna naiz.
 - b) arduratsua naiz.
 - c) arduratuta nabil.
 - d) ardura nabil.
61. Aukeratu esamolde egokia.
- a) Epai biko ezpata.
 - b) Alde biko ezpata.
 - c) Aho biko ezpata.
 - d) Ezpain biko ezpata.
62. Irabaz ... , baina galdu egin du lehia.
- a) dezakeen
 - b) lezakeen
 - c) zezakeen
 - d) daitekeen
63. *Egon hadi lo eta jango duk mehe. Zer adierazten du?*
- a) Atsedena premia.
 - b) Arretaren premia.
 - c) Dieta orekatu beharra.
 - d) Loaren garrantzia.

64. Zein bikotekide dira antonimo?
- a) grina / gogo bizia
 - b) larriagotu / areagotu
 - c) kinka / estuasuna
 - d) zitala / zintzoa
65. *Bizi denak bizia zor.* Zein da baliokidea?
- a) Denok hil behar nahitaez.
 - b) Eutanasia ez da bidezkoa.
 - c) Beti bizitzaren alde!
 - d) Normala da zorrak izatea.
66. *Ez ditu, ba, sei ume eraman!* Zer adierazi nahi du?
- a) Ez dituela sei ume eraman.
 - b) Ez dituela sei ume baino eraman.
 - c) Sei ume eraman dituela.
 - d) Gutxienez sei ume eraman dituela.
67. *Kokoteraino nago zurekin!* Aukeratu jarraipen egokia.
- a) Hain zara gogaikarria!
 - b) Gogoangarria zara, benetan!
 - c) Erabat gogutzen nauzu!
 - d) Etengabe goretsiko zaitut!
68. *Zahar hitz, zuhur hitz.* Zer esan nahi du?
- a) Zaharrek gutxi hitz egiten dutela.
 - b) Zaharren hitzak zikoitzen hitzak direla.
 - c) Zaharren hitzak irakaspentak direla.
 - d) Hobe zaharrei kasu egitea, okertzea baino.
69. Zein dago **txarto**?
- a) Mikel ezik, besteak ere etorri dira.
 - b) Inori esatekotan, zuri esango nizuke.
 - c) Kontuz ibili ezean, min hartuko duzu.
 - d) Loteria tokatuz gero, oportetara joango nintzateke.
70. Zein da zuzena?
- a) Eguraldia hobera egin du.
 - b) Euria ari da.
 - c) Gaur haizea dago.
 - d) Atertu egin du.

ATARIKO PROBA HLEA

1. eredua

01. *Mendizale horiek balentriak egin dituzte. Aukeratu txarto dagoena.*
- handi-handiko
 - berebiziko
 - sekulako
 - egundoko
02. Zein da egokiena?
- Kaixo, jolasten zara nirekin?
 - Laguntzen didazu, mesedez?
 - Joango zara enkargu bat egitera?
 - Jaikiko naizenean, banoa zuregana.
03. Utziko al didazu pelikula bat ?
- ikustea
 - ikusten
 - ikusteari
 - ikusteko
04. Zein ez da esamoldea?
- Esatera eman
 - Aditzera eman
 - Jakitera eman
 - Ezagutzera eman
05. *Aukera-aukeran jarri zioten. Baliokidea bilatu.*
- Oso erraz jarri zioten.
 - Oso zail jarri zioten.
 - Oso garesti jarri zioten.
 - Tranpa jarri zioten. A
06. *Rikardori ebakuntza egin diote nonbait. Zer esan nahi du?*
- Ebakuntza egin diotela, baina ez dakigula non.
 - Operatu dutela, baina ez dakigula nondik.
 - Operatu bai, baina ez dela sendatu.
 - Antza denez operatu egin dutela.
07. Zein dago ondo?
- Zure jaka ez da nirea bezala.
 - Esan dudanaren moduan da.
 - Etxea esan dizudan bezala da.
 - Txina ez da orain dela 10 urte bezalakoa.

08. Egarrri gara eta emaguzu...
- a) garagardo-kaxa bat.
 - b) kaxa garagardo bat.
 - c) kaxa garagardoz bat.
 - d) kaxa bat garagardo.
09. Zein **ez da** sail berekoa?
- a) Gereziak
 - b) Masustak
 - c) Dilistak
 - d) Marrubiak
10. Zein da **desberdina**?
- a) Bere horretan utzi.
 - b) Dagoen-dagoenean utzi.
 - c) Dagoen moduan utzi.
 - d) Ahal den ondoen utzi.
11. Lehengoan ikusi zintudan, hondartzatik
- a) etortzen zinela.
 - b) zentozela.
 - c) zentorrela.
 - d) etortzen ari zinela.
12. Hemen ezhorrelako gizonik ageri.
- a) da
 - b) dira
 - c) dago
 - d) du
13. Zein **ez da** sail berekoa?
- a) Senide
 - b) Ahaide
 - c) Familiarteko
 - d) Arerio
14. Zein **ez da** sinonimoa?
- a) Gaitza
 - b) Gaixotasuna
 - c) Eritasuna
 - d) Gaiztakeria

15. Anak ez du gure gonbita nahi. Aitzitik, gu beregana nahi du.
- a) onartzea / joan
 - b) onartzea / joateko
 - c) onartu / joatea
 - d) onartu/ joateko
16. Zein **ez da** sexu berekoa?
- a) Suhia
 - b) Erraina
 - c) Osaba
 - d) Neba
17. Atzo lana txukun, bihar ez errepikatu beharko.
- a) egingo bazenuen / zenuke
 - b) egingo bazenu / zenukeen
 - c) egin bazenu / zenuke
 - d) egin bazenu / zenuen
18. Hainbat.... tokatu zaio tratu txarrak jasatea.
- a) emakumeri
 - b) emakumeari
 - c) emakumeei
 - d) emakumeeri
19. Zer da «zintz egitea»?
- a) Porru eginda egotea.
 - b) Mukiak kentzea.
 - c) Harrituta egotea.
 - d) Ustekabekoa hartzea.
20. Jakin nuenean, ez asko harritu.
- a) zitzaidan
 - b) zidan
 - c) nauen
 - d) nintzen
21. *Mokoka dabilta egunero*. Zein da baliokidea?
- a) Musuka dabilta.
 - b) Elkarren parean dabilta.
 - c) Gutxi jaten dute.
 - d) Liskarrean dabilta.

22. *Bakea aldarrikatu dute amerikarrek. Zer esan nahi du?*
- a) Bakea bideratu dutela.
 - b) Bakea nahi dutela.
 - c) Bakea hondatu dutela.
 - d) Bakea negoziatu dutela.
23. *Baina, zuk hartzen nauzu, ala?*
- a) tontoa
 - b) tontoz
 - c) tonto
 - d) tontotzat
24. *Zein dago **gaizki** idatzita?*
- a) Berdintzua
 - b) Garrantzia
 - c) Kontzientzia
 - d) Euritsua
25. *Zorionak, Lore! Urte askoan! Zer gertatu zaio Loreri?*
- a) Umea izan du.
 - b) Sari bat irabazi du.
 - c) Urteurrena du.
 - d) Loteria tokatu zaio.
26. *Aterpetxea lekutan dago! Zer esan nahi du?*
- a) Ez dakigula non dagoen.
 - b) Gertu dagoela.
 - c) Urrun dagoela.
 - d) Leku batean dagoela.
27. *Txintik ere ez zuen atera. Baliokidea bilatu.*
- a) Isil-isilik egon zen.
 - b) Sosik ez zuen atera.
 - c) Eragozpenik ez zuen jarri.
 - d) Txintxin egin gabe gelditu zen.
28. *Zein ez **da** erabiltzen kolpea adierazteko?*
- a) Kaskarrekoa.
 - b) Ipurdikoa.
 - c) Lepokoa.
 - d) Bizkarrekoa.

29. *Hori da gibel-handia! Zer adierazi nahi du?*
- a) Sasoia.
 - b) Larritasuna.
 - c) Lasaitasuna.
 - d) Osasuna.
30. *Motorra erosi nahi duzu? Pentsatzea ere! Zer esan nahi du?*
- a) Ez duela aukerarik erosteko.
 - b) Aukera duela erosteko.
 - c) Ondo pentsatzen badu, erosiko diola.
 - d) Pentsatuko duela erosi ala ez.
31. *Isildu ere ez da egiten. Hori da ...!*
- e) zitala
 - f) petrala
 - g) gaixoa
 - h) berritsua
32. *Ahalik egin behar dituzu gaur goizekoak.*
- a) lasterrena
 - b) lasterragorik
 - c) lasterrago
 - d) laster
33. *Zein dira sinonimo?*
- a) iruditu / nabarmendu
 - b) lanbroa / zaparrada
 - c) igo / eho
 - d) hots egin / deitu
34. *Ezagutzen duzu Gari musikaria? Aukeratu erantzun **desegokia**.*
- a) Nola ez, bada!
 - b) Ezagutuko ez dut, bada!
 - c) Bai, jakina!
 - d) Ezagutzea ere!
35. *Ebakuntza ondo joango ustean sartu zen ebakuntza-gelara.*
- a) zela
 - b) zen
 - c) zenaren
 - d) zelaren

36. *Euskal film guztiak ... ditut. Zein dago txarto?*
- a) ikusiak
 - b) ikusita
 - c) ikusirik
 - d) ikusitak
37. *Iñakik lantegi batean joan den urtetik.*
- a) ari da
 - b) dago
 - c) dabil
 - d) dihardu
38. *Zein ez da arrantzaleen tresna?*
- a) Arrauna
 - b) Sarea
 - c) Uztarria
 - d) Amua
39. *Gero eta idazten du gure alabak.*
- a) hobe
 - b) ondoago
 - c) hobeto
 - d) hobeago
40. *Internet ... erabiltzen du.*
- a) % 33k
 - b) % 33ek
 - c) % 33
 - d) % 33rek
41. *Oraindik ez du atertu. Zer esan nahi du?*
- a) Euria ari duela.
 - b) Laster euria egingo duela.
 - c) Euria gelditu dela.
 - d) Euririk ez duela egin.
42. *Ez da erraza emaitzak aldeztu aurretik*
- a) jakin.
 - b) jakiteaz.
 - c) jakiteko.
 - d) jakitea.

43. *Gureak egin du!* Bilatu esamolde honen baliokidea.
- a) Gure umeak egindakoa da!
 - b) Gure taldekoek irabazi dute!
 - c) Ez dago erremediorik!
 - d) Gure ideia onartu dute!
44. *Beti sesioan dabilta.* Bilatu baliokidea.
- a) Beti lanean ari dira.
 - b) Beti liskarrean dabilta.
 - c) Beti okupatuta daude.
 - d) Beti daude bere lekuan.
45. *Medikuak lanera..... esan zidan, baina senarrak ez zidan utzi*
- a) joatea / joan.
 - b) joatea / joaten.
 - c) joateko / joaten.
 - d) joateko / joan.
46. eta gehiago pentsatu konbentzituago nago.
- a) Gero / gero eta
 - b) Zenbat / zenbat eta
 - c) Gero / hainbat eta
 - d) Zenbat / orduan eta
47. *Txakurrak kosk egin zion.* Zein **ez da** baliokidea?
- a) hozka egin zion
 - b) talka egin zion
 - c) ausiki egin zion
 - d) haginka egin zion
48. *Ezinbestean sartu zen elizara.* Zein da baliokidea?
- a) Gustura sartu zen.
 - b) Denbora-pasa sartu zen.
 - c) Halabeharrez sartu zen
 - d) Otoitz egitera sartu zen.
49. Inguruko edozein igo daiteke Gorbeiarda.
- a) herritik
 - b) herrietatik
 - c) herritikan
 - d) herritatik

50. *Eman bosteko hori! Zein da esamolde honen esanahia?*
- a) Dirua eskatzen ari zaio.
 - b) Elkarri eskua emateko esaten ari zaio.
 - c) Pikutara bidaltzen ari da.
 - d) Jokoa, karta bat eskatzen ari zaio.
51. *Mutil hori ikusgarria dago eta, , oso jatorra da.*
- a) gainera
 - b) hortaz
 - c) gainerakoan
 - d) beraz
52. *Sekula ez dut jan nire lagunek..... Zein dago txarto?*
- a) bezainbeste
 - b) bezain
 - c) adina
 - d) beste
53. *Banengoen bada ni! Zer esan nahi du?*
- a) Egon nintzela bere garaian.
 - b) Ipuina kontatzera noala.
 - c) Lekukoa izan nintzela.
 - d) Lehendik ere sumatzen nuela.
54. *Zein dago txarto?*
- a) Larunbatean da partida.
 - b) Ostiralean dugu afaria.
 - c) Maiatzako loreak maite ditut.
 - d) Otsailean hasi nintzen lanean.
55. *Aneren aldean gaztea da Lierni. Nolakoa da Lierni?*
- a) Aneren ondoan jarrita, gaztea ematen du.
 - b) Ane bezain gaztea da.
 - c) Ane baino gazteagoa da
 - d) Adin berekoak dira biak.
56. *Gorputzaren zein atal dago hanketan?*
- a) Orkatila
 - b) Sabela
 - c) Ukondoa
 - d) Sorbalda

57. Non dago ortografia **akatsa**?
- a) Energia.
 - b) Generalki.
 - c) Geografia.
 - d) Erlijioa
58. Zein da zuzena?
- a) Horrek ez du aitik.
 - b) Haiei ez die ardurik.
 - c) Ez dut batere presarik.
 - d) Hemen ez da enpresik.
59. Zein **ez da** zuhaitza?
- a) Zumarra
 - b) Artoa
 - c) Pagoa
 - d) Pikondoa
60. *Hanka egin zuen.* Baliokidea bilatu.
- a) Dantza egin zuen.
 - b) Alde egin zuen.
 - c) Hanka sartu zuen.
 - d) Herrenka zebilen.
61. Zein dago ondo?
- a) Aldiz bat edo bitan izan naiz Lisboan.
 - b) Nahiago dut etxean gelditu mendian lehertu baino.
 - c) Ariketak egin zenuen?
 - d) Beste egunean ikusi nuen Luis.
62. *Gizagaixo ederra dago eginda!* Aukeratu baliokidea.
- a) Koitadua da.
 - b) Gaixorik dago.
 - c) Dotorea da.
 - d) Zitala da.
63. Zein dago ondo?
- a) 2005eko uztailak 5ean izan zen.
 - b) Martxoak 14tik ez dut ikusi.
 - c) Abenduak 12ra arte ez da etorriko.
 - d) Otsailaren 13an da bere urtebetetzea.

64. Ongi hartuko duela, pozik esango
- i) baneki / nioke.
 - j) jakin banu / diot.
 - k) jakingo banu / niokeen.
 - l) banekien / niokeen.
65. Nagusiak esan porru eginda utzi
- a) didanak / dit.
 - b) didana / naiz.
 - c) didanaz / egin nau.
 - d) didanak / nau.
66. Imanol, baina bere emaztea ez dut..... ikusi.
- a) sarri / batean ere ez
 - b) sarritan / behin ere
 - c) sekula / beti
 - d) ezta / inoiz ez
67. Ondo pentsatu behar duzu....
- a) zer egitea.
 - b) zer egin.
 - c) zerbait egin.
 - d) zer edo zer egiten.
68. Zein **ez da** hegazia?
- a) Txantxangorria
 - b) Kaioa
 - c) Satorra
 - d) Ahatea
69. Alex, erantzi alkandora hori eta garbi eskuak!
- a) zaitetz / itzazu
 - b) ezazu / zaitetz
 - c) ezazu / itzazu
 - d) zaitetz / zaitetz
70. Zein **ez da** esamoldea?
- a) Neure artean pentsatu nuen...
 - b) Neuregana pentsatu nuen...
 - c) Neure baitan pentsatu nuen...
 - d) Nik neuretzat pentsatu nuen...

PROBA IDATZIAK

ARGIBIDEAK

Hona hemen Proba Idatzien ezaugarri nagusiak:

- Proba honek ariketa hauek ditu: Ahozkoaren ulermena (HE1ean), Irakurmena, Idazlan laburra, Idazlan luzea.
- Proba egiteko denbora: hiru ordu.
- Erantzunak, izen-abizenak eta nortasun-agiriaren zenbakia erantzun-orrian markatu behar dira.
- Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

PROBA IDATZIA HE1.

1. eredua

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Aukeratu erantzun egokiena eta idatzi beheko taulan dagokion letra (a, b ala c). Lehendabizi, galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Bi aldiz entzungo duzu zati bakoitza.

Yoga beroa

I. atala

1. Zer lanetan dabil Leire Saitua?
 - a) Estatu Batuetan yoga irakasten.
 - b) Antzezle lanetan kafetegi batean.
 - c) Bilboko yoga-eskola batean.
2. Zertarako balio du yogak?
 - a) Lanerako batez ere.
 - b) Erabilera ugari ditu.
 - c) Entrenamenduetarako.
3. Yoga beroaren erabileraz zer dio Leirek?
 - a) Erabilgarri izan liteke.
 - b) Aspaldikoa da Estatu Batuetan.
 - c) Kaltegarria da giharrentzat.
4. Zer-nolako jarrera du Leirek yoga beroaren aurrean?
 - a) Ez da batere fio.
 - b) Jarrera irekia du.
 - c) Irrikan dago hona iristeko.
5. Zein da Leireren helburu nagusia yoga egitean?
 - a) Gorputz elastikoa izatea.
 - b) Nork bere burua lasaitzea.
 - c) Nork bere burua ezagutzea.

II. atala

6. Alde fisikoa lantzea nola ikusten du Leirek?
 - a) Tresna edo bitarteko bat bezala.
 - b) Alde batera utzi beharreko kontua.
 - c) Emozioak aztertzeko traba bezala.
7. Oinarrizko postuak buruz zer dio Leirek?
 - a) Luzaketak egiteko erabiltzen ditu.
 - b) Saiotik saiora maiz aldatzen ditu.
 - c) Horiek dira praktikaren ardatza.

8. Zer dio musikaren erabileraz?
- a) Oinarri-oinarrizkoa da.
 - b) Aukerakoa da.
 - c) Traba egiten dio.
9. Yoga egiteko 40º izatea zer iruditzen zaio Leireri?
- a) Eramangarria.
 - b) Kaltegarria.
 - c) Lagungarria.
10. Yoga beroa eta Leireren helburuak ...
- a) batera ezinak dira.
 - b) bateragarriak izan litezke.
 - c) elkarrekin doaz.

2. IRAKURMENA

Hiriak eta garraioak

Aspalditik, autoaren erabilerari dagokionez, nolabaiteko adostasuna badago hiri-gintza, ingurumen, gizarte eta politika arloetan: aski onartuta dago autoak ezin direla neurririk gabe erabili banakako bidaietan, nahi dugun bizi kalitatea lortu nahi badugu behintzat. Horren ondorioz, Europan aldatuz joan dira mugikortasun eta garraio politikak: garraio publikoaren aldeko joerak nagusitzen ari dira (metroa, tranbia, autobusa...), baita ibilgailuak partekatu eta bizikletak erabiltzearen aldekoak ere. Gainera, gero eta argiago dago ezinbestekoa dela hiri barneko zirkulazioa mugatzea oinezkoentzako guneak handitzeko.

Autoa da mugitzeko tresnarik onenetarikoa, eta ekonomian garrantzi handia du, baina, egin duen bidean hainbeste zabaldu eta gero, arrakastaren biktima ere izaten hasia da: errepideetako ilaretan galdutako orduak, ingurumenean duen eragina (kutsadura eta zarata), sortzen dituen arriskuen giza eta ekonomi kostuak, aparkatzeko toki falta... Hori guztia gogoan hartuta, adituek diote autoari mugatu egin behar zaizkiola esparruak (oinetzkoentzako guneak zabalduz eta egokituz, aparkaleku zentzagarriak jarritz...), eta bestelako garraiobideak erabili behar direla. Gero eta argiago dago bizikleta, aisialdirako eta kirolerako tresna ez ezik, hiri barneko garraiobide ere izango dela.

Europako Batzordeak 1990eko *Libro verde sobre el medio urbano / Livre vert sur l'environnement* liburuan dio bizikleta tresna ona dela hirietako zirkulazio estutasunak eta horrekin zerikusia duten arazoak leuntzeko: zarata, istripuak, aire kutsadura, hirietan alferrik galdutako guneak, ondare arkitektonikoak suntsitzea, hiritarren osasunaren galera.... Proposamen horren bidetik 1999an argitaratutako eskuliburu batean argibide gehiago eman ditu, eta azaldu du Europako herrietan zer baldintza diren egokienak bizikleta erabiltzeko.

Europako Batasunak eginiko ikerketa baten arabera, bizikleta erabiltzeko ezin hobeak dira 50.000 eta 500.000 biztanle bitarteko hiriak, gorabehera handirik gabekoak, eta klima gogorrik ez dutenak; esaterako, Groninga eta Delft (Herbehereak), eta Munster (Alemania) hirietan egiten diren bidaien %40 baino gehiago bizikletaz egiten dira.

Europan, bestalde, eskaera sozialaren eta eragin politikoaren ondorioz hiri asko nabarmendu dira bizikletaren erabilera bultzatzeagatik: Amsterdam, Bremen, Ferrara, Estrasburgo... Metropoli handi batzuetan ere, hain zirkulazio handia izanik, arazoak handituko zirela uste izan arren, lortu dute bizikleta izatea garraiobide alternatibo egiazkoa. Hor koka litezke, esaterako, Berlin, Berna, Geneva, Kopenhage, Zurich, etab.

Gasteizko Udalak Euskal Herriko Unibertsitateari eskatutako ikerketa batean garbi geratu da Gasteiz egokia dela bizikleta erabiltzeko garraiobide gisa. Izan ere, hiri horrek ezaugarri urbano eta fisikoei esker ondo betetzen ditu Europako Batasunak eskatutako baldintzak. Kilometroei dagokienez, esate baterako, hiria mutur batetik bestera zeharkatzeko bidaiak 7,5 kilometro baino laburragoak dira –kilometro kopuru hori jotzen da mugatzat bizikleta egoki erabiltzeko—. Hiria, bestalde, oro har, laua da salbu Erdi Aroko aldea, baina hori ez da traba handia. Beharbada, gure artean gehien zabalduko aurreiritzia hauxe da: Gasteizko klima ez dela bizikletan ibiltzeko modukoa. Hala ere, argi eta garbi dago Europako hiri batzuetan, nahiz eta klima gogorragoa izan, lortu dutela bizikleta garraiobidea ez ezik, bizitzeko modu bat ere izatea. Horretan ari gara.

Berria-tik hartua eta moldatua

1. Autoaren erabileraz zer dio testuak?
 - a) Erabateko adostasuna dago Europan.
 - b) Mugak jarri behar zaizkio.
 - c) Bultzatu egin behar da bizi kalitatea hobetzeko.
 - d) Ez dago neurririk hartzerik.

2. Europan nabariak dira aldaketak garraio politikan. Zein da egia?
 - a) Egin den guztia oinezkoen kaltetan egin da.
 - b) Ibilgailuak partekatzeko ohituran ez da egon aldaketarik.
 - c) Gero eta gehiago dira garraio publikoaren aldekoak.
 - d) Oinezkoentzako guneak mugatu egin nahi dira.

3. Testuaren arabera non nabari da autoaren eragina?
 - a) Ekonomia arloan.
 - b) Bizi kalitatearen hobekuntzan.
 - c) Ingurumenaren hobekuntzan.
 - d) Arrakasta pertsonalean.

4. Adituen ustez...
 - a) autoaren ordezkioak bultzatu behar dira.
 - b) nonahi jarri behar dira aparkalekuak.
 - c) aisialdirako erabili behar da batez ere bizikleta.
 - d) aisialdirako eta kiroletarako dira hiri barneak.

5. Bizikletaren erabilera zertarako da gomendagarria hirietan?
 - a) Zirkulazio estutasunak areagotzeko.
 - b) Zirkulazio arazoak arintzeko.
 - c) Hiritarrek gaixotasunik ez izateko.
 - d) Ondare arkitektonikoek beste horrenbeste irauteko.

6. Europako Batzordearen proposamenaren gainean zein da egia?
 - a) 1999an ikusi zuen lehen aldiz argia.
 - b) Hasierakoak izan ditu gerora ukituak.
 - c) Argia ikusi zuenetik, ez du aldaketarik izan.
 - d) Hasieratik ondo zehaztu ziren bizikleta erabiltzeko baldintzak.

7. Bizikletak erabiltzeko baldintzen gainean zer dio testuak?
 - a) Ezinbestekoa da biztanle kopuru jakina izatea.
 - b) Ezinbestekoa da klima leuna izatea.
 - c) Hobe da aldaparik ez izatea.
 - d) Ez dago gorabeherarik baldintzetan.

8. Bizikletaren erabileraz nolako erantzuna eman dute Europako hiriek?
- a) Ez dago hiririk horren aldeko apusturik egin ez duenik.
 - b) Hiri guztietan dago horren aldeko eskaera soziala.
 - c) Metropoli handietan bizikletak erabiltzea ametsa baino ez da.
 - d) Hainbat metropolitan ere lortu da garraiorako erabiltzea.
9. Euskal Herriko Unibertsitateak zer egin du?
- a) Europako Batzordeak agindutakoa bete du.
 - b) Bizikleta erabiltzeko plan bat prestatu du.
 - c) Gasteizko Udalaren plana onartu du.
 - d) Bizikleta Gasteizen erabilgarri dela erakutsi du.
10. Bizikletan ibiltzeko, Gasteiz ...
- a) guztiz laua da.
 - b) zabalegia da.
 - c) aurreiritziz jositako hiria da.
 - d) klima gorabehera, egokia da.

3. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 100 hitz izan behar ditu gutxienez.

Eskolako zuzendaria zara. Irakurzaletasuna bultzatu nahian zabiltzate: liburute-gia gehiagotan ireki, idazle ezagunak ekarri, tertuliak egin etab. Ekitaldi bat antolatu duzue. Idatzi gurasoei eskutitza:

- Ohitura azaldu, helburuak gogoratu.
- Ekitaldia azaldu eta gonbidatua aurkeztu.
- Gonbitea egin eta erakarri.

4. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

1.- Ezkondu, bai ala ez?

Elkarrekin bizitzeko moduak aldatu dira eta aukerak zabaldu: ezkondu, izatezko bikote eran erroldatu, besterik gabe elkarrekin bizi. Bakoitzak ditu bere ondorioak. Ikus adibidez:

	Ezkonduak	Izatezko bikoteak	Ezkondugabeak
Alargun pentsioa	Bai	Ez	Ez
Errenta aitorpena	Batera ala banaka	Batera ala banaka	Banaka
Herentziak (seme-alabarik gabe)	Ondasunen %50aren usufruktua	Lehen urtean onda- sunen usufruktua	Testamentuaren arabera

Aholkua eskatu dizu adiskide batek eta idatziz erantzungo diozu.

2.- Organo-emaile

Organo emaile zara? galdetu dizute ikasleek. Idatz iezaiezu eta azaldu zure us-teak, asmoak eta erabakiak.

PROBA IDATZIA HE1.

2. eredua

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain grabazio bat entzungo duzu. Grabazio honek bi atal ditu eta atal bakoitza birritan entzungo duzu. Entzun ahala, ondoko baieztapenak EGIA ala GEZURRA diren adierazteko, E edo G idatzi alboko laukian.

Antraxa

I. atala:

E/G

1. Antraxa biriketako gaixotasun bat da.	
2. Antraxak ikaragarri irauten du.	
3. Uretan bizi da normalean.	
4. Esporen bidez ugaltzen da.	
5. Lurzoru gaineko bizidunengan du eragina antraxak.	
6. Larruazalean, ondoeza eta mina eragiten du.	
7. Nahiko da espora bat edo beste arnasbidetik sartu eta ugaltzeko.	
8. Sabelera iritsita, antraxak dena birrindu lezake.	
9. Infekzio gehienak azalekoak dira.	
10. Antraxak gripearekin lotura zuzena du.	

II. atala:

E/G

11. Antraxa egokia da gerra biologikoetarako, erraz hedatzen baita.	
12. Botulismoa oso hilgarria da, eta erraza erabiltzeko.	
13. Botulismoa hegazkinez bota behar da eraginkorra izango bada.	
14. Izurrite beltza ez da asko erabiltzen, ez delako hain kutsakorra.	
15. Edozein kasutan maskarak erabiltzea gomendatzen dute.	
16. Antraxa ahotik ez hartzeko neurria: elikagaiak egostea.	
17. Txertoak erabilera mugatua du oraindik.	
18. Botikak odolean egon behar du, mikroorganismoa hilko badu.	
19. Arrazoi bat baino gehiago dago antibiotikoak ez hartzeko.	
20. Baldintza jakinak daude horrelako mikroorganismoak erabiltzeko.	

2. IRAKURMENA

Ahozko inprobisazioa eta bertsolaritza

Ahozko inprobisazioa mundu osoan zehar agertzen den fenomeno da; ez dago leku ... (1)... bati lotua, han eta hemen ageri baita lurralde batean eta bestean, Txinan bezala Ertamerikan, Finlandian bezala Afrikako hainbat herrialdetan. Beste horrenbeste esan liteke adierazpen-mota horren sorreraz: alegia, ez zuen sortu arraza jakin batek, ez eta etnia, hizkuntza edo gizarte talde jakin batek. Denboran barrena abiatuz gero, berriz, jakin behar dugu gizakion antzin-antzinako arte-adierazpide bat dela. Baina, bestalde, izanik ere hain fenomeno zabala eta hain leku desberdinetan errotua, ... (2)... ditu hainbat ezaugarri eta lege, teknika eta mekanismo; hitz batean, sormenerako baliabide berdintsuak erabiltzen ditu, bazterrik bazter sakabanaturik egonik ere. Ordea, ez da guztia berdina; badira diferentziak eta aldeak, baina bigarren mailakoak dira errepikatzen ez diren ... (3)... horiek, esate baterako, musika-tresnak, neurria, kantatzeko modua eta bat-batean aritzeak hartzen duen izena.

Bat-batekotasunaren jatorria, ahazko literaturarena bezala, ezezaguna da guztiz: Ahazko literatura, ahazko poesia eta ahazko inprobisazioa gizakiaren behar estetikoari loturik egon dira betidanik, eta hizkuntzaren eta gizakiaren ahazko komunikazioaren sorreran bilatu behar da ... (4)... . Kultur adierazpenen artean bat-batekotasuna da fenomenorik unibertsal eta zaharretakoa. Izan ere, idazkera agertu aurretik, agerpen poetiko guztiak ... (5)... izango ziren. Horrek ikerketa zaildu egiten du ez dagoelako bat-batekotasunaren artxibo historikorik. Ondorioz, hurbilpen historikoak zehaztuga-beak dira eta hipotetikoak, neurri batean. Zaila da, ... (6)..., bat-batekotasunaren jatorria, antzinatasuna eta eboluzioa aztertzea.

Ikerketa eta kulturen arteko harreman faltaren eraginez, herrialde bakoitzak uste izan du bat-batean sortutako adierazpen-mota hori ... (7)... eta bertakoa dela bakarrik; ez beste inorena, ezta beste inongoa ere. Gaur, berriz, gauza jakina da bat-batekotasunaren arrastoak ageri direla mundu osoko herrialde asko eta askotan eta horren lekuko dira, ... (8)..., Turkia, Euskal Herria, Espainia, Portugal, Errusia, Finlandia, Afganistan, Alemania, Txina, Yemen...; eta herrialde horietan bezala, esan behar da zabaldu direla Hego eta Ertamerika osoan, edota Afrikako hainbat kulturatan.

Fenomeno hau bizirik duten herrialdeetako hizkuntzen eta kulturen arteko loturarik ez dagoen arren, guztietan ... (9)... dira hainbat elementu: nekazaritzari eta landa eremuari erabat loturik ageri da beti. Nekazariak jaso eta zabaldu dute ... (10)... kultur adierazpide hori, eta inguru horietan garatu da gehien. Hala izanik ere, ezin da ... (11)..., gaur egun, fenomeno urbano eta modernoak ere izaten jarraitzen duela, horixe erakusten baitigu gure artean, hemen Euskalerrian, bizirik dirauen bertsolaritzak.

Estrofen erabilera da, bestalde, ezaugarri ...(12)... bat. Toki guztietan darabilte estrofen formatua. Estrofa horiek, gainera, gehienetan zortzi silabakoak izaten dira eta errimadunak. Zortzi silabako neurria erabat zabaldua dago, ...(13)..., gaztelaniazko inprobisazioan. Ez da batere ohikoa izaten neurririk gabe aritzea.

Musika eta kantuari dagokienez, biak ere lagungarri dira inprobisazio-jarduera gehienetan. Kanturako lagungarri harizko musika-tresnak, esku-soinua, gaita, edo danborra erabiltzen dituzte maizen eta gehien. Horretan, hala ere, Euskal Herriko bertsolaritza ...(14)... da, kantuz baino ez baitugu egiten bertsotan. Bada beste kontu bat ere ...(15)... beharrekoa, eta da elkarrizketaren teknika edo formatua; ez da derrigorrezkoa, baina bai oso erabilia. Gure arteko bertsolaritzan esan liteke ohikoa goa dela ...(16)... aritzea, baina elkarrizketa ere erabiltzen da eta badira saioak biren artean, elkarrizketa gisan, osatu beharrekoak. Horri teman aritzea deitzen zaio.

Badu beste kontu bat ere bertsolaritza ...(17)... duena bat-bateko gainontzeko eredu eta moldeetatik: gaiari heltzeko modua, hain zuzen ere. Gurean ohikoa da bertsolariari gaia oso zehaztua ematea edo jartzea. Eta ...(18)... herrialdeetan fenomeno hori ez dago hain zabaldua, normalago izaten baita kontu eta gai orokorragoez aritzea, gehiegi zehaztu gabe, zabalago.

Beste atal edo ...(19)... batzuk ukitu gabe geratu dira artikulua honetan: emakumeak duen presentzia kultur adierazpen honetan, bertso-eskolek (edo antzekoek hemendik kanpo) duten garrantzia XXI. mendean bat-batekotasunak bizirik jarrai dezan etab. Horiek eta gehiago dira ...(20)... bat eskatuko luketen gaiak, lerro hauetan azaldu den fenomenoa sakonago ezagutzeko.

Nabarra aldizkaria, 31.zka. (moldataua)

1) a) egoki b) jakin c) berdin d) zabal	2) a) antzekoak b) itxurazkoak c) desberdinak d) hala-moduzkoak	3) a) hitz b) leku c) elementu d) izen
4) a) ezaugarria b) gaia c) arloa d) jatorria	5) a) landuak b) bat-batekoak c) bakarrak d) ederrak	6) a) beraz b) halaz ere c) hain zuzen d) alegia

7) a) guztiena b) berdina c) berea d) ederra	8) a) jakina b) behar bada c) bestelakoak d) besteak beste	9) a) esplikatzen b) errepikatzen c) sortzen d) zenbatzen
10) a) etxez etxe b) landaz landa c) familiaz familia d) belaunaldiz belaunaldi	11) a) esan b) ukatu c) jakin d) pentsatu	12) a) komunetako b) antzeko c) horietako d) aparteko
13) a) izan ere b) esate baterako c) hala ere d) bestela ere	14) a) desberdina b) alaia c) antzekoa d) jatorra	15) a) kontuz hartu b) ontzat hartu c) aintzat hartu d) gaizki hartu
16) a) bat-batean b) bakarka c) urduri d) zutik	17) a) bereizten b) merezi c) aipatzen d) adierazten	18) a) horrelako b) hango c) orduko d) gainerako
19) a) izen b) eredu c) arlo d) asmo	20) a) ikuspegi b) hausnarketa c) adibide d) irizpide	

3. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 100 hitz izan behar ditu gutxienez.

Txangoa. Tutorea zara. Energia-iturriak aztertzen ari zarete, eta txango bat antolatuz duzue ikasleekin haize-errotak dauden mendi batera (Arabako Elgea mendira). Idatzi gurasoei:

- horren berri eman
- irteera arrazoitu
- helburuak argitu
- nondik norakoak zehaztu (data, garraioa, ordutegia...)
- ...

4. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitzeko idazlana osatu behar duzue.

1.– Zaintzailea. Adiskide batek haurrak ditu edota adineko senideak. Pertsona bat hartu beharrean dago. Kanpotarren eskaintza handia da eginkizun horiek betetzeko. Ez daki zein hartu eta iritzia eskatu dizue. Bertokoa ala kanpokoa? Kanpokoan artean zein? Zer hartu kontuan? Arraza, hizkuntza, kultura, sexua ... Erantzun iezaiozue.

2.– Jaiegunetan jai. Jaiegunetan ere ireki nahi dituzte saltokiak. Beharrezkoa al da? Komeni al da? Iritzi kontrajarriak daude gizartean. Zein da zurea? Idatzi.

- Jaietan jai egitea, denon eskubidea?
- Bizi-kalitatea eta jaiegunak: lan-egutegia eta familia, lan-egutegia eta adiskideak...
- Jabeen interesak eta helburuak: saltoki handiak eta txikiak
- Bezeroen premia ala kapritxoa?
- «Orain, jaiegunetan; laster, gauetan ere bai».

PROBA IDATZIA HE2.

1. eredua

1. IRAKURMENA

Emozioak ere inteligentzia dira

Adimen-testek zenbaterainoko garrantzia duten azaltzerakoan, galdera bera egin ohi da beti: test horietan puntuazio altua lortzeak bizitzan arrakasta izatea ziurtatzen al du? Hala uste izan zen garai batean, eta horrexegatik ematen zitzaien horrenbeste-ko garrantzia azterketa horiei, baina gaur egun gutxi emango liokete baiezko biribila galdera horri. Izan ere, ohikoa da, koziante altua izanik, lanbidean arrakasta lortu duen norbait bizitza pertsonalean porrotak pilatzen joatea, adimen hori eguneroko bizitzan islatzen ez dakielako; edota gerta liteke koziante altuko askok hain adimen maila altua ez duen beste batentzat lan egitea.

Zein da, bada, bizitzan arrakasta lortzeko giltza? *The Consortium for Research on Emotional Intelligence in Organizations* erakunde estatubatuarra duela urte gutxi egindako azterketa baten arabera, bi faktorek osatzen dute arrakastaren gakoa edota arrakasta ziurtatzen duen koziantea: denok ezagutzen dugun ahalmen intelektuala, alde batetik, –%25 inguru– eta emozioek, bestetik, –gainerako % 75–. Ehunekoen banaketa horrekin asko ez dira ados egongo agian, baina ia guztiek onartzen dute emozioek ezaupide intelektualek bezainbesteko garrantzia, edo haiek baino gehiago, dutela gure garapenean: gure lan-etekinak, osasunak, famili giroak edota giza harremanek baldintzatzen dute gure garapena. Adimen intelektuala barik, adimen emozionala esan ohi zaio ahalmen horri, Daniel Goleman psikologo eta idazle estatubatuarra 90eko hamarkadan bultzaturiko espresioa erabiliz.

Norberaren eta albokoen sentimenduak ulertzea eta emozioak kontrolatzen nahiz erabiltzen jakitea da, hain zuzen, adimen emozionala: albokoekin harreman egokiak izatea, geure burua eta gainerakoak motibatzea, besteen konfiantza eskuratzea, porrotei aurre egiten jakitea, pertsonak baloratzea, umore edo animu egoerak erregulatzea... Adimen emozionala ez da intelektualaren kontrakoa, bata garatzeak ez du esan nahi bestea alde batera uztea. Biak nahastea jotzen da egokitze arrakasta lortzeko, alegia, bata bestearekin osatzea.

Adimen emozionalaren kontzeptua Estatu Batuetan jaio eta garatu zen arren, azkar zabaldu da mundu osora eta gurean, esaterako, enpresaburuak eta exekutiboak ere hasiak dira langileen motibazioa eta aldartea kontuan hartzen. Giza baliabideak kudeatzen dituztenek –zuzendariak edo talde-buruak, adibidez,– euren ardurapean dauden langileen emozioei etekinak ateratzen jakin behar omen dute. Enpresaburu eraginkorrena bere langileak motibatu eta sustatzen dakiena dela dioen teoria nagusitzen ari da eta arlo horretan exekutiboak prestatzeko ikastaroak ere badaude. Estatu Batuetan beste pauso bat eman da arlo horretan, eta langileei zuzenduriko meditazio nahiz masaje-gelak jarri dituzte enpresa askok; hala, euren proiektuak garatzera bultzatzen dituzte. 3M, IBM, Daimler Chrysler edo Motorola bezalako enpresa erraldoiak buru-belarri sartu dira adimen emozionalaren garapenean.

Adimen emozionala ez da adimen intelektuala bezala zifretan neurtzen, ulermena, pertseberantzia, egonkortasuna, motibazioa, auto-diziplina eta enpatia bezalako ahalmen asko nahasten baititu. Horietakoren bat neurtzeko testak badaude ere, ezin denak kontuan hartu. Zer esan nahi du, beraz, emozionalki adimentsua izateak? Jarrera positiboa izatea, adibidez, norbere buruarekiko eta aurrean aurkitzen ditugun erronken aurrean. Optimistek zailtasun eta porrotak behin-behinekotzat hartzen omen dituzte, gaindi daitezkeenak hortaz; pesimistek, ordea, gauza pertsonaltzat hartzen dituzte eta iraunkortzat jotzen.

Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzea eta haiek adierazteko nahiz kontrolatzeko gaitasuna izatea ere adimen emozionalaren seinale omen da. Golemanek askotan erabili ohi du Aristotelesek esandako esaldi hau: «Haserretzea erraza da, baina pertsona egokiarekin, behar den intentsitatearekin, une egokian eta arrazoi egokiengatik haserretzea ez da batere erraza».

Enpatia, besteen sentimendu eta emozioak gure egitea, abileziatzat hartzen da halaber; egozentrismoa gainditu den seinale. Baita erabaki egokiak hartzeko gai izatea eta motibazioa, ilusioa eta interesa izatea ere. Era berean, emozionalki adimentsua denak badaki eskuzabal izaten ematerakoan nahiz jasotzerakoan, eta egoki uztartzen ditu eskubideak eta betebeharrak, tolerantzia eta exijentzia, bakardadea eta konpainia.

Adimen emozionalak, gainera, badu intelektualak ez duen abantaila bat: ahalmen edo trebezia intelektuala bizitza osoan zehar ia aldaketarik gabe mantentzen omen den bitartean, adimen emozionala landu eta gara daitekeela diote adituek. Hau da, norberak nahi duen bezain adimentsu izatera irits daitekeela.

Jakin ere gauza jakina da, bestalde, talentu aparteko seme edo alaba bat izatea harro egoteko arrazoia dela onartu arren, guraso askok madarikaziotzat hartzen dutela ahalmen hori, ez bedeinkazio gisa. Izan ere askotan ahaztu egiten da ikasle horiek arreta berezia behar izaten dutela, eta izugarritzko arazoak sortzen zaizkie ikasketetan.

Estatuan eskola-umeen %2 omen dira talentu apartekoak: 300.000 inguru. Hezkuntza Ministerioaren datuen arabera, ikasgela bakoitzean 130etik gorako kozientea duen ikasle bat badago gutxienez. Horiek gutxi gorabeherako zifra baino ez dira, ordea, kasu asko eta asko, gehienak, ez baitira oraindik diagnostikatu. Ez da erraza izaten. Talentu aparteko umeen %60k errendimendu kaskarra izaten dute eskolan eta %30ek eskola-porrota. Izan ere, gainerako ikaskideak baino adimentsuagoak izan arren, interes eta borondate falta izaten dute askotan. Gelan aspertu egiten dira, irakaslearen azalpenak ikasitakotzat jotzen dituzte eta ez dute inolako motibaziorik. Gainera, euren talentua garatu orde mugatu ere egiten dute askok, ikaskideek gaitzets ez ditzaten.

OLATZ ELOSEGI
Zabalik, 166. zenbakia. (moldatua).

1. Adimen-testen emaitzez zer dio testuak?
 - a) Lotura zuzena dute bizitzako arrakastarekin.
 - b) Arrakasta profesionala ziurtatzen dute.
 - c) Badaude arrazoiak horien garrantzia mugatzeko.
 - d) Inor gutxik lortzen ditu puntuazio borobilak.

2. Zer da inteligentzia emozionala?
 - a) Arrakasta ororen oinarri-oinarria.
 - b) Ahalmen intelektualaren definizio modernoa.
 - c) Adimen intelektualaren ordezkia.
 - d) Gure garapenaren osagai garrantzizko bat.

3. Zein da hirugarren paragrafoaren mamia?
 - a) Adimen emozionala azaltzea.
 - b) Arrakastaren giltza definitzea.
 - c) Emozioen kontrola azpimarratzea.
 - d) Adimen emozionala garatzeko teknikak erakustea.

4. Adimen emozionalaren erabileraz zer dio testuak?
 - a) Langileen emozioak aztertzeko erabiltzen da.
 - b) Lan munduan ere nabarmentzen ari da.
 - c) Enpresaburuek eta exekutiboek oso garatua dute.
 - d) Horretan oinarritzen da Chrysler eta Motorolaren garapena.

5. Adimen emozionala zifretan neurtzeaz zer dio testuak?
 - a) Osagai bakoitza neur liteke, baina ez osotasuna.
 - b) Osagai bakoitza neurtu arte, alfer-alferrik da.
 - c) Ez dago osagai bakoitza zertan neurtu, emaitza kalkulatzeko.
 - d) Dituen osagaiak izanik, beste era batean baloratzen da.

6. Zer diferentzia dago optimistaren eta pesimistaren artean?
 - a) Zailtasun eta porrot gutxiago aurkitzen du optimistak.
 - b) Jarrera desberdina daukate eragozpenen aurrean.
 - c) Pesimistaren zailtasunak oso pertsonalak dira.
 - d) Ahaleginean iraunkorrago dira pesimistak.

7. Zer dela eta aipatzen da Aristoteles?
 - a) Inteligentzia emozionala ongi definitu zuelako.
 - b) Bazekielako noiz, norekin eta zergatik haserretu.
 - c) Sentimenduen kontrolaz aipu polita dakarrelako.
 - d) Ongi kontrolatzen zituelako emozioak eta sentimenduak.

8. Zer da enpatia?
- Sentimenduak orekatzeko gaitasuna.
 - Bakarrik nahiz konpainian bizitzeko gaitasuna.
 - Inoren sentierarekin bat egitea.
 - Eskubide eta betebeharrak egoki neurtzea.
9. Adimen emozionalaren eta intelektualaren garapenaz zer dio testuak?
- Diferente garatzen direla biak.
 - Norbere esku daudela biak.
 - Baten garapenak bestearena dakarrela.
 - Baten abantailak bestearena gutxiesten duela.
10. Zer adierazten dute testuaren bukaerako datuek?
- Aparteko talentudunekin arretaz jokatu behar dugu.
 - Eskolak lehentasuna ematen dio adimen emozionalari.
 - Guraso askok ez dutela behar bezala estimatzen seme-alaben talentua.
 - Lehentasuna eman behar lieke eskolak aparteko talentudunei.

2. IDAZLAN LABURRA

Gutxienez 200 hitz dituen idazlana egin behar duzu ondoko gaiari buruz.

Ikasketa bidaia. Guraso zara eta Eskola-kontseiluko kide. DBHko 4. mailakoentzat ikasketa bidaiarako bi proposamen dituzue. Ikasketa-buruak iritzia eskatu dizue. Konparatu biak eta argudiatu zure aukera.

	Hizkuntza	Bidaia	Gastuak	Bidea	Hotela
Ibizara	Gaztelania	Hegazkinez	350 €	Bilbo-Bartzelona-Ibiza	San Anton bertan
Londresera	Ingelesa	Ferryan	300 €	Bilbo-Portsmouth-Londres	Heathrow aireportuaren ondoan. Erdigunetik 24 km-ra

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 300 hitz dituen idazlana osatu behar duzu. Ez ezazu erabil gaiaren azalpeneko esaldi-zatirik hitzez hitz.

1.– Ikastetxeko menua

Jantokiko arduraduna zara. Elikadura kezkarri bihurtu da. Eskola-kontseiluak asko eztabaidatu du menuaz eta baita erabakia hartu ere. Horren berri emango diezu gurasoei zirkular batean.

	Transgenikoa	Biologikoa
Osasunean	Osagai ezezagunak, alergiak	Kimika gabea, zaurra
Ekonomian	Merkeagoa	0,5 euro garestiago
Kontrola	Enpresa handiak, kateak	Ekoizle jakinak, ezagunak
Merkatua	Globalizatua	Merkatu txikia
Produkzioa	Handia, azkarra	Txikia, mugatua

2.– Eskola eta integrazioa

«*Ijitoak eskolara joatea beharrezkoa da integrazioa lortzeko*». (Domingo Jimenez, Pedagogoa eta ijitoa. *Egunero*, 2003-05-14). Hona hizpide batzuk:

- Integrazioa (kontzeptua, definizioa: zer da, zer ez da)
- Kasuistika (integratio-motak, esperientziak, diferentziak...)
- Justifikazioa (Zergatik integratu? Ondorioak)
- Baliabideak (zer behar da, zerk laguntzen du...)
- Eskola hain beharrezkoa al da? Zertan lagun lezake?

Idatzi Domingo Jimenez jaunari eta azaldu zure des/adostasuna (erabatekoa edo neurri batekoa).

PROBA IDATZIA

HE2.

2. eredua

1. IRAKURMENA

Ondorengo testuan hainbat hutsune ageri dira. Aukeratu hutsune bakoitzari dagokion hitzik aproposena eta dagokion letra biribil batean bildu.

Mundializazioak Alemanian erakutsi dizkigu hortzak

Alemanian aurten bi kale-mugimendu garrantzizko gertatu dira. Ekialdeko Alemania Demokratikoa eta Mendebaldeko Errepublika Federala1.... zirela hamabost urte aurten bete izanagatik, manifestazio eta mugimendu ugari izan dira. Eta horrez gain, Europa osoan2.... handiagoa eragin duten bestelako mobilizazioak ere burutu dira: Opel-ek milaka lanpostu itxi behar zituela jakinda, greba3.... egin zuten autoen multinazionalen beharginek.

Bi gertakizun horiek guztiontzako irakaspen gogorra dakarten arren, Europako sindikatuak ez dira oraindik ausartu abisua4.... zabaltzera: «Langileok, agur 35 orduak». Aldiz, mugimendu horiek direla-eta idatzi diren artikulu guztien artean bi5.... ditu *Courier International* astekari frantsesak, gainean dugun etorkizuna argitzen saiatu diren bi idazle ekialdeko alemaniarrenak.

Ekialdeko Alemaniako hiritarrei6.... oso azkar gertatu zaizkie. Mendebaldeko alemanen bizi-maila urte gutxitan erdietsiko zutela7.... zitzaien, duela hamabost urte hango sistema komunista gainbehera etorri zenean. Aldaketaren8.... oraindik leku guztietara iritsi gabe direnean, enpleguaren galerarekin eta enpresa handien deslokalizazioarekin egin dute topo.9.... horretatik idatzi dute bi gizonok.

Christoph Hein antzerkigilea da bata, eta Ulrich Beck soziologoa, bestea. Mundializazioaren analisiaren10.... handi batean ados datoz biak; baina Beck soziologoak esperantza argiak ikusten dituen moduan, Hein idazlea11.... da faxismoa berriro gainean ote dugun.

Alemanian nabarmen gelditu da gaur gobernuek ez dutela maniobra tarterik multinazionalen aurrean. Mundializazioa baldin bada herrialdeen artean dauden bizi-maila, soldata eta zerga-diferentziak erabiltzea12.... ateratzeko, «estatuak ez dauka mundializazioaren eboluzioan batere13....» idatzi du Christoph Heinek.

Zergak dira estatuak bizi ahal izateko duen iturri bakarra, eta hori kenduko14.... kartaz egindako gaztelua bezala hondoratuko litzateke. «Orain mundializazioak zerga derrigortuaren15.... ekarri du, zeren nahiko indar ekonomiko edukiz gero, zergak ere negoziata baitaitezke». Korporazio handi batek zergak16.... edo, besterik gabe, kentzea eskatzen badu, edo amore ematen zaio edo lanpostuak deslokalizatuko ditu, eta, orduan, estatuak zerga gutxiago biltzeaz gain, langabetu gehiago hartu behar ditu17....

Korporazio europar batek Vietnamen duen langile batek orduko euro baten 6,5 xentimo kobratzen badu,18.... da ulertzen oraindik gauzak noraino iritsi dai-

tezkeen. «Mundializazioak hartu duen19.... –idatzi du Christoph Heinek– lehen eta bigarren mundua elkarrekin egokitzea darama. Haren20.... ez da mundu justuagoa lortzea, dauden desberdintasunak medio, etekinik handiena lortzeko erabiltzea baino». Horregatik dago ziur Hein enpleguek Europatik21.... segituko dutela, eta ehun soziala ahulegi geratuko dela edozer sostengatzeko.

Korporazio mundializatuen indarrak teoria politikoaren22.... hankaz gora jarri dituela-eta, eskema berria honela azaldu du Ulrich Beck soziologoak: «Gaur egun23.... ez dute, lehen bezala, zerga gehiago edo gutxiago ordaintzearekin egiten mehatxu, ez ordaintzearekin edo24.... baizik. Xantaia egiteko ahalmen honek aldatu du negoziaketa ekonomikoaren logika: beti eta25.... estreinako ezezkoa eman, ez inbertitu, eta, gainera, inori konturik eman beharrik ez».

Logika horretatik ulertzen du Beck-ek jende artean dagoen26.... politikoa, zeren eta gure botoekin aukeratu ditugunak gertakizun handien aurrean ikusle soilak dira, eta,27...., guk aukeratu ez ditugun pertsonak dira gure bizitza baldintzatzen duten erabakiak hartzen28.... «Politikariek oraindik ez dute ulertu zein den beren posizioa eta gurea mundu mundializatu honen modernitatean». Eta, bere ustez, eskema klasikoen arabera erreakzionatu duten sindikatuek ere ez dute29.... ulertu. Ez Schröder kantzilerrak korporazioari «jokabide abertzalea» exijituz egindako deiak, ez mobilizazioak estatu mailan antolatu dituztenek ez omen dute mundu30.... ulertu.

Itxaropenari zirrikitua31...., Ulrich Beck-ek kapitalari aurre egin diezaiokkeen kontraboterea ikusi du: «Kontsumitzaile politizatuan oinarritutako mugimendu soziala da hori. Erosteke erabakia bihur daiteke boto, erosleak horrekin korporazio handien politikari buruzko32.... emango duelarik. Korporazioek ez inbertitzeko indarrak badu33.... indarra: gizakiok ez erostekoa eta mugimendu transnazionalak boikota eragitekoa». Etorkizuna hortik lantzea da bere34....: korporazio transnazionalak etekina kontsumoaren mundializazioari ateratzea dute helburu, baina, aldi berean, horixe da korporazio ahalguztidunen punturik35....

Askoz ilunago bukatu du bere artikulua Hein antzerkigileak. Errepublika Demokratikotik –garai36....– ateratzeko aukera eman eta duintasunez etxean gertatzea erabaki zuen intelektual honek pesimismoz ikusten du Europako politikariek, diruzain onak bezala, beren poltsiko hutsak erakutsi eta, politikari37.... bezala, tunelaren bukaeran argia ikusi dutela esaten dutenean. «Argi horrek ez dakigu zer38.... digun. Aingerua, agian; argiaren aingerua edo39.... aingerua. Gure historia ezagututa, aurreikus daiteke Europako alderdi nazional eta nazionalistek hartuko dutela indarra. 1946an, Mundu Gerra bukatu eta urte betera Thomas Mann-ek esan zuen faxismoaren garaia bukatzetik urrun geundela. Gazte nintzenean irakurri nuen esaldi hori eta ez nuen batere ulertu; histerikoa iruditu zitzaidan, eta errealitatetik40.... zegoena: faxismoa behin betiko garaitu berria genuen, ezta? Gaur egun beldur naiz Thomas Mann-ek oso urruneko gertakizunak aurreikusi ote zituen».

PELLO ZUBIRIA, *Argia*, 1.970. zenbakia (moldatua)

1 a) elkartu b) banandu c) konpondu d) sortu	2 a) itxaropen b) etsipen c) harrabots d) imintzio	3 a) basatia b) otzana c) indarberritua d) isila	4 a) garrasika b) ozen c) idatzita d) bat-batean
5 a) konparatu b) hautatu c) sinatu d) sailkatu	6 a) aldaketak b) azalpenak c) pasadizoak d) bereizketak	7 a) aldarrikatu b) aholkatu c) ukatu d) agindu	8 a) onurak b) galerak c) kontraesanak d) irizpideak
9 a) Behatoki b) Ikusmin c) Begirapen d) Ikusmolde	10 a) zati b) une c) tarte d) asmo	11 a) kikildu b) beldur c) ziur d) zalantzan	12 a) ustelkeriak b) etekinak c) irabazpideak d) kirioak
13 a) eragozpenik b) etorkizunik c) asmorik d) eraginik	14 a) balio b) balizkio c) balitzaio d) balitzaizkio	15 a) argibidea b) bilakaera c) akabera d) beharra	16 a) batzea b) kitatzea c) emendatzea d) arintzea
17 a) bere gain b) inondik ere c) etxean d) nolabait	18 a) ezinezkoa b) erraz c) aski d) zilegi	19 a) bidea b) bidearekin c) bidean d) bideak	20 a) idatzia b) helburua c) kontrapuntua d) esana
21 a) bideratzen b) ailegatzen c) desagertzen d) zeharkatzen	22 a) erroak b) eskuak c) orriak d) siglak	23 a) langileek b) gazteek c) dirudunek d) alferrek	24 a) oztopatzearekin b) irabaztearekin c) alde egitearekin d) zergak jasotzearekin
25 a) edonon b) inon c) inon ez d) nonbait	26 a) adostasun b) batasun c) ezinegon d) ardura	27 a) aldiz b) gainerantzean c) horregatik d) derrigorrez	28 a) dutenak b) dituenak c) dituztenak d) zaizkienak
29 a) horrela b) askoz gehiago c) gutxiago d) inoiz	30 a) berria b) inozoa c) esanguratsua d) indargea	31 a) estaliz b) itxiz c) marrartzuz d) irekiz	32 a) iritzia b) ebazpena c) irizpidea d) jatorria
33 a) kontrako b) amaigabeko c) hala-holako d) zorigaitzoko	34 a) erabakia b) esamesa c) proposamena d) iruzkina	35 a) indartsuena b) erabakigarriena c) gomendagarriena d) ahulena	36 a) baketsuenetan b) goxoenetan c) gogorrenetan d) aberatsenetan
37 a) txar b) on c) diruzale d) zehatz	38 a) botatzen b) iragartzen c) suposatzen d) kontatzen	39 a) ilunpearen b) tristuraren c) ezintasunaren d) ahuleziaren	40 a) gertu b) urrun c) ezkutatuta d) aterata

2. IDAZLAN LABURRA

Gutxienez 200 hitz dituen idazlana egin behar duzu ondoko gaiari buruz.

Etorkizuna. Ondorengoen etorkizunak beti kezkatu gaitu, eta haien mesederako borrokan ematen dugu bizitza: maitasuna, babesa, laguntza, ondasunak ... onena eskaini eta utzi nahi diegu. Idatz iezaiezu zure seme-alabei edo ondorengoei:

- Zer eskertzen diezu zure gurasoei? Zer eman edo utzi zizuten?
- Zer eman edo utzi nahi diezu zure ondorengoei?

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 300 hitz dituen idazlana osatu behar duzu. Ez ezazu erabil gaiaren azalpeneko esaldi-zatirik hitzez hitz.

1.– Heriotza duina eta eutanasia: delitua ala eskubidea? Egokia al da eutanasia legeztatzea?

- eugenesia motak (aktiboa, pasiboa)
- eugenesia (jaiotza ona) eta eutanasia (heriotza ona)
- duintasunez hil eta oinazerik gabe hil
 - «Hiltzen laguntzea eta hiltzea ez dira gauza bera»
 - «Norberak erabaki behar du noiz hil nahi duen»

2.– Gizonezkoak atzeraka. Jaurlaritzak badu plan bat umeak zaintzeko (eszedentzia hartu edo lanaldiaren murrizketa eskatu), baina oso gizon gutxik erabiltzen du. Gainera kopuruak behera egin du (% 5,3tik % 4,9ra).

- azaldu edo asmatu plan horren helburua
- eman iritzia horrelako planen balioaz eta eraginaz
- arrazoitu gizonezkoen erantzun epela

PROBA IDATZIA HLEA.

1. eredua

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Aukeratu erantzun egokiena eta idatzi beheko taulan dagokion letra (a, b ala c). Lehendabizi, galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Bi aldiz entzungo duzu zati bakoitza.

Mobbing-a.

I. atala

1. Mobbing-aren faktoreen artean, hauetako zein azpimarratzen dute?
 - a) Behin eta berriz gutxien dituzte lanean.
 - b) Lanean errendimendu txarra izaten dute.
 - c) Lanerako prestakuntza-falta izaten dute.
2. Erasotzaileei buruz zer diote?
 - a) Batez ere nagusiak erasotzen diela.
 - b) Lankideek ere erasotzen dietela.
 - c) Enkargatuak izaten direla okerrenak.
3. Zein da mobbing-aren muina?
 - a) Pertsona bakartiak izatea.
 - b) Talde-lanerako balio ez izatea.
 - c) Bazterturik sentiaraztea.
4. Pertsona horien kaleratzeaz zer diote?
 - a) Gaixoak izanik, ezinezkoa dela.
 - b) Gaixoak direlako kaleratzen dituztela.
 - c) Ia beren kasa alde egiten dutela lanetik.
5. Noiztik gertatzen dira horrelakoak?
 - a) Orain baino lehen ere baziren.
 - b) Oso kontu berria da hori.
 - c) Garai bateko kontuak dira.

II. atala

6. Langileen kaleratzea dela eta, zer aldatu da garai batetik hona?
 - a) Orain jende gehiago kaleratzen dute.
 - b) Elkartasun gutxiago jasotzen dute orain.
 - c) Askoz ere gorragoa da orain sindikatuen erantzuna.

7. Lehiakortasunaz zer diote?
- a) Lehiakortasun-mota guztiak kondenatzen dituzte.
 - b) Ez duela aparteko loturarik mobbing-arekin.
 - c) Pertsonen arteko lehiakortasuna salatzen dute.
8. Mobbing-a eta pertsonaren ezaugarriak: ba al dago loturarik?
- a) Generoak edo sexuak badu zerikusia.
 - b) Langilearen jatorriak ez du eraginik.
 - c) Adinak lotura zuzena dauka.
9. Zerekin lotzen dute pertsona horien bazterketa?
- a) Pobreziarekin.
 - b) Langilearen ezaugarriekin.
 - c) Laneko egoerarekin.
10. Langileen arteko harremanez zer diote?
- a) Gero eta elkartuago jokatzen dutela.
 - b) Gero eta bakarrago aurkitzen direla.
 - c) Gero eta gehiago estimatzen dutela hierarkia.

2. IRAKURMENA

Mapak izenez eta kolorez bete zituzten zoro haiek

XIX. mendearen bigarren erdialdean oraindik asko ziren munduko mapan zuri zeuden lekuak, misterioz betetako inguruak, guztiz ezezagunak ziren lurraldeak... europarrentzat, jakina. Bidaiari, abenturazale eta esploratzaileen urrezko aroa izen zen hura, «deskubritzeko» mundu oso bat zuten europarrek (eta gero eta maila handiagoan estatubatuarrek ere) eta Ozeania, Asia eta bereziki Afrikako lurretara abiatu ziren mota guztietako esploratzaileak. Normalean asmo zientifikoak eta abenturaren deiak eragiten zituzten espedizio haiek, baina urteek aurrera egin ahala motibazio politikoek gero eta garrantzi handiagoa hartuko zuten. Urte haietan mundua tartapusketak bezala banatu zuten potentzia handiek eta oraindik ere oso ondorio larriak dituen egoera kolonialista indarrean ezarri zuten.

Testuinguru horretan, 1860an abian jarri zen Parisen *Le Tour du Monde*, egiten ari ziren esplorazioen berri emateko sortutako eta osoki bidaiari eskainitako lehen aldizkaria. «Gure arloa zabala da, mugagabea esan genezake. Kontua ez da soilki Lurra ez dela guztiz ezaguna eta egunero Afrikan, Asian, Ozeanian edo Poloetan aurkikuntza garrantzitsuak egiten zaizkigula. Hobekien esploratutzat jotzen ditugun eskualdeak ere azaletik baino ez ditugu ezagutzen. Lurbira osoa, mendez mende gizartean eta naturaren iraultzek eraldatua, etengabe aztertu beharra dago hainbat aldetatik». Horrela, laburbiltzen zuen argitalpenaren espiritua bere zuzendari Edouard Chartonek lehen zenbakian, 1860ko ekainaren 30ean.

Esploratzaileek berek idatzitako testuek osatzen zuten artikuluen ardatz nagusia, lehenengo pertsonan egindako kontakizun biziak ziren argitalpen frantziarrak bere irakurleei eskaintzen zizkienak, batzuetan aurkikuntza garrantzitsuenen albisteak, beste batzuetan, berriz, esploratzaileek berek puztutako abentura sinesgaitzak.

Afrika izan zen espedizio gehienen helburu nagusia, XIX. mendearen erdialdean kontinente horren inguruan ezagutzen zena oso gutxi baitzen, eta bere izena abenturarekin lotzen zen. Esploratzaileen artean Niloko iturburu aurkitzea ia obsesio bihurtu zen eta batek baino gehiagok bizia galdu zuen saiakeran. Speke kapitainak aurkitu zuen 1863an. Berak lortu zuen lehenik mendeetako helburua: ibai sakratuaren iturburuetako lurra ikustea, eremu ekuatorialetako oztopo ezezagunak gainditzea, baita Niloren goi arroak ezagutzea ere.

Baina testuak argigarriak izanda ere, *Le Tour du Monde*ren altxorrik handiena zenbaki bakoitzean agertzen diren grabatuak dira, testuetan kontatzen dena irudien bitartez agertzen duten artelan zoragarriak. Hainbatetan bidaiariak berek egiten zituzten marrazkiak eta, lehen aipatu moduan gertaerak puzteko joera zegoen horietako askotan, baina beste batzuetan garaiko ilustratzaile onenak ziren aldizkaria edertzen zutenak: Karl Girardet, Victor Adam, Gustave Doré...

Bidaiei buruzko artikulu horietan garaiko pentsamoldea oso ongi islatzen da, mundua herri nagusien artean banatzeko egin zen Berlingo bilkura famatuaren aurreko urteetan Europak bere zilberrari begiratzen zion. Orduko pentsaera eta kontakizunak oso arrazistak dira, erabat eurozentrikoak, oso argi ikusten da mundua ez dela existitzen europar bat hara iritsi arte. Absurdua da esatea Niloko iturria zein den arinago ezagutu duena, hura ezaguna baitzuten betidanik inguruan bizi zirenek, baina garai horietan europar bat iritsi arte ezer ez da ezaguna.

Gaurko ikuspegitik begiratuta, ez zaigu horrenbeste inporta hori guztia fidagarria den ala ez. Europarrek zer jasotzen zuten islatu nahi dugu guk, zelan ikusten zuten mundu handi hori XIX. mendearen erdialdean. Horretarako, irudiak bezalakorik ez dago. *Le Tour du Monde* ez zuen irudi falta eta, horregatik, hura ilustratzen zuten grabatuak oso baliotsuak dira. Batzuk bidaiariak zuzenean egiten zituzten eta beste batzuk bidaiariak emandako informazioarekin, Parisen. Betiere sekulako maila ikusten da ilustrazioetan, garai hartako grabatzaileak onenak aritzen ziren bertan lanean eta hori nabari da. Hainbat esku nabaritzen dira hainbat erreportajetan, baina betiere goi mailako ilustrazioak dira.

Le Tour du Monde aldizkariaren hasierako urteetako zenbakietan euskaldunen kontakizunik agertzen ez den arren, garai horretako hiru esploratzailearen aipamena egin behar da: Jose M^a Murga, Anton Abbadia eta Manuel Iradier. Haiek ere munduan barna ibili ziren eta abentura nahiko handiak izan zituzten.

GONTZAL AGOTE, *Nabarra* aldizkaria, 30. zkia. (moldatua)

1. Zergatik izan zen XIX. mendean bigarren erdialdea bidaiari, abenturazale eta esploratzaileen garairik onena?
 - a) Munduaren zati handi bat deskubritzeko zegoelako.
 - b) Mapak aldatu nahi zituztelako.
 - c) Urruneko lurraldeen istorioak egiaztatzeagatik.
 - d) Ozeanian, Asian eta Afrikan zientifikoak behar zirelako.

2. Hasieran zerk bultzatzen zituen abenturazale eta esploratzaile haiek?
 - a) Koloniak bereganatu nahi izateak.
 - b) Motibazio politikoak.
 - c) Leku eta paisaia berriak ikusi nahiak.
 - d) Aurkikuntza zientifikoak eta ezezaguna ezagutzeak.

3. Zer izan zen Le Tour du Monde?
 - a) Hainbat esploratzailek munduari eginiko bira.
 - b) Esploratzaileei eta bidaiei buruzko aldizkari bat.
 - c) Afrika, Asia, Ozeania eta Poloetan bidaiak antolatu zituen Parisko erakundea.
 - d) Edouard Chartonek 1860an Paristik abiatu eta zuzendu zuen lehen espedizioa.

4. Nolako istorioak azaltzen ziren argitalpen frantziarrean?
 - a) Espedizioen kronikak ziren.
 - b) Esploratzaileek beren laguntzaileei kontatzen zizkietenak.
 - c) Argitaletxeak esploratzaileei entzundakoak.
 - d) Esploratzaileen asmoak.

5. Zer gertatu zen Speke kapitainarekin?
 - a) Historian zehar askoren ametsa izan zena bete zuen.
 - b) Niloren iturburua ez, baina goi arroak aurkitu zituen.
 - c) Niloren iturburuekin obsesionaturik bizi izan zen hil artean.
 - d) Ibai sakratuaren inguruan bertakotu zen.

6. Zein da Le Tour du Monderen ezaugarririk baliotsuena?
 - a) Artikuluen zientifikotasuna.
 - b) Esploratzaileen esperientzia harrigarriak ilustratuak izatea.
 - c) Esploratzaileen gertaera puztuek irakurleengan sortzen zuten harridura.
 - d) Kontakizunen literatura-balioa.

7. Zer erabaki zen Berlingo bilera famatuan?
 - a) Mundua partitzea orduko potentzien artean.
 - b) Afrika banatzeko plana.
 - c) Eurozentrismoa ezarri zen.
 - d) Garaiko pentsamolde ekonomikoa ezarri zen.

8. Zer dio testuak Niloko iturburuaz?
 - a) Europarrek ezagutu zutela lehenik.
 - b) Bertakoek ezagutzen zutela lehendik.
 - c) Nilo ibaia ez zela existitzen europarrak hara iritsi arte.
 - d) Oso fidagarria dela europarrak bertatik jasotako informazioa.

9. Zein da **gezurra** ilustrazioei buruz?
 - a) Hainbatetan bidaiariak berek egiten zituztela.
 - b) Zenbaitetik Afrikan egon barik entzunez sortzen zituztela.
 - c) Parisen egiten zirela denak han editatzen zelako Le Tour du Monde.
 - d) Artista askok parte hartu arren, denak on-onak zirela.

10. Zer dio testuak euskal esploratzaileei buruz?
 - a) Afrikan egon zirela.
 - b) Speke kapitainaren garaikideak izan zirela.
 - c) Le Tour du Monde hasierako zenbakietan ez zituela aipatu.
 - d) Ez zirela nabarmendu eginiko espedizioetan.

3. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 150 hitz izan behar ditu gutxienez.

Eskaera. Ikasle batek mugikortasun-arazoak ditu, baina eskolak hainbat oztopo arkitektoniko ditu. Idatzi eskolako zuzendariari:

- arazoaren berri eman ez
- aldaketa batzuk arrazoituz
- eskaera zehatzak eginez

4. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 250 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

1.– Janari lasterra. Sukaldaritza berriaz asko hitz egiten da, baina gero sandwichak, hanburgesak, janari prestatuak... jaten ditugu. Zer iritzi duzu jateko modu horretaz? Zer ari gara irabazten eta zer galtzen? Beste gizarte-aldaketa batzuekin lotuta dator gertaera hori?

2.– Kanpotik gero eta gehiago. Atzerritarrak asko ugartu dira gure kaleetan eta lantegietan.

- a) zein da zuk ezagutzen duzun egoera?
- b) nola integratu behar dira?
- c) arazorik sortzen al dute?
- d)

AHOZKO PROBAK

AHOZKO PROBA
HE1.

Bi ariketa ditu proba honek:

1. GAI-AZALPENA
2. ELKARRIZKETA

20 minutu izango dituzu prestatzeko.

1. GAI-AZALPENA

- Bi aldiz entzungo duzu 4-5 minutuko testua.
 - Entzun ahala, oharrak hartu.
 - Ideiak antolatu eskeman.
- Entzundakoaz gain, erabili zenitzake gaiarekin lotutako **esperientzia, ezagutza eta bizipenak**.
- **5 minutu** inguru hitz egin behar duzu.
- Eskema erabil zenezake, baina ez irakurri aurrez prestatutako testu-zatirik.
- Zeuk kudeatu behar duzu ariketa hori.

Kontuan hartuko da

- Entzundakoa ongi azaltzea.
- Gertaerak eta esperientziak eroso komunikatzea.
- Ahoskera, doinua eta erritmoa.
- Joskera eta hiztegia.
- Zuzentasuna

2. ELKARRIZKETA

- Azterketan bertan emango dizute gaia.
- Aztertzaileak egingo dizkizu galderak, eta zuk horietako bakoitzari jarraitu.
- 5 minutu inguru hitz egin behar duzu.

Kontuan hartuko da

- Elkarrizketan parte hartzeko erraztasuna.
- Gertaerak eta esperientziak eroso komunikatzea.
- Ahoskera, doinua eta erritmoa.
- Joskera eta hiztegia.
- Zuzentasuna

Oharra: epaimahaian

- nortasun-agiria erakutsi behar duzu.
- erabilitako materiala itzuli behar duzu

ADIBIDEAK

GAI-AZALPENEAN

- Loaldia (ikus CDa)
- Fermin Muguruza (ikus CDa)

ELKARRIZKETAN

- Adoptatutako haurrak
- Sakelako telefonoak
- Bizitzeko, herria ala hiria?

Hona hemen, adibide modura, epaimahaiak Elkarrizketa gidatzeko erabiltzen dituen gidoietariko bat:

HEleko ELKARRIZKETA

Adoptatutako haurrak

Gero eta gehiago gure gizartean, ezta? Beraz, horretaz hitz egingo dugu elkarrizketa honetan.

1. Ezagutzen duzu adoptatutako haurrik zure inguruan? Nongoa?
2. Garai batean (zu txikia zinenean) ba al zen adopzioerik?
Ezagutzen duzu kasuren bat?
Nongo haurrak adoptatzen ziren?
3. Zer dela-eta gaur egun hainbeste adopzio?
4. Nongo haurrak adoptatzen dira gaur egun? Badakizu zergatik?
5. Gaur egun adoptatzeko ez da derrigorezkoa gizon-emakumezko bikotea osatzea, ezta?
6. Ezagutzen duzu horrelako kasurik? Zer iruditzen zaizu?
7. Adoptatu nahi duen bikote batek prozesu bat jarraitu behar izaten du, ezta ?
Badakizu zein den prozesu hori?

AHOZKO PROBA
HE₂.

Bi ariketa ditu proba honek:

1. GAI-AZALPENA
2. ELKARRIZKETA

30 minutu izango dituzu prestatzeko

1. GAI-AZALPENA

- Bi aldiz entzungo duzu 6-8 minutuko testua.
 - Entzun ahala, oharrak hartu.
 - Ideiak antolatu eskeman.
- **7 minutu** inguru hitz egin behar duzu.
- Eskema erabil zenezake, baina ezin izango duzu irakurri aurrez prestatutako testu-zatirik.
- Entzundakoaz gain, gai horretaz daukazun esperientzia eta iritzia ere balia zenitzake.
- Zeuri dagokizu ariketa hori kudeatzea.

Kontuan hartuko da

- Azalpena ongi antolatzea.
- Ideiak argi eta erraz azaltzea.
- Ahoskera, doinua eta erritmoa.
- Joskera eta hiztegia.
- Zuzentasuna

2. ELKARRIZKETA

- Prestagelan emango dizute gaia.
- Aztertzaileak egingo dizkizu galderak, eta zuk horietako bakoitza garatu behar duzu.
- **7-8 minutu** inguru hitz egin behar duzu.

Kontuan hartuko da

- Ideiak eta kontzeptuak adierazteko baliabideak eta erraztasuna.
- Iritzia emateko erraztasuna.
- Ahoskera, doinua eta erritmoa.
- Joskera eta hiztegia.
- Zuzentasuna

Oharra: epaimahaian

- nortasun-agiria erakutsi behar duzu
- erabilitako materiala itzuli behar duzu

ADIBIDEAK

GAI-AZALPENEAN

- Mundukide fundazioa (ikus CDa)
- Ukimena (ikus CDa)

ELKARRIZKETAN:

- Genero-indarkeria
- Berotegi-efektua
- Homosexualak eta adopzio.

Hona hemen, adibide modura, epaimahaiak Elkarrizketa gidatzeko erabiltzen dituen gidoietariko bat:

HE2ko ELKARRIZKETA

Genero-indarkeria

Elkarrizketa egingo dugu orain, eta hauxe da gaia: «Genero-indarkeria». Nik galderak egingo dizkizut eta zuk erantzun. Hartu denbora pentsatzeko eta gauzak era batera eta bestera esateko, zuzentzeko, adibideak jartzeko etab.

1. Hasteko: ezaguna egiten al zaizu gaia? Gaurkotasunik ba al du?
Zehaztu dezagun **kontzeptua**: genero-indarkeriaz ari garenean, zertaz ari gara?
2. Horrelako kasuetan, ia beti, **emakumea galtzaile eta biktima**, ezta? Zergatik ote da hori? Gizonezkoak han basatiak ote dira?
3. Eraildako emakumeen %70 bikotekideak hil ditu. Nola esplikatu?
4. Esaten da **emakumeek salatu** egin behar dituztela horrelako kasuak eta erasotzailerak behar bezala zigortu. Zer esan?
5. Biktimak emakumeak izanik, borroka ere euren al da bakarrik?
6. **Heziketaz** hitz egin dezagun. Urteak daramatzagu eskoletan neska-mutilak berdinean hezi nahian, ezta? Ondorioak ikusten al ditugu? Sentiberago al dira oraingo gazteak?
Familiak zer egin lezake? Ezer egiten al da? Ala eskolaren gain uzten dugu?
7. Familiak zer egin lezake?
8. Badira **neurriak gogortzearen** aldekoak ere. Justiziak nahikoa egiten al du?
Fede gehiago al daukazu horretan, heziketan baino?

**AHOZKO PROBA
HLEA.**

Bi ariketa ditu proba honek:

1. GAI-AZALPENA
2. ELKARRIZKETA

30 minutu izango dituzu prestatzeko

1. GAI-AZALPENA

- Bi aldiz entzungo duzu 6-7 minutuko testua.
 - Entzun ahala, oharrak hartu.
 - Ideiak antolatu eskeman.
- **7 minutu** inguru hitz egin behar duzu.
- Eskema erabil zenezake, baina ezin izango duzu irakurri aurrez prestatutako testu-zatirik.
- Entzundakoaz gain, gai horretaz daukazun esperientzia eta iritzia ere balia zenezake.
- Zeuri dagokizu ariketa hori kudeatzea.

Kontuan hartuko da

- Azalpena ongi antolatzea.
- Ideiak argi eta erraz azaltzea.
- Ahoskera, doinua eta erritmoa.
- Joskera eta hiztegia.
- Zuzentasuna

2. ELKARRIZKETA

- Han bertan emango dizute gaia.
- Aztertzaileak egingo dizkizu galderak, eta zuk horietako bakoitza garatu behar duzu.
- **7 minutu** inguru hitz egin behar duzu.

Kontuan hartuko da

- Ideiak adierazteko baliabideak eta erraztasuna
- Iritzia emateko erraztasuna.
- Ahoskera, doinua eta erritmoa.
- Joskera eta hiztegia.
- Zuzentasuna

Oharra: epaimahaiari

- nortasun-agiria erakutsi behar duzu.
- erabilitako materiala itzuli behar duzu

ADIBIDEAK

GAI-AZALPENEAN

- Ikerketa zientifikoa (ikus CDa)

ELKARRIZKETAN

- Gizentasuna
- Txakur arriskutsuak
- Saltokiak, jaiegunetan ere irekita

Hona hemen, adibide modura, epaimahaiak Elkarrizketa gidatzeko erabiltzen dituen gidoietariko bat:



HLEAko ELKARRIZKETA

Gizentasuna

1. Zer ikusten duzu argazkian? Zer gertatu ote zaio? Zergatik ote dago horrela? (Hipotesiak egin)
2. Familia-ereduak izan lezake eraginik?(guraso bakarreko familia. Amaren arreta, diziplina ...)
3. Zer-nolako eragozpenak edo trabak izaten ditu horrelako pertsona batek?
4. Txikitan, eskolan bereziki, arazoak izango dituzte, ezta? Zer egin lezake hor eskolak?
5. Nori esaten diogu pertsona gizona? Muga non jarri?
6. Gizentasuna **gaixotasuna** ote da? Noiz izan liteke eta noiz ez?
7. **Eskubide** berezirik aitortu behar al zaie, bestelako elbarriei edo ezinduei bezala? Adibidez, zerbitzuetan, garraioan, lanean....
8. Amari haurraren zaintza kentzekotan egon dira. Zer arrazoi leudeke hori egiteko? Egokia al da hori?

**ZUZENKETARAKO
IRIZPIDEAK**

1. Kalifikazio-sistemaren azalpena

1.1 Erreferentzia nagusiak

Hezkuntzako Hizkuntza Eskakizunetan hiru maila daude ezarrita (martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua). Lehenik eta behin hizkuntza-eskakizun bakoitzaren mamia aipatu behar da.

- **HE1:** ez da euskara eta ez euskaraz irakasteko, baina euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabiltzeko gaitasuna garantizatzen du. Irakaslea gai izango da, besteak beste, honako hauek euskaraz egiteko:
 - ikasleekin taldeka edo bakarka eskolako arazoez (jokabidea, motibazioa, emaitzak, ikasleekin edo irakasleekin izandako arazoak, familiako arazoak etab.) hitz egiteko;
 - gurasoekin, irakasleekin, hezkuntza-administrazioako langileekin irakaslanarekin lotutako gaiei buruz aritzeko (eskolaren funtzionamendua, helburuak, ikasleei buruzko iritzia, ebaluaketarako irizpideak etab.)
- **HE2:** euskara edo euskaraz irakasteko gaitasuna bermatzen du. HE1eko trebetasunez gainera, honako hauek ere betetzeko gai izango da HE2duna:
 - bere alorreko irakaskuntza euskaraz eman ikasleei, bakarka zein taldeka, azalpen magistrala eginez zein gelan eztabaida sortuz eta jasotako galderei erantzunez;
 - eskolak prestatzeko materialak ulertu (argitalpenak, programa ofizialak, testu-liburuak, kontsulta-liburuak, artikulak, pelikulak, bideoak, zintak, irriati-programak...);
 - programa orokorrak eta bere alorrekoak euskaraz idatzi;
 - fitxak, apunteak, materialak, ariketak eta abar euskaraz idatzi;
 - ariketak zuzendu, txostenak idatzi eta bestelako balioespen-jarduerak.
- **HLEA:** Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez irakasleen eskakizuna da, HE1ekin batera. HE1eko trebetasunez gainera, honako hauek ere betetzeko gai izango da HLEAduna:
 - bere lanbidea zailtasun berezirik gabe euskaraz betetzeko gai izan behar du;
 - jatorrizko hiztunaren pareko edo hurbileko gaitasuna izan behar du ahozko adierazpenean, ikasleekin, irakasleekin edo gurasoekin hitz egiteko.
 - bere txostenak euskaraz idatzi behar ditu, bai ikasleei eta bai lanean ari diren programei buruz.

Oro har Hizkuntza Eskakizunen inguruko arazuko erabaki nagusiak ondoko hauek dira:

Sorrera: 47/1993 Dekretua, martxoaren 9koa, 1993ko apirilaren 2ko EHAAn

Baliokidetzak: 263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, 1998ko urriaren 23ko EHAAn:

Lehen Irizpideak : 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua, 1994ko urtarrilaren 26ko EHAAn

Kalifikazio-sistema deialdi itxietan: 1995eko apirilaren 10eko Agindua, 1995eko maiatzaren 11ko EHAAn

Kalifikazio-sistema deialdi irekietan: 1998ko urriaren 22ko Agindua, 1998ko azaroaren 5eko EHAAn

HLEA hizkuntza-eskakizuna: 66/2005 Dekretua, apirilaren 5koa, 2005eko apirilaren 14ko EHAAn

1.2. Deialdi irekia

Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da deialdi irekiaren kalifikazio-sistema. Aipamen asko HE1 eta HE2ri buruzkoak dira. HLEAren kasuan, zati idatzian HE1en eskemari jarraituko zaio eta ahozkoan HE2renari, beti ere hizkuntza-eskakizun honi dagozkion ezaugarri bereziak kontuan hartuta: bere bezeroaren kualifikazioa, arauz dagokion eskakizun-maila etab.

Deialdi irekiak hiru proba ditu: lehenengoa Aukera Anitzeko Galdekizuna da. Bigarrenak Irakurmena eta Idazmen-ariketak biltzen ditu, eta baita Ahozkoaren Ulermena ere HE1ean eta HLEAn. Hirugarren proba Ahozkoa da. Proba bakoitza baztertzailea da eta GAI edo EZ GAI moduan kalifikatzen da.

Lehen proba honela kalifikatzen da:

LEHEN PROBA	HE1/HE2/HLEA
Puntuak	70
Gainditze-muga	45

Bigarren proba honela kalifikatzen da:

BIGARREN PROBA	HE1/ HLEA	HE2
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	ariketarik ez
Irakurmena	Otik 5era	Otik 10era
	Oso Gutxi 1	Oso Gutxi 1
Idazlan Laburra	Gutxi 2	Gutxi 2
	Nahikoa 4	Nahikoa 4
	Ongi 6	Ongi 6
	Oso Ongi 8	Oso Ongi 8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi 5	Oso Gutxi 5
	Gutxi 10	Gutxi 10
	Nahikoa 15	Nahikoa 15
	Ongi 20	Ongi 20
	Oso Ongi 25	Oso Ongi 25
Gainditzeko	24 puntu	24 puntu

Ikusten den bezala, idazlanek pisu handia dute. Idazlanak zuzentzeko berariazko baremoak erabili dira (ikus aurrerago zuzenketarako irizpideak, baremoak etab.)

Hirugarren proba, hau da, Ahozkoa, Gai edo Ez Gai kalifikatzen da

1.3. Deialdi itxiak

Kalifikazio-sistema zehatza ezagutzeko ikus 1995eko apirilaren 10eko Agindua liburu honen eranskinetan: «Arauzko erabakiak». Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da sistema hori.

Deialdi itxiko azterketak bi proba ditu: Idatzizkoa eta Ahozkoa; ez dago, beraz, alde zuzeneko Aukera Anitzeko Galdekizunik. Azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu behar dira.

IDATZIZKO ZATIA	HE1/ HLEA	HE2
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	ariketarik ez
Irakurmena	Otik 5era	Otik 10era
	Oso Gutxi 1	Oso Gutxi 1
Idazlan Laburra	Gutxi 2	Gutxi 2
	Nahikoa 4	Nahikoa 4
	Ongi 6	Ongi 6
	Oso Ongi 8	Oso Ongi 8
	Bikain 10	Bikain 10
Idazlan Luzea	Oso Gutxi 5	Oso Gutxi 5
	Gutxi 10	Gutxi 10
	Nahikoa 15	Nahikoa 15
	Ongi 20	Ongi 20
	Oso Ongi 25	Oso Ongi 25
	Bikain 30	Bikain 30
Gainditzeko	24 puntu	24 puntu

Gero, lortutako puntuaziotik idatzizko azterketaren nota ateratzen da, bai HE1ean bai HE2an eta bai HLEAn

PUNTUAK	IDATZIAREN KALIFIKAZIOA
0-10	Oso Gutxi
11-23	Gutxi
24-32	Nahikoa
33-40	Ongi
41-45	Oso Ongi
46-50	Bikain

Ahozko zatian kalifikazio hauetariko bat ipintzen zaio azterketariari: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. **Nahikoa** lortu behar da gainditzeko.

Azterketaren nota orokorra

Eskakizun azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu behar dira: Idatzizkoa eta Ahozkoa. Beraz, zati batean Gutxi edo Oso Gutxi atereaz gero, azterketaren nota orokorra ere Nahikotik beherakoa izango da. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipintzen da, bai Idatzizko zatia bai Ahozkoa kontuan hartuta: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. Zalantzako kasuetan ahozko zatia gehiago balioesten da.

Azken emaitza

Azterketak zuzendutakoan Azterketa-batzorde txiki bat osatuko da Batzorde-burua, Idazkaria eta beste lau zuzendakariekin. Azken emaitza ipiniko zaio azterketari bakoitzari: azterketa gainditu duenari **Gai**, eta gainditu ez duenari **Ez Gai**.

Batzordeño honek zalantzazko kasuak berraztertuko ditu, Etengabeko Ebaluazioaren emaitzak kontuan harturik. Honako hauek dira zalantzazkoak:

- Idatzian 22 edo 23 puntu lortu dituztenak (beti ere Idazlan bat eta Ahozko proba gaindituta badituzte).
- Mintzameneko kasu bereziren bat (beti ere Idatzia gaindituta badu).

2. Idazlanak

Bost mailatan egingo da testuaren balorazioa:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. <i>Adierazpen-maila</i>	– Testuaren maila orokorra, kalitatea
2. <i>Koherentzia</i>	– Informazioa edo edukia, gaiarekiko lotura
3. <i>Kohesioa</i>	– Testuaren artikulazioa, esaldiez gaineko loturak
4. <i>Zuzentasuna</i>	– Arau morfosintaktikoen eta ortografikoen erabilera zuzena
5. <i>Lexikoa</i>	– Lexikoaren aberastasuna, zehaztasuna, egokitasuna

Ondoren irizpide xeheagoak eskaintzen dira azterketa-maila bakoitzerako:

2.1. Adierazpen-maila

Lehen balioespen orokorra da. Hizkuntza Eskakizunen ebaluaziorako irizpideen artean, besteak beste, honako hauek aipa litezke idazmenari dagokionez:

HE1	HE2	HLEA
<p><i>Era askotako hartzaileei (lankideei, gurasoei, ikasleei) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-asmo jakinekin, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz.</i></p> <p><i>Ikasketariak bere irakasleengan dituen hizkuntza-egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatuko da. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanaz. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiazko zalantzak argitu ahal izateko</i></p>	<p><i>Irakaslea hainbat testu-mota (argibideak, aktak, txostenak, eskutitzak...), eta bere ikasmaterialak zuzen eta argi erredaktatzeko gai izango da</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez ikasketariak ekoizten dituen testuetan hizkera idatzia-ren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzena, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.</i></p>	<p><i>Gai izango da zuzentasunez eta argi idazteko bere lanbideari dagozkion hainbat testu-mota (oharrak, eskutitzak, argibideak, txostenak...).</i></p> <p><i>Eguneroko lanean dituen hizkuntza-egoera arruntei egokitzen zaizkien testuak idazteko gauza den ala ez egiaztatuko da. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez idatzi, eta testuari barne-lotura argia eman</i></p>

Hizkuntza-maila / Kalitatea

Aztertzailleak azterketari baten idazlana baloratzean galdera nagusi batzuei erantzun behar die: Noraino da ulergarria testua? Komunikazioa lortzen al du? Idazlearen asmoa argi harrapatzen da? Eskatzen zaion kalitatea eta hizkuntza-maila badu ala ez?

Izan ere, testuetan zenbait hutsegite eta gabezia izan ohi dira, testua ulertzeko oztopo bilakatzen direnak eta, batzuetan, komunikazioa zapuzteraino iristen direnak, hala nola, ideia ilunak edo errepikatuak, informazioaren desordena, gramatika eta ortografia-akatsak, adierazpen teknikoegiak edo arruntegiak eta abar.

Baliabide espresibo orokorrak

Hizkuntza sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa balioetsiko da.

Idazlearen ausardia, testuaren elaborazio-maila, orijinaltasuna.

2.2. Koherentzia: informazioaren aukeraketa eta egituraketa

Atal honetan *idazlanaren adierazia* kalifikatuko da; hots, azterketariak eskaintzen duen informazioaren egokitasuna eta kalitatea, batetik, eta beronen ordena, zehaztasun eta xehetasun-maila, egituraketa... bestetik.

Informazioaren kantitatea eta kalitatea

– Kantitatea

Mezua ulertzeko behar diren datu guztiak, eta horiek bakarrik, ematen diren ala, alderantziz, informazio gehiegi edo gutxiegi ematen den begiratuko du aztertzailleak.

Informazio gehiegi salatzen dutenak	Informazio gutxiegi salatzen dutenak:
<ul style="list-style-type: none">– Errepikapenak– Erredundantziak– Datu hutsalak idazlanaren xederako– Betelana	<ul style="list-style-type: none">– Hutsarteak adierazian– Auresuposizio edo datu implizitu gehiegi, hartzaileak zertan jakin ez dituenak

– Kalitatea

Testuan eskaintzen den informazioa ona ala eskasa den begiratuko du aztertzailleak. Jakina, idatzitakoak proposatutako gaiarekin lotura argia behar du; bestela, idazlanaren kalifikazioa «Gutxi»tik beherakoa izango da eta aztertzailleak zirkunstantzia horren berri emango du puntuazio-orrian. Oro har, honela deskriba litezke bi muturrak:

Informazio ona	Informazio eskasa
Ideia osabeteak, argiak, ulergarriak, zehazki formulatuak. Berehalaxe antzematen da esan nahi duena. Gaiarekin lotua.	Ideia osagabeak, ilunak, ulergaitzak; enuntziatu generikoegiak. Irakurleak esanahia berregin behar du edo hipotesiak egin behar ditu testuan esplizituki adierazten ez dena ulertu ahal izateko. Agian gaiarekin lotura falta.

Informazioaren egitura / Paragrafoak

Ondoren deskribatzen diren bi muturretatik, testua zeinetara makurtzen den zehazten saiatuko da aztertzailea:

Informazioaren egitura egokia	Informazioaren egitura eskasa
<p>Datuen aurkezpenak alde zuzenetik era-bakitako ordena baten arabera erakusten du (kronologikoa, espaziala, kausa-ondorioa, orokorretik xehera...). Informazio berria era progresiboan aurkezten da.</p> <p>Parrafoek ideia oso bana garatzen dute, beste parrafoetako ideietatik ondo bereizirik; puntu eta aparte mugaturik ageri dira.</p>	<p>Datuen aurkezpena ordena gabekoa da edo gorabehera handiak erakusten ditu. Informazioa nahas-mahas ematen du.</p> <p>Parrafoek ez dute osotasun-batasunik erakusten. Ideien garapena askotan eten egiten da edo han-hemenka, paragrafoen artean barreiatuak edo errepikatuta ager liteke. Puntu eta aparteak ausaz ezartzen direla dirudi.</p>

Egokitasuna / Erregistroa

Gaiaren testuingururako adierazpen arruntegiak agertzen dira batzuetan. Besteetan, berriz, erregistro formalegia erabili ohi da. Adierazpen batzuk gaiarentzat baldregegi / arruntegi edota teknikoegi / konplexuegi izaten dira. Gerta liteke, orobat, idazlearen tonua familiarregia, zuzenregia edo urrunegia izatea jasotzailea zein den kontuan harturik.

Adib.: eskola bateko ikasleen gurasoei idatzitako komunikazioaren batean «*kaka burutik behera egiten die zuen semeak zaindariei*» (nahi duena egiten duela adierazteko), adierazpen lagunartekoegia litzateke; eta «*Gure ikasle estimatuen guraso zareten jaun-andre agurgarrioi begirunez zuzentzen natzaizue...*» bezalako adierazpenak, aldiz, formalegiak.

2.3. Kohesioa: testuaren artikulazioa

Atal honetan aztertzaileak *edukia azaltzeko moldeari* begiratuko dio, testua osatzen duten elementuen arteko kohesio-mekanismoen edo formen ikuspegitik (izenordainak, erakusleak, mugatzaileak, sinonimoak, loturak...)

Aztertzaileak bere arreta nora zuzendu behar duen erakusten du ondoko gida honek:

Erreferentzia-mekanismoak

Kate idatzian agertzen diren elementuak aurretik edo atzetik esandakoarekin erlazionatzeko dauden mekanismoak ongi erabilia dauden aztertuko da. Era berean, egoeraren testuingurua osatzen duten elementuak (pertsonea, lekua, denbora) eta beren erreferentziak ondo josita dauden behatuko da:

– Ordezkapen lexikala

- *Sinonimoen bidez* (aurretik aipatutakoari eremu semantiko berdintsua duen beste hitz batez erreferentzia egitea). Adib.: *Eskola, ikastetxe, ikastegi, zentro...*
- *Hiperonimoen bidez* (eremu semantiko zabalagoa duten hitzak edo hitz multzoak). Adib.: *Ziklista > kirolari // Testu-liburu > baliabide didaktiko...*
- *Parafraasiaren bidez* (kontzeptu baten baliokide semantikoa den egitura sintaktikoa). Adib.: *Gor > entzuten ez duen pertsona*

– Elipsia edo elementuren bat ezabatzea:

Adib.: *Ane ez da etorri. (Ane) Gaixorik dago.*

– Determinatzaileak:

Artikulua (-a, -ak, -ok); «bat» eta gainerako **zenbatzaileak**; **erakusleak** (*hau, hura...*) eta abar. Hauek guztiek era askotako erlazioak ezartzen dituzte hitzen eta erreferentzien artean: ezaguna/ezezaguna, igorlea/hartzailea, hurbil/urrun...

– Deiktikoak:

Denbora, pertsona eta espazio-harremanak ezartzen dituzte. Egoera komunikatiboaren testuingurua zehazten dute:

- **Pertsona:** igorlea (*ni, nire, nirekin...; gu, gure...*). Hartzailea (*zu, zure, zurekin...; zuek, zuen...*)

- **Lekua:** *hemen, hor, han...*

- **Denbora:** *orain, lehen, gaur, orduan, beranduago...*

Adib.: «*Bihar bidaliko dizut atzo eskatu zenidana, hemen sobran baitaukat hor behar duzuna*»

Loturak (lokailuak eta gainerako testu antolatzaileak)

Testuko esaldien artean erlazio logikoak (kausa-ondorioak, ordena, aurkaritza...) ezartzen dituzten lokailuak eta gainerako testu-antolatzaileak dira aztergai. Adibidez:

<p>Emendiozkoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • komak • eta • ere, ere bai, baita... ere • ere ez, ezta ere • gainera • orobat • honez, horrez gain(era) • halaber 	<p>Kausa-ondorioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • beraz • hortaz • honenbestez, horrenbestez... • ondorioz • izan ere • horregatik • hau, hori dela eta 	<p>Ordena</p> <ul style="list-style-type: none"> • lehenik, bigarrenik... • bat, bi... • hasteko • lehenengo eta behin • ondoren • gero • azkenik • amaitzeko
<p>Aurkaritzakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • baina • ordea • berriz • aldiz • dena den • hala ere 	<p>Konparazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • era berean • modu berean • berdin • bestalde • bestera 	<p>Adibide ematea</p> <ul style="list-style-type: none"> • adibidez • esate baterako • hau da • hots • hala nola • bestela esanda • alegia
<p>Espazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • goian • behean • gorago • beheiago • hemen, hor, han 	<p>Denbora</p> <ul style="list-style-type: none"> • aldi berean • beranduago • bien bitartean • honezkero, harrezkero • artean • ondoren 	<p>Egiaztapena/ laburpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • laburtuz • hitz gutxitan • bestela esanda • izan ere

2.4. Zuzentasuna: morfosintaxia, ortografia

Kontuan hartzekoak:

HE1
<i>Mezuaren ulergarritasunerako ondorio larririk ez duten akats ortografiko eta morfosintaktikoak izan litzake.</i>

HE2
<i>Akats ortografikoak eta morfosintaktikoak oso urriak dira</i>

HLEA
<i>Mezuaren ulergarritasunerako ondorio larririk ez duten akats ortografiko eta morfosintaktikoak izan litzake</i>

Ildo honetatik, aztertzaileak ondoren zehazten direnak hartuko ditu kontuan:

Morfosintaxia /Akatsak

Errakuntza morfosintaktiko bakan batzuk onargarriak badira ere, akats larriak sistematikoki egiten baditu edo, sistematikoak izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berri huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari.

Akatsen balioespena

Azterketariak idazlanetan nahiz ahozko probetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo «larriak» eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Ez dira, beraz, denak berdin baloratuko. Akats baten garrantzia hiru irizpide nagusi hauen arabera baloratuko da:

1. Noraino oztopatzen duen mezuaren ulergarritasuna. Larriagoak dira gaizki-
ulertuak sortzen eta mezuaren harrera galarazten dutenak ulergarritasunean ondoriorik
eragiten ez dutenak baino. Azken hauek garrantzi gutxiagokoak dira, irizpide soil honi
dagokionez.

2. Zein den akatsak ukitzen duen hizkuntza-sistemaren egitura. Irizpide honen
arabera, larriak dira oinarrizko arau morfosintaktiko edo ortografikoetan eta maiztasun
handiko hitzetan egiten direnak. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko
konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.

3. Noraino den sistematikoa. Akats batzuk jarduerazkoak dira, alegia, urdurita-
sunak, estuasunak edo arreta faltak eragindakoak; beste batzuk, berriz, egitura
morfosintaktikoren baten kontrolik ezak eragindakoak. Lehenengoak ez dira sistema-
tikoak izaten eta, askotan, azterketariak berak zuzentzen ditu idazlana berrirakurtzean
(edo esandakoaren berrantolaketak eginez, hizketan ari denean). Hauek ez dute,
beraz, aparteko garrantzirik, neurritz gertatzen badira. Bigarrenak, ordea, sistema-
tikoagoak izaten dira eta garrantzitsuagoak, arau morfosintaktiko, ortografiko edo
lexiko-item jakin batzuen kontrol osagabea erakusten baitute.

4. Akatsak hizkuntza-trebetasunen eta Hizkuntza Eskakizunen arabera. Oro har,
akatsen garrantziari nahiz kopuruari dagokienez, HE2an HE1ean baino zorrotzago
jokatuko da; eta HLEAn bien arteko erdibidea aukeratuko da, baina HE1etik hurbila-
gokoa. Hizkuntza Eskakizun beraren barnean, berriz, idazlanetan zorrotzago jokatuko
da eta ahozko azalpenetan malguago.

Ondoko tauletan idazmenean behinik behin larritzat jotzen diren hainbat akats ema-
ten dira, adibide gisa:

Aditza

Akatsak	Adibideak
– Aditzaren komunztadura ez errespetatzea.	– <i>Gizonak ikusi dut</i> – <i>Liburu batzuk erosi zuen</i>
– Laguntzaile-mota gaizki hautatzea.	– <i>Kalean ikusi dit</i> – <i>Zer ipintzen da liburuan?</i> – <i>Kezkatzen zait</i> – <i>Hau gaizki funtzionatzen da</i>

<ul style="list-style-type: none"> - Aditzaren aspektua, tempusa (hipotetikoa barne) edota modua gaizki erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Atzo gelan egoten ginen (egon ginen)</i> - <i>Garaiz heldu nahi nuen, baina ezin dut (ezin izan dut)</i> - <i>Lehen esan nuen bezala (esan dudan)</i> - <i>Orain pozik egingo nuen (egingo nuke)</i> - <i>Esango banioke (esango banio)</i> - <i>Sartu zarete barrura! (zaitezte)</i> - <i>Goaz etxera!</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Ordena gaizki. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ez nahi du etorri</i> - <i>Joango behar du</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Nominalizazioak gaizki egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ez daki patata tortila egitea</i> - <i>Programatzera ikasi du</i> - <i>Jotzera hasi da</i> - <i>Mendira joan gustatzen zaio</i> - <i>Etxera joatea agindu zion</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Partizipioari lotzen zaion <i>-ta</i> atzizkiari pluralaren marka edo beste edozein marka erastea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Nekatutak gaude</i> - <i>Itxitago nahi dut</i>

Deklinabidea, sintaxia...

Akatsak	Adibideak
<ul style="list-style-type: none"> - Determinatzailearen inguruko akatsak. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Mutila hori</i> - <i>Mutilak hauek</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait kasuren erabilera okerra: ergatiboa, -(r)ik, -(r)entzat,... 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Hori ez du balio</i> - <i>Ez daude gailetarik</i> - <i>Hori gurentzat da</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Izen propioak. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Nekanearekin etorri da</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Bizidun / bizigabeak. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Txakurrera hurbildu</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Mugagabea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Zenbait liburuak</i> - <i>Edozein mutilari</i>
<ul style="list-style-type: none"> - <i>-a</i> itsatsia. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Tontakeri bat</i> - <i>Lau pertson</i>
<ul style="list-style-type: none"> - «ere» partikularen erabilera okerrak. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ere bai esan zuen</i> - <i>Bilbon egon naiz eta Donostian ere</i> - <i>Ez dut ezer ere ez egin</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Erlatibozko perpausak 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ezagutzen dut gizon bat Parisen bizi dela</i>

- Konpletiboak edota zehar-galderak gaizki egitea.	- <i>Uste dut hori ez da ona</i> - <i>Ez dakit zer ordu da</i> - <i>Noiz itzuliko naizela galdetu dit</i>
- Galdera zuzenak zehar galderaren -n atzizkiarekin ematea.	- <i>Nola esaten den hau?</i> - <i>Aizu, zer den hau?</i>
- Hitzzen ordena desegokia.	- <i>Daukat etxe bat mendian</i> - <i>Lokalizatzeko baserria da gehiegi</i> - <i>Beste herriko gizon bat (herriko beste gizon bat)</i> - <i>Ekonomiko arazoak</i>
- Subordinazio-atzizkiak gaizki eranstea.	- <i>Dezakela / dezakeela</i> - <i>Nuenela / nuela</i>
- Posposizioen inguruko erabilera okerrak.	- <i>Biok artean</i> - <i>Ikasturtearen zehar</i> - <i>Epearen kanpo aurkeztu du lana</i>
- Nola / nolako; Bezala / bezalako	- <i>Nola da zure etxea?</i> - <i>Hori nirea bezala da</i> - <i>Jon zu bezala da</i>
- Beste	- <i>Goazen beste lekura (leku batera)</i>
- Elkar	- <i>Elkar egon ziren</i>
- Ber- morfemaren inguruko akatsak	- <i>Patxi berak kontatu du</i> - <i>Etxe bertatik irten zen</i>
- Kopuruak / datak	- <i>Urtarrilak 13an</i> - <i>1900: mila bederatziehun (eta bederatziehun)</i> - <i>Erdi litro</i>

Ortografia eta puntuazio-zeinuak

- Puntuazio-zeinuak

Puntuazio-zeinuen arauak ez dira beti normatiboak edo objektiboak. Dena den, badira perpausaren antolamendu sintaktikoarekin eta semantikoarekin zerikusia duten arau nagusi batzuk. Horien aplikazioari erreparatuko diogu, besteak beste, perpausak puntuen bidez ondo mugaturik dauden, elkarren segidan doazen, maila bereko kideak komaz bereizirik ematen diren, hitz betegarriak (*bada, dena den, adibidez, beraz...*) koma tartean doazen, galdera eta harridura-zeinuak beren tokian dauden etab.

– **Ortografia:**

- Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak **larriak** dira beti, baita euskal ortografiako puntu konfliktiboenetan egiten direnak ere (*z-s-x / tz-ts-tx / h-Øθ / g-j* eta abar).

Adib.: «au isan sen» «asken hezkutitzean ezaten senidan besala»

- Aldiz, beste zenbait huts **txikitzat joko dira**: erabilera urriko hitzen ortografia («h»ak bereziki), hitz elkartuetan marratxoaren erabilerari dagozkionak, maileguetako *-u* eta *-o* bukaeretan sortzen diren zalantzak, eta antzekoak. Adibidez:

<i>Erabilera urriko hitzetan H letraren inguruko zalantzak:</i>		<i>Hitz elkartuen idazkera</i>	
– <i>Ondo</i>	– <i>Txarto</i>	– <i>Ondo</i>	– <i>Txarto</i>
<ul style="list-style-type: none"> • mihura (landare bizkarroia) • meatze (meategia) • ahur (eskuaren barnealdea) • haltz (zuhaitza) • orbel (hosto ihartua) • auhen (atsekabea) • hegi (mendiaren hegala) 	<ul style="list-style-type: none"> • miura • mehatze • aur • altz • horbel • ahuen • egi 	<ul style="list-style-type: none"> • aurrez aurre • ozta-ozta • zuzen-zuzenean • irakasmila • legegizon • lan hitzarmena • lan-hitzarmena • esku-zabal • eskuzabal 	<ul style="list-style-type: none"> • aurrez-aurre • ozta ozta • zuzen zuzenean • irakas-maila • irakas-maila
– -u/-o bukaera maileguetan		• ortografi arauak	• ortografi-arauak
– <i>Ondo</i>	– <i>Txarto</i>	• ortografia(-)arauak	• hezkuntz-gaitasuna
<ul style="list-style-type: none"> • dokumentu • kreditu • zentro • dialekto 	<ul style="list-style-type: none"> • dokumento • kreditu • zentru • dialektu 	• hizkuntza(-)gaitasuna	• hezkuntz-gaitasuna
		• hezkuntza(-)sistema	

2.5. Lexikoa

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2	HLEA
<p><i>Eskola-gaiei buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desgokiak edo erdaratik hartutakoak erabili behar baditu ere.</i></p>	<p><i>Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du. Gabezia-egoeretan euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko estrategiak garatuak ditu</i></p>	<p><i>Bere arloari buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desgokiak edo erdaratik hartutakoak erabili behar baditu ere</i></p>

Aberastasuna / Zehaztasuna / Egokitasuna

Bere eginkizunak betetzeko behar duen hitz-altxorraren jabe dela erakutsi behar du azterketariak. Lexiko zaindua erabili beharko du: aberatsa, zehatza, egokia. Lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko da, hala nola, euskal hitz arrunten ordeaz erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea.

Hitzaren esparrua

Akatsak	Adibideak
<p>– Katetoria gramatikalen aldaketa.</p>	<p>– <i>Barrez / negarrez egin (barre/negar egin)</i> <i>Bi oihuka entzun ziren</i> <i>Arrantzale nekatuta bat (arrantzale nekatu bat)</i> <i>Hobeto da horrela (hobe)</i> <i>Zu baino nekatutago nago (nekatuago)</i></p>
<p>– Erdaratik maileguen erabilera eskasa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • a artikulua ahaztea • s pluralgilea erastea • femeninoaren -a ez ezabatzea. 	<p>– <i>Pegamento bota behar dut ondo itsasteko</i> <i>Azken zentso egin dutenean...</i> <i>Botos lortzeko kanpaina</i> <i>Etiketas erabiliz</i> <i>Gimnasia moderna</i> <i>Erreakzio kimika</i></p>
<p>– Hitzari ez dagokion esangura atxikitzea.</p>	<p>– <i>Doktoreen zenbakia (kopurua)</i> <i>Nire aitak (gurasoak)</i> <i>Zazpi seme dauzka (seme-alaba)</i></p>
<p>– Euskal hitz arrunten ordeaz erdal hitzak erabiltzea.</p>	<p>– <i>Non daude tijerak?</i> <i>Utzi mesa gainean</i></p>

3. Ahozko proba

Azterketarien ahozko ekoizpena baloratzeko bost alderdi hauei erreparatuko die aztertzaileak:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. <i>Adierazpen-maila</i>	- Berbaldiaren maila orokorra, kalitatea
2. <i>Ahoskera</i>	- Ebakera, azentua, doinua.
3. <i>Hitz-jarioa</i>	- Abiadura, etenak eta mezuaren berrantolaketak.
4. <i>Zuzentasuna</i>	- Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena.
5. <i>Lexikoa</i>	- Lexikoaren aberastasuna, zehaztasuna, egokitasuna

Ondorengo orrialdeetan ahozko proba baloratzeko irizpide xeheak eskaintzen dira atalez atal:

3.1. Adierazpen-maila

Lehen balioespen orokorra da. Hizkuntza Eskakizunak egiaztatzeko ebaluazio-irizpideetan honako hauek aipa daitezke, besteak beste, mintzamenari dagokionez:

HE1	HE2	HLEA
<p><i>Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestatutako eztabaidetan esku hartu ahal izatea.</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez ikasketariak bere ideiak argi-oro antolatzeko eta adierazteko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, har-tzaileak ulertzen duen eta egoerari eta helburuari egokia zaien diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna. Ikasketariaren ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik ere neurtuko da.</i></p>	<p><i>Eskola-gaiez nahiz kanpoko gaiez azalpenak egitea eta elkar-truke komunikatiboe-tan parte hartzeko gai izatea, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.</i></p> <p><i>Irizpide hauen bidez bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jarioa eta ebakera neurtu nahi da. Orobat, gaiarekiko egokitasuna lexikoaren aldetik, bere ideiak era logiko eta egituratuan azaltzeko gaitasuna eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzekoa</i></p>	<p><i>Batetik laguntza- eta hezkuntza-zereginaz eta ikaslen garapen pertsonalaz argibideak ematea eta, bestetik, elkarizketan parte hartzeko gai izatea, behar besteko informazioa eta argudioak emanaz eta bere ikuspuntua eta iritziak azalduz eta arrazoituz</i></p> <p><i>Irizpide hauen bidez bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, argitasuna, jarioa eta ebakera neurtu nahi da. Orobat, gaiak eskatzen duen egokitasuna lexikoaren aldetik eta bere ideiak azaltzeko eta argitzeko daukan erraztasuna edo gaitasuna</i></p>

Hizkuntza-maila / Kalitatea

Aztertzaileak azterketari baten ahozko ekoizpena baloratzean galdera nagusi batzuei erantzun behar die: Ondo ulertzen zaio? Komunikazioa lortzen al du? Hiztunaren asmoa argi harrapatzen da? Eskatzen zaion kalitatea eta hizkuntza-maila badu ala ez?

Baliabide espresibo orokorrak

Hizkuntza-sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa eta elaborazio-maila balioetsiko da.

Solaskidearen arreta erakartzeko eta interesa pizteko, eraginkorragoa izateko, azalpen osatuago eta zehatzagoak burutzeko eta abarretarako baliabide erretorikoak, orijinaltasuna eta ausardia.

Koherentzia (informazioaren kantitatea eta kalitatea, berbaldiaren egituraketa, egokitasuna)

Ataltxo honetan hauexek dira aztergai:

- azterketariak eskaintzen duen informazioaren kantitatea eta kalitatea, gaiarekiko lotura
- ordena, zehaztasun eta xehetasun-maila, egituraketa
- egokitasuna/ erregistroa.

Ikus gorago, idazlanaren ebaluazioari dagozkion irizpideetan, koherentziaz esandakoa, beti ere kontuan harturik ahozko hizkeraren ezaugarriak direla eta, ondorioz, askoz ere malguago aplikatu behar direla han zehaztutakoak.

3.2. Ahoskera

Atal honetan ezin da ahantzi Euskaltzaindiak emana duela «Euskara Batuaren Ahoskera zaindua» izeneko txostena. Nolanahi ere, eta agian halabeharrez, txosten horretan deskribatzen den ahoskera aski urruntzen da errealitatean euskal hiztun gehienek erabiltzen dutenetik. Azterketariari, hortaz, ezin eskatuko diogu, jatorrizko euskal hiztunek erabiltzen duten ahoskera baino askoz ere zainduagoa. Beraz, erreferentzia bizi bat hartzearen euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunaren ahoskera hartuko dugu, eta zehatzago, irrati-telebistako profesionalena¹.

Ahozko proban, ahoskerari dagokionez, ondoko azpiatal hauek dira bereziki zaindu eta baloratu behar direnak:

¹ Ahoskera bezalako gai korapilatsu eta gutxi aztertu honetan, nahiz eta neurri batean eztabaidagarria izan, eredu hau aukeratu da, batetik, erreferentzia bat, edozein dela ere, ezinbestekoa delako eta, bestetik, berau eginkizun honetarako egokia eta aproposa delako eta edozein aztertzailek ezagutzen duelako.

- Ebakera
- Prosodia: azentua / intonazioa
- Hiatu problematikoak

Hona hemen azterketariaren ahoskera ebaluatzeko zenbait irizpide xehe:

Ebakera (fonemen burutzapena / hotsen elkarketa)

Fonemen burutzapena

Azpiatal honetan euskal fonemen burutzapen egokia behatu behar da, ondoko hauek aintzat hartuz:

- < **z** > eta < **s** > ez bereiztea ez da zigortuko.
- < **tz** > eta < **ts** > ez bereiztea ez da zigortuko.
- < **j** > kontsonantearen ebakera desberdinak onartzekoak dira: **[x] [y] [z]** [xan, yan, zan]
- < **g** > grafia daramaten erdal maileguetan **[x]** eta **[g]** ebakerak, biak, onestekoak dira. Adib.: *biologia* > [bioloxia] eta [biologia] ; *genesi* [xenesi] eta [genesi].
- < **il** > ren ordainez **[y]** ahoskatzea («yeismoa»), euskal fonetika zuzenaren kontra joan arren, ez da zigortuko. Adib.: *neskatila* > [neskatila] —burutzapen zuzena— eta [neskatiya], akastzat hartuko ez dena.

«Bestelakoak» atalean sarituko da, ordea, < **z** > eta < **s** >, < **tz** > eta < **ts** > bereizten dituen azterketariaren ahoskera eta < **il** > ren burutzapen zuzena.

Ondoko hauek ebakerako **akats larritzat** hartuko dira:

- < **tz** > erdarazko < **ch** > ri dagokion hotsaz ahoskatzea. Adib.: *aldatzen* > *al-dachen*
 - < **z** > < **x** > balitz bezala sistematikoki ahoskatzea. Adib.: *zuen* > *xuen*; *zarata* > *xarata*...
 - < **ge, gi** > daramaten euskal jatorriko hitzetan **[x]** ahoskatzea. Adib.: *giro, zigilu* > *jiro, zijilu*...
 - Erdarazko «*cerro*» edo «*zona*» moduko hitzetako hasierako **[θ]** soinua zenbait hitzetan ahoskatzea. Adib.: *asimilacio, cigarro*...
 - Hitz bukaerako leherkari gorren burutzapen «arraroak»: Adib.: *Nik* > *niz, nig, nit, ni-θ*...
dut > *duz, duk, dud*...
- Baita hitz artekoak ere:
Adib.: *erritmo* > *errizmo, errikmo*...

Azken puntu honetakoak azterketariaren artikulazio-organoen arazo somatiko gaindiezinaren ondorio diren neurrian, azterketa batzordeburuari jakinaraziko zaio.

- Hotsen *elkarketa*

Hitzak elkartzean sortzen diren aldaketa fonetikoak. Bereziki EZ eta BAIT partikulek aditz laguntzaileari erasteen eragiten dituztenak:

EZ+ B → EZP: ezpadator, ezpalitz D → EZT: eztago, eztira L → EL: eluke, elitzateke Z → ETZ: etzuen, etzaizkio N → EN: enator, enoa G → EZK: ezgara, ezkinen	BAIT + D → BAIT:baitaude, baitira Z → BAITZ: baitzara, baitzaio L → BAIL: bailuke, bailiteke N → BAIN: bainaiz, bainago G → BAIK: baikara, baikintezke
--	--

Arau fonetiko hauek ez errespetatzea ez da akastzat hartuko atal honetan; baina horrelakoak ongi burutzea saritu egingo da.

Silaben ebakera

Euskaraz hiatu direnak diptongo gisa ahoskatzea ez da onartuko *entziklopedia* (6 silaba, eta ez 5), *Frantzia* (3 silaba, eta ez bi), *numerazioa* (6 silaba eta ez 5)

Azentua eta doinua (Prosodia)

Azpiatal honetan ezin da irizpide xeherik eman. Dena dela, aztertzaileak honako hauek begiratuko ditu besteak beste:

- Gorago ezarritako «hiztun-ereduaren» azentu bidera eta doinu modura hurreratzten den ala ez azterketaria.
- Erdal doinuaren eragina norainokoa den; hau da, hitzak erdarazko «llanak» bezala ahoskatzen dituen etab. Adib.: *mintzaména, autobúsa, baserría*.
- Funtsezko tonu-aldaketak ongi lotzen dituen adierazi nahi duenarekin: galderak, harridurak eta esaldi sinpleak doinu egokiz ematen dituen; ea tonua indartzen duen garrantzitsutzat jotzen dena nabarmentzeko (galdegaia, esaterako) edo interesguneak inguruko osagarrietatik bereizteko.

3.3. Hitz-jarioa: abiadura, etenak eta berrantolaketak

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2	HLEA
<i>Hizketan gutxienezko jarioa izango du, inoiz edo behin osatu gabeko esaldiak eta etenak egin arren.</i>	<i>Hizkera jarioakor eta uniforme, jatorrizko euskaldunaren adinakoa edo haren hurbilekoa</i>	<i>Hizkera jarioakorra, etorri onekoa; ez nahitaez jatorrizko euskaldunak adinakoa, baina bai hurbilekoa</i>

Hitz-jarioaren hiru alderdi hauek begiratuko dira:

Abiadura

Hiztun guztiek ez dute hitz-jario eta etorri bera: batzuek beste batzuek baino motelxeago hitz egiten dute. Gainera, hiztun berberak bizkorrago edo mantsoago hitz egin lezake,

egoera zein den. Zaila da, beraz, neurri-patroi bat ezartzea². Dena den, azterketariari jatorrizko euskaldunak onargarri joko lukeen gutxienezko abiadura eskatuko zaio. Aztertzailea bere senaz, gutxi gorabeherako estimazioez eta azterketariaren jardunak sortzen dion inpresioaz (erosotasuna, nekea..) baliatuko da azpiatal hau baloratzeko.

Etenaldiak

Kate mintzatuan barrena eten batzuk derrigorrezkoak dira (arnasa hartzeko, unitateak bereizteko, eta abar egiten direnak); beste batzuk, aldiz, aukerakoak (efektu erretorikoak sortzekoak, adibidez). Badira beste batzuk, hizkuntza-sistemaren kontrol mugatuaren ondorio, komunikazioa astun bihurtzen dutenak eta mezuaren harrera galaraz lezaketenak. Eten hauek gaitzestekoak dira. Adibidez:

- Batera eman beharreko hitzen artean etenak egitea:
 - Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean: *Lehengoa ikusi ... zintugun*
 - Sintagmabanaezinetan: *bere ... etxean; zazpigarren ... pisua; beste ... orri ... bat*
- Galdegaiaren eta aditzaren artean egitea: *Ettxera ez, automobila hartzera ... nindoan*
- Konparatiboetan etena lekuz aldatzea: *Peru Anton ... baino trebeagoa da*
- Hitzaren barruan etenak egitea: *zu...regana; ekarri zen...ituzten*

Berrantolaketak (oihartzunak)

Hiztun trebeenek ere, tarteka bederen, huts egiten dute oharkabean. Nekeak, urduritasunak, interes ezak eta abarrek eragindako jarduerazko akats horiez ohartu bezain laster, zuzentzen saiatzen da hiztuna, atzera joaz esandakoa berrantolatzeko. Beste zenbaitetan esaldia modu batean hasi eta erdian dagoela, bukatu gabeko esaldiari «no-rabide» berria ematen dio. Ahozko hizkuntzaren fenomeno hauek onargarriak dira, bakanka gertatzen direnean.

Autozuzenketa neurritz eginda onargarria da, baina neurritz kanpo egiten denean, hizkuntza-sistemaren kontrolik eza salatzen du eta komunikazioa galarazten.

3.4. Zuzentasuna

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2	HLEA
<p><i>Hutsegite morfosintaktikoek komunikazio-etenak eta gaizki-ulertuak sor litzakete, baina bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du gramatika.</i></p>	<p><i>Zuzentasun handiz hitz egiten du. Noizik behin hutsegite morfosintaktikoak izan litzake</i></p>	<p><i>Ez du agian HE2ko batek adinako zuzentasuna, baina badu bere burua zuzentzeko aski gaitasun</i></p>

² HE2ko mailaren pareko hizkuntza arrotzen (ingelesa, kasu) ikasleei jatorrizko hitzunek darabilten abiadura motelena eskatzen zaie gutxienez. Euskarari dagokionez, jatorrizko euskalduna 95-140 hitz/ minutuko abiaduran mintzatzen omen da (HABE, Mintzamena lantzen. 1985). Gutxienezko abiadura hori eskatuko zaie, bada, HE2ko azterketariei. Azterketa honetan ez dira, hala ere, minutuak eta hitzak kontatuko. Datu hau erreferentzia gisa har daiteke aztertzaileen bateratze saioretan.

Morfosintaxia

Ikus 2.4 puntua (zuzentasuna idazlanetan). Halere, hizkuntza idatziaren eta min-tzatuaren arteko aldeak gogoan izan behar dira: zenbait gauza ezin dira zorrotasun berberaz epaitu idazlanetan eta ahozkoan: esaterako, tradizio idatziari lotuak daude-nean (ergatibo plurala...).

Errakuntza bakanak onargarriak badira ere, zuzentasun-akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo, sistematikoki izan gabe ere, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari. Gauza bera esan genezake autozuzenketez: noizbehinkakoak izanez gero onargarriak dira, baina mezuaren ulergarritasuna eragozten badeute, NAHIKOA ez emateko aski arrazoi izan litezke.

3.5. Lexikoa

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2	HLEA
<i>Eskola-gaiei buruzkoa aski garatua du; eta bestelakoetan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desegokiak, erdaratik hartutakoak edo parafraasiak erabili behar badi-tu ere.</i>	<i>Lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du. Gabezia-egoeretan euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafra-seatzeko eta antzeko es-trategiak garatuak ditu</i>	<i>Aski garatua du bere lanbideko lexikoa; eta bestelakoetan lexiko orokorraren jabe da; badauka abildadea, bestalde, gabezia-egoeretan irtenbideak bilatzeko</i>

Aberastasuna / zehaztasuna/ egokitasuna

Azterketariak gaia ongi garatzeko moduko berba-sorta darabilen ala ez begiratuko da. Era berean hitzak asmatu ezina gertatzen ote zaion. Esanahi zabalegiko berba zehazgabeak eta berba makuluak saihestu beharko ditu azterketariak eta hitzak berezko esanahiaz erabiltzen saiatu. Zenbait akats larritzat jo liteke, hala nola, euskal hitz arrun-ten ordeaz erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea.

Lexiko mugatua salatzen duten zenbait gertaera:

- Errepikapenak. Adib.: *erabaki bat hartzea erabaki zuen.*
- Lexiko-hutsuneak: behar duen berba ez aurkitzea
- Berba makuluak eta esangura zehazgabeak berben abusua.
Adib.: *zera, ba, baina, orduan, pixka bat, gauza, egin, tresna, kontu...*

Akatsei buruz ikus 2.5. puntua (Lexikoa idazlanetan). Dena dela, akatsak ezin ditugu zorrotasun berberaz epaitu idazlanetan eta ahozkoan.

4. Irizpideen laburpena

IDAZLANA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. ADIERAZPEN-MAILA

- **Hizkuntza-maila/ Kalitatea.** Zer-nolako maila du idazlanak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntza Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?
- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa; idazlearen ausardia; elaborazio-maila; orijinaltasuna...

2. KOHERENTZIA

- **Informazioa.** Mezua ulertu ahal izateko behar diren datuak ematen ditu? Informazio larregi edo gutxiegi ematen du? Kontraesanik badago enuntziatuen artean? Gaiarekin loturarik badago?
- **Egitura/ Paragrafoak.** Informazioaren ordenamendua logikoa da? Ba al dago errepikapenik, informazio hutsarterik edo etenik? Paragrafo bakoitzak ideia desberdin bat garatzen du?
- **Egokitasuna/ Erregistroa.** Ba al dago gaiarentzat baldres edo arruntegi, teknikoegi edo konplexuegi gertatzen den adierazpenik? Idazlearen tonua familia-erregia, zuzenegia edo urrunegia da jasotzailea zein den kontuan harturik?

3. KOHESIOA

- **Erreferentziarako mekanismoak (izenordainak, erakusleak, zenbait adberbio...).** Ba al dago errakuntzarik izenordainen eta erakusleen erabileran? Elementu bat berriz aipatzeko baliabide desberdinak erabiltzen ditu ala beti berbera?
- **Loturak.** Testu-zatien arteko erlazio logikoak (kausa-ondorioa, ordena, emendioa, aurkaritza...) adierazten dituzten lokailuak eta testu-antolatzaileak ondo erabilia daude?

4. ZUZENTASUNA

- **Morfosintaxia.** Akatsak baditu? Asko dira? Larriak dira? Testua ulertzea garaizten dute? Hizkuntzaren arau morfosintaktiko nagusiren batean sistematikoki huts egiten du? Hitzzen ordena zuzena da?
- **Puntuazioa / ortografia.** Puntuazioa akats larriak (punturik eza, justifikaziorik gabeko komak subjektuaren ondoren, komarik gabeko aposizioak...) badago? Galdera eta harridura-zeinuak ondo erabiltzen ditu? Hitz arruntetan akats ortografiko larriak ageri da?

5. LEXIKOA

- **Aberastasuna / Zehaztasuna/ Egokitasuna.** Hitz altxor handia darabil ala hitz multzo txikia eta mugatua? Asko al dira esanahi zabalegiko berba zehaztugabeak eta berba makuluak? Berezko esanahiaz erabiltzen al ditu hitzak?

AHOZKO PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. ADIERAZPEN-MAILA

- **Hizkuntza-maila / Kalitatea.** Zer-nolako maila du ahozko produkzioak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntza Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?
- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa, baliabide erreterikoak, orijinaltasuna...
- **Koherentzia/ Egokitasuna.** Behar diren datuak era ordenatuan eskaini ditu, informazio larregi edo gutxiegi eman gabe? Ba al dago errepikapenik edo kontraesanik esandakoen artean? Gaiarentzat arruntegi edo formalegi gertatzen diren adierazpenak erabiltzen ditu?

2. AHOSKERA

- **Ebakera.** Fonemak ongi burutzen ditu? Erdal maileguetarako lege fonetikoak betetzen ditu? Silabak zuzen ahoskatzen al ditu?
- **Azentua / Doinuera.** Hitzen azentu eta esaldien intonazio egokiak ditu? Esanahia eta doinua bat al datoz?

3. HITZ-JARIOA

- **Abiadura.** Abiadura egokiz hitz egiten du? Ala nekoso egiten da haria segitzea?
- **Etenaldiak.** Zalantza eta erraztasun eza salatzen duten etenak egiten ditu? Isiluneak estaltzeko «eee...», «mmm...» bezalako betegarriak aspergarri gertatzen dira?
- **Berrantolaketak.** Neurritz kanpoko berrantolaketak egiten ditu?

4. ZUZENTASUNA

- **Morfosintaxia.** Arau morfosintaktiko nagusiak (ergatiboa, aditzaren komunztadura, laguntzaile-mota, juntagailu eta menderagailu nagusiak...) ondo menderatzen ditu?

5. LEXIKOA

- **Aberastasuna / Zehaztasuna/ Egokitasuna.** Hitz altxor handia dauka ala hitz multzo txiki eta mugatua? Asko al dira esanahi zabalegiko berba zehaztugabeak eta berba makuluak? Berezko esanahiaz erabiltzen al ditu hitzak? Hitzak asmatu ezinik al dabil?

5. Baremoak

Baremo hauek idazmena eta mintzamina ebaluatzeko dira. Aurreko orrialdeetan zehatz-mehatz ematen diren irizpideak ondoren datozen sei taulen bidez aplikatu behar dira; horretarako:

Idazlanak

Testu idatziak ebaluatzeko arlo hauek hartuko dira kontuan: adierazpen-maila, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, lexikoa. Arlo horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren mailaz mailako deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, idazlanen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Ahozko proba

Proba hau kalifikatzeko arlo hauek hartuko dira kontuan: adierazpen-maila, ahoskera, hitz-jarioa, zuzentasuna, lexikoa. Arlo horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, ahozko ekoizpenen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Oharra

Kalifikatzeko beti ere kontuan hartu behar da «Nahikoa»ren deskribapena dela abiapuntua: ekoizpen bati «Nahikoa» emateko, kalifikazio horren ezaugarri guztiak bete behar ditu. Aldiz, ekoizpen bati—idatziari zein ahozkoari— «Gutxi» kalifikazioa emateko ez ditu zertan bete «Gutxi» sailean agertzen diren ezaugarri guztiak; aski izan liteke atal batean edo bestean huts egitea.

Deialdi irekian **Gai/Ez Gai** moduan kalifikatuko da Ahozko proba.

IDAZLANAK HE1

Deskribapena	Nota
<p>1 Oso testu ona.</p> <p>2-3 Taxuzko informazio, gertaera eta argudioak aurkezten ditu, era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu-egituraketa logikoa.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu. Ortografiatzko akatsen bat izan lezake</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa ongi erabiltzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	OSO ONGI
<p>1 Testu ona. Ongi eta erraz ulertzen da.</p> <p>2-3 Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, ongi garatuak.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu. Forma konplexuetan eta erabilera urriko hitzetan akatsen bat izan lezake.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa ongi erabiltzen ditu. Maiztasun txikiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	ONGI
<p>1 Testu ona. Nahiz eta sinplea izan, erraz ulertzen da.</p> <p>2-3 Informazio nahikoa, ongi garatua, esanguratsua eta egoki egituratua. Hala ere, gerta liteke ideia edo daturen bat behar bezain egoki azaldu edo lotu gabe gelditzea.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusiak ondo erabiltzen ditu. Akatsen batzuk ager litezke.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa erabiltzen ditu, batzuetan mugak eta hitz desegokiak antzematen bazaizkio ere.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ez da testu ona. Gerta liteke testua sinpleegia izatea ere.</p> <p>2-3 Informazioa, gertaerak eta argudioen garapena edo ideien arteko lotura desegokia izan daiteke. Testuaren egituraketa eskasa izan liteke.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusi gehienak kontrolatzen dituen arren, horietan ere behin baino gehiagotan huts egiten du.</p> <p>5 Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Testu txarra. Irakurleak arazo asko ditu idatzitakoa ulertzeko. Guztiz sinplea ere izan liteke.</p> <p>2-3 Informazio-elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osoak eta argiak adierazteko.</p> <p>4 Gramatika-egitura nagusiak ez ditu ongi menderatzen. Adierazpen ohikoenetan ere akats morfosintaktiko edota ortografikoak ager litezke.</p> <p>5 Lexiko mugatua eta zehazgabea. Berba okerrak edota erdarakada nabarmenak ager litezke.</p>	OSO GUTXI

AHOZKO PROBA HE1

Deskribapena	Nota
<p>1 Gai da ahozko zeregin arrunt gehienak erraz burutzeko.</p> <p>2-3 Jatorrizko hiztunaren abiadurara heldu ez arren, hizkera jariakor eta uniforme dauka. Ahoskera onargarria.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi menderatzen ditu eta konplexuagoetan ere moldatzen da. Bere ideiak borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	OSO ONGI
<p>1 Gai da ohiko komunikazio-egoeretan ahozko zereginak erraz burutzeko.</p> <p>2-3 Hizkera erregularra. Ahoskera onargarria.</p> <p>4 Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu, baina zailagoetan akatsak egin litzake. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntza-sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa ongi darabiltza. Maiztasun txikiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	ONGI
<p>1 Gai da elkarrizketan parte hartzeko, gertaerak eta esperientzia pertsonalak komunikatzeko eta bere iritzia adierazteko, nahiz eta batzuetan zailtasunak sumatu.</p> <p>2-3 Hizkera oso azkarra ez badu ere, nahiko erregularra da, solaskidearengan egonezina gutxitan sortzen duena. Oro har ondo ahoskatzen du.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko nagusiak zuzentasunez erabiltzen ditu. Inoiz akats txikiak eta larriren bat antzeman litezke. Doinua onargarria.</p> <p>5 Gai orokorrean eta eskola-girokoen buruzko lexiko aski garatua, batzuetan mugak eta hitz desegokiak (txarto hautatutakoak, erdarakadak etab.) antzeman arren.</p>	NAHIKOA
<p>1 Zailtasunak elkarrizketan parte hartzeko. Hizkuntza baliabideen eskasiak askotan zapuzten du komunikazioa eta ez dio biderik ematen azalpen edo arrazonamendu luzexkak egiteko.</p> <p>2-3 Hizkera motela eta irregularra izan lezake; etenaldi eta autozuzenketa ugari. Agian ahoskera bitxia edo doinu arrotzegia.</p> <p>4 Egitura nagusi batzuk ondo menderatzen baditu ere, beste asko ez ditu ondo kontrolatzen. Akats larriak.</p> <p>5 Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Zailtasun handiak elkarrizketan aritzeko, nahiz eta esaldi solte batzuk ongi burutu.</p> <p>2-3 Hizkera motela, zatikatua eta irregularra, komunikazioa erabat zailtzen duena. Agian ahoskera bitxia edo doinu oso arrotza.</p> <p>4 Akatsak larri ugari edota, hori eragozteko, oso hizkuntza sinplea erabiltzen du.</p> <p>5 Oinarri-oinarriko lexikora mugatzen da. Berba okerrak, mailegu bitxiak edota erdarakadak maiz erabil litzake. Muga handiak esan nahi duena gutxieneko zehaztasunez adierazteko.</p>	OSO GUTXI

IDAZLANAK HLEA

Deskribapena	Nota
<p>1 Oso testu ona eta baliabide espresiboetan, aberatsa.</p> <p>2-3 Taxuzko informazio, gertaera eta argudioak aurkezten ditu era erakargarrian; ideia nagusi eta nabarmenak ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu-egituraketa logikoa.</p> <p>4 Gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu. Ortografia akatsen bat ere izan lezake.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta bere lanbide-esparrukoa ondo menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	OSO ONGI
<p>1 Testu ona. Ongi eta erraz ulertzen da.</p> <p>2-3 Informazio, gertaera eta argudioak ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, ongi garatuak. Testu-egituraketa egokia.</p> <p>4 Gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzen ditu. Forma konplexu eta erabilera urrikoetan eta ortografian akatsen bat egin lezake.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta bere lanbide-esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	ONGI
<p>1 Testu ona, erraz ulertzen dena. Azalpen argiak ematen ditu.</p> <p>2-3 Informazioa nahikoa eta egoki aurkeztua.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusiak menderatzen ditu. Akatsen batzuk ager litezke.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta bere lanbide-esparrukoa erabiltzeko gai da, batzuetan mugak antzematen bazaizkio ere.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ez da testu ona: sinpleegia edota irakurleari eragozpenak sortzen dizkiona.</p> <p>2-3 Informazio urria, argudio gutxi garatuak edota ideien arteko lotura desegokia. Testuaren egituraketa desegokia.</p> <p>4 Akats nabarmenak eta hutsune ugari, oro har, baita arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusietan ere.</p> <p>5 Lexiko mugatua. Gaizki hautatutako hitzak edo erdarakadak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Testu txarra, sinpleegia edota ulergaitza.</p> <p>2-3 Ezintasun nabaria du informazioa eta gertaerak aurkezteko. Ez da gai ideia argiak adierazteko eta argudioak garatzeko.</p> <p>4 Era guztietako akats gramatikal eta ortografikoak ditu.</p> <p>5 Lexiko mugatua. Berba okerrak edota erdarakada nabarmenak ageri dira.</p>	OSO GUTXI

AHOZKO PROBA HLEA

Deskribapena	Nota
<p>1 Gai da ohiko komunikazio-egoeretan nahiz bere lanbideari dagozkionetan ideiak xehetasunez eta erraz adierazteko, baita azalpen konplexuak egiteko ere.</p> <p>2-3 Jatorrizko hiztunaren pareko abiadura, ahoskera eta hizkera dauka.</p> <p>4 Zuzen hitz egiten du.</p> <p>5 Lexiko aberatsa eta zehatza erabiltzen du bai mintzagai orokorretan bai bere lanbideari dagozkionetan.</p>	OSO ONGI
<p>1 Gai da ohiko komunikazio-egoeretan, nahiz bere lanbideari dagozkionetan, ahozko zereginak ongi burutzeko.</p> <p>2-3 Jatorrizko hiztunaren pareko edo haren hurbileko abiadura, ahoskera eta hizkera.</p> <p>4 Zuzen hitz egiten du, baina akats larriren bat egin lezake.</p> <p>5 Lexiko aberatsa eta zehatza erabiltzen du bai mintzagai orokorretan bai bere lanbideari dagozkionetan.</p>	ONGI
<p>1 Zailtasunak zailtasun, gai da ohiko komunikazio-egoeretan nahiz bere lanbideari dagozkionetan ahozko zereginak burutzeko.</p> <p>2-3 Hizkera jariakorra. Hitzak edo esamoldeak bilatu behar izateak etenak sor litzake. Ahoskera eta doinua onargarriak ditu.</p> <p>4 Zuzen hitz egiten du, baina akats larriren bat edo beste egin lezake.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta bere lanbide-esparrukoa menderatzen du.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ez da gai ohiko komunikazio-egoeretan nahiz bere lanbideari dagozkionetan ahozko zereginak burutzeko.</p> <p>2-3 Hizkera motela eta irregularra, etenaldi edota autozuzenketa gehiegizkoa. Gerta liteke zenbait fonema gaizki burutzea edo doinuan ama-hizkuntzaren eragin nabaria erakustea.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko nagusi gehienak kontrolatzen baditu ere, akats larriak ageri dira behin eta berriro.</p> <p>5 Lexiko mugatua. Gaizki hautatutako hitzak edo erdarakada nabarmenak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Ohiko komunikazio-egoeretan nahiz bere lanbideari dagozkionetan, trakets ari da.</p> <p>2-3 Hizkera irregularra eta motelegia, esaldi laburretan izan ezik. Gazteleraren eraginagatik azentu eta intonazioa bitxiak dauzka.</p> <p>4 Gramatika-arau oinarrizkoetan ere akatsak ageri dira.</p> <p>5 Lexiko murrizta; oinarrizko hiztegiaren ezagutza nabari da.</p>	OSO GUTXI

IDAZLANAK HE2

Deskribapena	Nota
<p>1 Testu borobila.</p> <p>2-3 Taxuzko informazioa, gertaera eta argudioak aurkezten ditu eta, gainera, era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu egituraketa logikoa.</p> <p>4 Ez dago ortografia, puntuazio eta gramatika-akats larririk; idazlanak hizkuntza-sistema zuzentasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten du.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	OSO ONGI
<p>1 Testu ona eta landua.</p> <p>2-3 Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, ongi garatuak. Testu egituraketa egokia.</p> <p>4 Ortografia eta gramatikaren arau nagusiak ongi menderatzen ditu. Akats larririk ez.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa ongi erabiltzen ditu. Maiztasun txikiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</p>	ONGI
<p>1 Testu ona. Azalpen zehatzak ematen ditu proposatutako gaiari buruz.</p> <p>2-3 Informazioa, gertaerak eta argudioak egoki aurkeztu eta garatzen ditu. Mezuaren haria erraz segitzeko moduko testu-egituraketa.</p> <p>4 Ortografiaren eta gramatikaren arauak ongi menderatzen ditu. Akats larriren bat edo beste ager liteke.</p> <p>5 Lexiko orokorra eta eskola-giroko berariazkoa erabiltzeko gai da.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ez da testu ona. Irakurleari eragozpenak sortarazten dizkio. Gerta liteke akatsak eragotzi nahian oso idazlan sinplea idatzi izana ere.</p> <p>2-3 Ideien arteko lotura ez da behar bezain egokia; testuak informazio gutxiegia dauka edo gaiarekin lotura ahula.</p> <p>4 Akats larriak gramatika-arloan. Arau gramatikal edota ortografikoetan hutsune nabarmenak.</p> <p>5 Lexiko mugatua izan dezake. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakadak ager litezke.</p>	GUTXI
<p>1 Testu txarra. Irakurleari eragozpen handiak sortarazten dizkio.</p> <p>2-3 Informazio-elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideiak osorik eta argi adierazteko.</p> <p>4 Ortografia eta gramatika-akats larri ugari.</p> <p>5 Lexiko mugatua. Muga nabarmena antzematen da gaia gutxieneko zehaztasunez garatzeko.</p>	OSO GUTXI

AHOZKO PROBA HE2

Deskribapena	Nota
<p>1 Gai da bere lanbideari dagozkion ahozko zereginak eroso betetzeko. Azalpen konplexua egin du eta bere ideiak argi eta erraz adierazi</p> <p>2-3 Mintzagai orokorretan nahiz bere lanbideari dagozkienetan, hizkera jariakor eta uniforme, jatorrizko hiztunarena bezalakoa. Ahoskera zaindua du.</p> <p>4 Zuzentasun osoz hitz egiten du.</p> <p>5 Lexiko zabala eta zehatza, bai bere lanbideari dagozkion gaietan bai gai orokorrei dagozkienetan.</p>	OSO ONGI
<p>1 Gai da bere lanbideari dagozkion ahozko zereginak zailtasunik gabe betetzeko.</p> <p>2-3 Hizkera jariakor eta uniforme. Euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunaren parekoa. Ahoskera zaindua du.</p> <p>4 Zuzentasun handiz hitz egiten du, akatsen batzuk gorabehera.</p> <p>5 Bere lanbideko nahiz ohiko gizarte-harremanetako gaietan lexiko zabala eta zehatza darabil aparteko arazorik gabe.</p>	ONGI
<p>1 Gai da bere lanbideak eskatzen dizkion ahozko zereginak burutzeko. Gai da halaber ideia konplexu samarrak adierazteko orduan, oztopoei irtenbidea bilatzeko.</p> <p>2-3 Hizkera jariakor eta uniforme, jatorrizko hiztunak onargarrizat joko lukeena. Nolanahi ere, hitzak edo esamoldeak bilatu beharrak eta birformulazioek etenak sor litzakete. Ahoskera eta doinua onargarriak.</p> <p>4 Zuzentasunez hitz egiten du. Akats larriren bat edo beste izan lezake.</p> <p>5 Lexiko orokor aberatsa. Bere lanbideari dagozkion gaietan lexiko zabala eta zehatza erakusten du.</p>	NAHIKOA
<p>1 Ez da gai lanbideari dagozkion ahozko zereginak betetzeko. Ideia konplexuak adierazteko zailtasun nabariak ditu.</p> <p>2-3 Hizkera motela eta irregularra. Agian etenaldi edota autozuzenketa gehiegi. Gerta liteke zenbait fonema gaizki burutzea edo doinuan ama-hizkuntzaren eragin nabaria izatea.</p> <p>4 Arau morfosintaktiko nagusi gehienak kontrolatzen baditu ere, akats larriak egiten ditu.</p> <p>5 Lexiko mugatua, bereziki alde aurretik prestatu gabeko topikoez aritzen denean.</p>	GUTXI
<p>1 Ahozko azalpen traketsa.</p> <p>2-3 Hizkera irregularra eta motelegia, esaldi laburretan izan ezik; oso zalantzati. Baliteke bitxiak agertzea edo gaztelaniaren mendeko azentua eta intonazioa erakustea.</p> <p>4 Oinarrizko aditz-forma eta gramatika-egituretan ere akatsak antzematen dira.</p> <p>5 Lexiko murrizta: oinarrizko hiztegi mugatzen da.</p>	OSO GUTXI

ERANTZUNAK

ATARIKO PROBEN ERANTZUNAK

HE1: 1. eredua

1	C	11	D	21	B	31	B	41	D	51	A	61	A
2	D	12	C	22	A	32	A	42	A	52	B	62	B
3	B	13	B	23	A	33	D	43	C	53	C	63	B
4	B	14	A	24	C	34	C	44	B	54	C	64	D
5	C	15	A	25	D	35	A	45	D	55	D	65	D
6	B	16	C	26	B	36	C	46	B	56	C	66	B
7	D	17	A	27	A	37	A	47	A	57	D	67	B
8	B	18	B	28	C	38	C	48	D	58	C	68	D
9	B	19	C	29	D	39	D	49	D	59	C	69	C
10	A	20	A	30	D	40	C	50	C	60	C	70	D

HE1: 2. eredua

1	A	11	B	21	D	31	A	41	B	51	C	61	C
2	D	12	A	22	C	32	D	42	C	52	D	62	D
3	D	13	C	23	A	33	B	43	B	53	C	63	A
4	D	14	D	24	C	34	D	44	B	54	B	64	D
5	A	15	B	25	A	35	C	45	D	55	A	65	D
6	D	16	C	26	B	36	D	46	D	56	B	66	B
7	A	17	C	27	A	37	C	47	C	57	C	67	C
8	D	18	D	28	C	38	A	48	A	58	C	68	B
9	C	19	C	29	B	39	B	49	B	59	A	69	A
10	C	20	D	30	D	40	D	50	D	60	B	70	B

HE2: 1. eredua

1	D	11	A	21	B	31	A	41	C	51	C	61	C
2	B	12	C	22	B	32	D	42	D	52	A	62	B
3	C	13	D	23	D	33	B	43	C	53	D	63	C
4	D	14	A	24	C	34	B	44	A	54	C	64	B
5	B	15	D	25	A	35	D	45	A	55	D	65	C
6	A	16	C	26	A	36	C	46	B	56	C	66	B
7	B	17	A	27	D	37	B	47	A	57	B	67	D
8	B	18	D	28	C	38	B	48	D	58	A	68	C
9	A	19	C	29	A	39	C	49	B	59	C	69	B
10	C	20	D	30	C	40	B	50	A	60	B	70	D

HE2: 2. eredu

1	D	11	B	21	C	31	D	41	B	51	D	61	C
2	A	12	A	22	B	32	C	42	A	52	D	62	C
3	D	13	B	23	D	33	B	43	D	53	A	63	B
4	A	14	D	24	A	34	B	44	C	54	A	64	D
5	C	15	D	25	B	35	D	45	B	55	C	65	A
6	C	16	D	26	D	36	C	46	B	56	A	66	C
7	D	17	A	27	A	37	D	47	A	57	B	67	A
8	A	18	C	28	A	38	D	48	D	58	B	68	C
9	B	19	A	29	C	39	C	49	D	59	A	69	A
10	C	20	B	30	A	40	B	50	B	60	C	70	D

HLEA: 1. eredu

1	A	11	B	21	D	31	D	41	A	51	A	61	B
2	C	12	A	22	B	32	A	42	D	52	B	62	A
3	B	13	D	23	D	33	D	43	C	53	D	63	D
4	A	14	D	24	A	34	D	44	B	54	C	64	A
5	A	15	C	25	C	35	B	45	C	55	C	65	D
6	D	16	B	26	C	36	D	46	D	56	A	66	B
7	D	17	C	27	A	37	D	47	B	57	B	67	B
8	D	18	A	28	C	38	C	48	C	58	C	68	C
9	C	19	B	29	C	39	C	49	D	59	B	69	C
10	D	20	D	30	A	40	A	50	B	60	B	70	B

PROBA IDATZIEN ERANTZUNAK

HE1: 1. eredua

Ahozkoaren ulermena (Yoga beroa)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
C	B	A	B	C	A	C	B	A	B

Irakurmena (Hiriak eta garraioak)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	C	A	A	B	B	C	D	D	D

HE1: 2. eredua

Ahozkoaren Ulermena (Antraxa)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
G	E	G	E	E	E	G	E	E	G
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
E	G	G	G	G	E	E	E	E	E

Irakurmena (Ahozko inprobisazioa eta bertsolaritza)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	A	C	D	B	A	C	D	B	D
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	A	B	A	C	B	A	D	C	B

HE2: 1. eredia

Irakurmena (Emozioak ere inteligentzia dira)

1	2	3	4	5
C	D	A	B	D

6	7	8	9	10
B	C	C	A	A

HE2: 2. eredia

Irakurmena (Mundializazioak Alemanian erakutsi dizkigu hortzak)

1	A	11	B	21	C	31	D
2	C	12	B	22	A	32	A
3	A	13	D	23	C	33	A
4	B	14	C	24	C	34	C
5	B	15	C	25	A	35	D
6	A	16	D	26	C	36	C
7	D	17	A	27	A	37	A
8	A	18	B	28	C	38	B
9	D	19	D	29	B	39	A
10	A	20	B	30	A	40	B

HLEA: 1. eredia

Ahozkoaren ulermena (Mobbing-a)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A	B	C	C	A	B	C	A	C	B

Irakurmena (Mapak izenez eta kolorez bete zituzten zoro haiek)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A	D	B	A	A	B	A	B	C	C

ERASKINAK

Estatistika-laburpena

2004 DEIALDI IREKIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	2294	811
Atarikoa gainditu	1496	362
Idatzia gainditu	987	155
Ahozkoa gainditu	698	90
Gainditze-tasa	30.4	11,1

2004 DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	208	366
Gaindituak	88	171
Gainditze-tasa	42.3	46.7

2005 DEIALDI IREKIA

	HE1	HLEA	HE2
Aurkeztuak	2515	99	891
Atarikoa gainditu	1095	61	376
Idatzia gainditu	858	32	179
Ahozkoa gainditu	682	27	108
Gainditze-tasa	27.1	27.3	12.1

2005 DEIALDI ITXIA

	HE1	HLEA	HE2
Aurkeztuak	211	4	319
Gaindituak	112	4	127
Gainditze-tasa	53.1	100.0	39.8

Arauzko xedapen batzuk

47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derriortasun-egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena. (apirilaren 2ko EHAA)

(.....)

II. ATALBURUA.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

2. atala.– Lanpostua lortzeko eta bertako lana betetzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntza trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.

3. atala.– Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntza eskakizunak bi dira: 1. hizkuntza eskakizuna eta 2. hizkuntza eskakizuna.

1. hizkuntza eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da. 2. hizkuntza eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da.

4. atala.– 1.HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle batzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;
- ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: familiako arazo, adiskidetasuna, nortasuna, zein bere heldutasunerako bidean izan dezaketen beste edozein arazoz aritzeko;
- gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntza administrazioko langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta tekniko ez izan, honako gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikastetxearen funtzionamenduari buruzko gaietaz aritzeko.

5. atala.– 2. HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- 1. HE-rako zehaztutakoa euskaraz egiteko;
- bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei, bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpen majistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;
- eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak, kontsulta liburuak, artikuluak eta abar ulertzeko;
- irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitekeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irrati programak);
- programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;
- eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;
- ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeke beste edozein iharduera euskaraz egiteko.

(.....)

66/2005 DEKRETUA, apirilaren 5koa, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzen dituen

(.....)

3. *artikulua*.– 47/1993 Dekretuan hezkuntza-administrazioiko irakasleentzako ezartzen diren HE1 eta HE2 eskakizunen tarte-bitarteko gaitasun-maila ziurtatzen du HLEAk. Bere lanbidea zailtasun berezirik gabe euskaraz betetzeko gai izan behar du HLEAdunak: jatorrizko hiztunaren pareko edo hurbi-leko gaitasuna izan behar du hitzez, eta oinarrizko trebetasun-maila ere izan beharko du idatziz. Hots, ondoko hauek euskaraz egiteko gai izan behar du HLEAdunak:

Ikasleen, irakasleen, gurasoen eta gainerako eskola-agenteen ahozko euskara ulertzea, baita ikasleen beharrek lotutako eskolako materiala ulertzea ere (filmak, bideoak, zintak, irratsaioak, besteak beste).

Bere kargu dituen ikasleen beharretarako diren argitalpenak, programa ofizialak, kontsulta-liburuak, artikulak etab. ulertzea.

Ikasleekin, gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntzako beste langileekin erraz eta zuzen mintzatzea laguntza- eta hezkuntza-zereginaz eta ikasleen garapen pertsonalaz eta eskolakoaz.

Ikasleekin euskaraz aritzea eskolako gaiei buruz: egokitzapen- edo mugikortasun-arazoak, beste ikasle batzuekikoak eta familia-ingurukoak, besteak beste.

Txostenak euskaraz idaztea, bai ikasleei eta bai lanean ari diren programei buruz.

(.....)

Euskara Zerbitzuko zenbait argitalpen

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

2007/11/1

GLOTODIDAKTIKA LANAK

Hizkuntzen irakaskuntza

- 45 Irakasleen euskalduntzea. HE1erako curriculum: 1000, 2000 eta 3000 atalak.
- 48 Euskara DBHn. Metodologiazko orientabideak (J.J. Agirrezabala etab.)
- 49 Irakasleen euskalduntzea. HE2rako curriculum: 4000 eta 5000 atalak.
- 53 Gramatika gaitasuna lantzen (A. Zubizarreta, M. Dorronsoro, J.M. Azurmendi)
- 54 Kontuan izan. Akatsak zuzentzen. (P. Eizagirre Irure)
- 55 Hartu hitza (ikaslearen liburua) (A. Peñalba, P. M. Aranburu, J.J. Uranga)
- 57 Hartu hitza (irakaslearen liburua) (A. Peñalba, P. M. Aranburu, J.J. Uranga)
- 61 Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak. Gidaliburua.
(Gaminde, I.; Goikoetxea, J.L.; Sarriugarte, I.)
- 62 Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak. Ariketa liburua.
(Gaminde, I.; Goikoetxea, J.L.; Sarriugarte, I.)
- 68 Bizkaian zehar kontetan. Gidaliburua eta CDa. (Gaminde, I.; Goikoetxea, J.L.; Elgoibar, E.)
- 69 Bizkaian zehar kontetan. Ariketa liburua. (Gaminde, I.; Goikoetxea, J.L.; Elgoibar, E.)

Gaitasun-agiriak

- 70 EGA. 2005 eta 2006ko azterketak.
- 71 Hizkuntza-ebaluazioko terminoen glosategia.
- 72 Irakasleen hizkuntza-eskakizunak. 2004 eta 2005eko azterketak.

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA

Hizkuntza Prestakuntza

- 1 Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza.
(A. Arejita-J.M.Irazola-J.Uriarte)
- 2 Euskal Aditza: bizkaiera eta batua. (J.M. Irazola)
- 4 Bizkaierazko joskera. (A. Arejita, J.M. Etxebarria, J.M. Irazola, J. Uriarte)
- 5 Hezkuntza administrazioko hiztegia. (I. Olaziregi, J.M. Berasategi, M. Zalbide)
- 10 Ortotipografia. (J.R. Zubimendi)
- 12 Kalko okerrak. (J. Garzia Garmendia)
- 13 Onomastika. (A. Mujika, A. Goenaga, A. Alberdi)

Ulibarri programa

- 6 Neur-kareletik, hizkuntza egoeraren popatik brankara. (X. Isasi, L. Erriondo)
- 7 IKABILerako laguntza-materiala. (M. Soria)
- 8 Ahozkotasuna hezkuntzan. Abiatzeko gidaliburua. (I. Esnaola)
- 9 Erabileraren neurketa ikastetxeko eremu informaletan. (O. Altuna)
- 11 Euskara eta aisialdi antolatua. (J. Arexolaleiba eta beste.)
- 14 Eskola-idatziak (Leioako Berritzeguneko Hizkuntza Normalkuntzako Mintegia)
- 15 Hizkuntza jarrerak lantzen (Bernat Joan i Mari)
- 16 Irratia eskolan. (Joxe Juan Ugalde)
- z/g «Eskola hiztun bila» jardunaldia 2002. (Askoren artean.)

IKASMATERIALAK

Toribio Etxebarria-Lanbide Heziketako materialak

- 1 Prototipo elektronikoen garapena eta eraikuntza (X. Castrillon, J.C. Lizarbe)
- 2 Finantza kudeaketa (A. Atxalandabaso, I. Elorrieta, J. Sanchez)
- 3 Giza baliabideak. (B. Etxabe, I. Landa)
- 4 Kultur animazioa. Gizarte eta kultur animazioa. (M. Garizurieta)
- 5 Analisi kimiko eta tresna bidezkoa. (E. Iturraspe, A. Ribera)
- 6 Laborategiko antolaketa eta kudeaketa (M.T. Benítez)
- 7 Farmazia- eta parafarmazia-produktuen prestaketa
(M. Treviño Alberdi, I. Vázquez López)
- 8 Esku-hartze komunitarioaren metodologia (J. del Río Aldasoro)
- 9 Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak (A. Anasagasti Arana)
- 10 Biltegiratze-lanak. (C. Bengoetxea eta beste)
- 11 Komunitate-garapena (I. Silloniz Ozamiz)
- 12 Jolasen oinarri teorikoak eta umeen jolasak (B. Llorente Pastor)
- 13 Lan-prestakuntza eta orientabidea: lan-zuzenbidea (M.A. Terceño Pérez de Nanclares)

ZABALKUNDE LANAK

Irakaskuntza datuak

- 49 Basque in education. (N. Gardner)

IRALE (Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea)

- z/g IRALE. Aurkezpen-txostena 2007-08.

NOLEGA (Normalizazio Legearen Garapena)

- 18 Eskola antzerkia 1. (Askoren artean)
 - 28 Eskola hiztun bila. (B. Basterretxea etab.)
 - 30 Eskola antzerkia 2. (Askoren artean)
 - 31 Eskola antzerkia 3. (Askoren artean)
 - 34 Euskal girotze barnetegiak. (Askoren artean.)
 - 37 Ikastetxeen errotulazioa. (C. Lobo, I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 40 Eskola antzerkia 4. (I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 42 Eskola antzerkia 5. (I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 44 Kontrapas. 1950 aurreko kantuen eskola-katalogoa. (Eresbil, Nolega)
 - 45 Eskola antzerkia 6. (I. Artola, J.M. Berasategi)
 - 48 Euskal girotze barnetegiak. (Askoren artean)
 - 51 Txan-go (Askoren artean.)
 - 52 Joan Zaku (Alkizako eta Segurako irakasle-monitoreak)
 - 53 Eskola antzerkia 8.
 - 54 Eskola antzerkia 9. (I. Artola, J.M. Iturain, L. Mindegia,
J.M. Odriozola, M. Artabe, S. Izagirre).
- z/g Barriola deklamazio-saria 2006-2007 (CDa)
- z/g NOLEGA. Aurkezpen-txostena 2007-08.
- z/g Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketa 2007.

HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

2004

2005

Entzumena:

- 1.- Yoga beroa (HE1)
- 2.- Antraxa (HE1)
- 3.- Mobbing-a (HLEA)

Gai-azalpena:

- 4.- Loaldia (HE1)
- 5.- Fermin Muguruza (HE1)
- 6.- Mundukide fundazioa (HE2)
- 7.- Ukimena (HE2)
- 8.- Ikerketa zientifikoa (HLEA)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ardurapean egindako argitalpena da. Sailak eskerrak ematen dizkie elkarriketageleei, elkarriketatuei, HABEri eta Euskadi Irratiari.

ISBN: 978-84-457-2695-2
LG: VI-61/08

IRAKASLEEN
H I Z K U N T Z A E S K A K I Z U N

2004 eta 2005eko A
AZTERKETAK



EK15020251
Irakasleen hizkuntza eskakizunak

ISBN: 978-84-457-2695-2



9 788445 726952

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 6,25 €